

IKASGAIEN AMAIERAKO LANA

UNIBERTSITATE MASTERRA ABOKATUTZARAKO SARBIDEAN

.....

GIZA-ESKUBIDEAK, ARMEN NAZIOARTEKO SALEROSKETA ETA DOHAINZAK. XXI. MENDEAN: NAZIOARTEKO ZUZENBIDE PRIBATUKO IKUSKERA.

Adriana De Diego Liberal

ZUZENDARIA

Unai Belintxon Martín

Iruñea

2024ko urtarrilaren 22a

Bizitza den ibilbide luze honen euskarria izan zaretenoi.

Honaino eta are urrunago iritsiko nintzelakoan sinesteagatik.

Bigarren familia jarrera hartu izateagatik.

Azken tarte honetan ondoan egoteagatik.

Zuen besoetan garatzen jarraituko naizenekin.

Etsipenaren arteko eztabaidengatik, elkar-maitatze eta -ulerpenarengatik.

Euskaraz ikasten jarraitzea posible egiteagatik.

Mila esker beti egon zaudetenei,

eta jadanik ez zaudeten haiei.

Five distinct types of freedom, seen in an "instrumental" perspective, are particularly investigated in the empirical studies that follow.

These include political freedoms, economic facilities, social opportunities, transparency guarantees and protective security.

Each of these distinct types of rights and opportunities helps to advance the general capability of a person. They may also serve to complement each other.

Public policy to foster human capabilities and substantive freedoms in general can work through the promotion of these distinct but interrelated instrumental freedoms.

Without the substantive freedom and capability to do something, a person cannot be responsible for doing it.

But actually, having the freedom and capability to do something does impose on the person the duty to consider whether to do it or not, and this does involve individual responsibility.

In this sense, freedom is both necessary and sufficient for responsibility.

Amartya Sen "Development as Freedom".

LABURPENA

Ondorengo ikerketak, giza eskubideen babesa arautzen dituzten nazioarteko armen salerosketaren eta dohaintzen inguruko araudiek jasandako azken bilakaeraren azterketa eta ikuspegi kritikoaren garapena dauka helburu. Ikuspuntu bikoitzeko analisi honek, teorikoa eta praktikoa izanen da. Edo, aitzitik, arau ezberdinen arteko bateragarritasun nahiz gabeziak sor dezakeen ezjakintasuna, trabak eta isilpekoak, aztertuko dira. Ukrainako erasoaren eskutik garatutako ondorioak, hala nola, Afrikaren erdigunean aurkitzen diren lurraldeen bilakaera politikoa eta arma nuklearrak berriz erabiltzeko arriskua arakatuko dira egoeraren kasu bezala, baita Palestinako subiranotasunaren enura. Zinez, nazioarteko instituzio, organo edo auzitegiek hauei buruz adierazitako iritzien edo erabakien aurrean, betoak, ordena hegemonikoaren pribilegioa, arazo nagusia bihurtzen da nazioarteko bakea eta segurtasuna den interes orokorra babesteko.

HITZ GAKOAK: Giza-eskubideak; Armak; Nazioarteko salerosketa; Dohaintzak; Betoa; Nazioarteko Zuzenbidea.

ABSTRACT

The further research aims at analysing and develop a critical view of the latest developments in the regulations about international arms trade and donations, which regulate the protection of human rights. This double-edged analysis will be theoretical and practical. Or else, ignorance, hindrance, and secrecy, which may produce the incompatibility will be inquired. The consequences of the attack in Ukraine, such as the political development of the territories in Africa and the risk of the reuse of nuclear weapons, as well as the doubting of Palestinian sovereignty, will also be explored as cases of the situation. Indeed, in the light of the opinions or decisions expressed in respect of them by international institutions, bodies or courts, vetoes, the privilege of the hegemonic order, becomes the principal issue for the protection of the general interest, international peace and security.

KEY WORDS: *Human Rights; Weapons; International trade; Donations; Veto; International Law.*

RESUMEN

La siguiente investigación tiene como objeto el análisis y desarrollo de una visión crítica de la reciente evolución de normativas de trata y donaciones de armas internacionales que regulan la protección de los derechos humanos. El análisis va a ser realizado desde una doble perspectiva teórico-práctica. Del mismo modo, se examinará el desconocimiento, las trabas y los secretos que producen la incompatibilidad entre las diferentes normas. Van a explorarse los resultados que vienen desarrollándose de la mano del ataque a Ucrania, como la evolución política de los territorios que se encuentran en África y el riesgo del uso armas nucleares, así como la puesta en duda de la soberanía palestina. Frente a las opiniones o decisiones de instituciones, órganos o tribunales internacionales, el veto, privilegio del orden hegemónico, se convierte en el principal problema para la protección del interés general, la paz y la seguridad internacional.

PALABRAS CLAVE: Derechos Humanos; Armas; Compraventa internacional; Donaciones; Veto; Derecho Internacional.

RESUM

La següent recerca té com a objecte l'anàlisi i desenvolupament d'una visió crítica de la recent evolució de normatives de tràfic i donació d'armes internacionals que regulen la protecció dels drets humans. L'anàlisi serà realitzada des d'una doble perspectiva teoricopràctica. De la mateixa manera, s'examinarà el desconeixement, els entrebancs i el secretisme que produeixen la incompatibilitat entre les diferents normatives. S'exploraran els resultats que s'han desenvolupant de la mà de l'atac a Ucraïna, com l'evolució política dels territoris que es troben a Àfrica i el risc de l'ús d'armes nuclears, així com la posada en dubte de la sobirania palestina. Enfront de les opinions o decisions d'institucions, òrgans o tribunals internacionals, el veto, privilegi de l'ordre hegemònic, es converteix en el principal problema per a la protecció de l'interès general, la pau i la seguretat internacional.

PARAULES CLAU: Drets Humans; Armes; Compravenda internacional; Donacions; Vet; Dret Internacional.

LABURPURAK

ASPE Atzerri eta Segurtasun Politika Erkidea.

BOE Estatuko Aldizkari Ofiziala.

(Boletín Oficial del Estado).

DOUE Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.

(Diario Oficial de la Unión Europea).

G2G Gobernutik Gobernura.

(Government to Government).

GKE Gobernu Kanpoko Erakundeak.

NATO Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundea.

(North Atlantic Treaty Organization).

Orr. Orrialdea(k).

Znb. Zenbakia.

AURKIBIDEA

I. SARRERA.....	11
II. MARKO JURIDIKOA	15
1. Nazioarteko maila	17
1.1 Nazio Batuen Erakundearen Gutuna	17
1.2 Armen inguruko Merkataritzarako Ituna.....	22
1.3 Arma Nuklearren Ez Ugaritze Hitzarmena	25
1.4 Arma Nuklearren Debekuaren Inguruko Hitzarmena.	26
1.5 Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubide Konpilazioa eta Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutua.....	28
1.6 Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua.....	32
2. Europar mailan.....	36
2.1 428/2009 Erregelamendua, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorria kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena.	37
2.2 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua, teknologia eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arau komunak zehazten dituen.....	38
2.3 Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutua.....	41
2.4 Erromako Hitzarmena, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Estatutua.....	44
3. Estatu mailan.....	46
3.1 53/2007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa.	46
3.2 Defentsa-Materialaren, Beste Material Batzuen eta Erabilera Bikoitzeko Produktu eta Teknologien Kanpo-Merkataritza Kontrolatzeko Erregelamendua.....	48
3.3 Estatu Sekretuen Legearen proiektua.	50

III. DOHAINTZAK.....	54
1. Lege aplikagarria.....	54
2. <i>Government to Government</i> kontratuen modalitatea.....	55
3. Salaketa hutsa.....	57
IV. GAUR EGUN.....	58
1. Ukrainako guda.....	58
2. Afrika-Errusia harremanak.....	65
3. Arma nuklearrak.....	68
4. Palestinaren hauskortasuna.....	75
V. BETOAREN MESEDE EGOERA.....	80
1. Jaiotza.....	80
2. Frantziako limite saiakera.....	81
3. Aldaketa posibleak.....	83
VI. AZKENENGO HAUSNARKETA.....	87
VII.BIBLIOGRAFIA.....	90
1. Arautegia.....	91
2. Jurisprudentzia, erabakiak eta beste motatako ebazpenak.....	93
3. Doktrina.....	96
4. Errekurtso digitalak.....	103

I. SARRERA

Giza eskubideak gizakiarentzako oinarrizko printzipio eta bermeen multzoa dira, eta Estatuaren aurrean pertsonak duen duintasunaren eta errespetuaren baieztapen edo berrespenek ordezkaten dituzte. Gizakiaren izaeratik bertatik datozen Estatuaz gaindiko eskubideak dira¹.

Berez, guda giza eskubideen aurkari nagusi da. Herritarren aurkako eraso larriak akabo ematen baitira, izua eratzeko, gorrotoarengatik edo errendizioa al bait arinen lortzeko, horregatik, gudek, bizitza-eskubideaz gain, beste funtsezko eskubide guztiak urratzen ditu: integritate fisiko zein morala, askatasuna, duintasuna, hezkuntza edo osasuna, besteak beste. Gainera, ezin ditugu alde batera utzi emakumeen eta adingabeen eskubideak, bortxatuak izaten direnak, edo salerosketa baita prostituzioa².

Lehen Mundu Gerra baino lehen, Estatu batek gerrara jo zezakeen bere eztabaidak konpontzeko. Horren ondorioz, *ius in bello* sortu zen, liskarrak nola garatu arautzeko araudia. Juridikoki, gerra subiranotasunaren funtzio naturala eta prerrogatiba zen. Baina, lehenago ere ikus daiteke gerra azken mailako baliabide bihurtzeko joera dagoela, eztabaidak metodo baketsuen bidez konpon daitezela saiatuz. Horrela, 1919an, Nazioen Ligaren Itunak, indarraren erabilera debekatu ez bazuen ere, bere erabilera murriztu zuen, ezin baitzen gerrara jo arbitroen epaia, erabaki judiziala edo Kontseiluaren irizpena eman eta hiru hilabetera arte³.

1928ko Parisko Itunaren bidez, Estatuak gerrara jotzea gaitzetsi zuten nazioarteko eztabaidak konpontzeko, uko eginez nazioarteko politikarako tresna gisa baliatzeari. Baina, Itun horrek gerra bakarrik debekatu zuen, erantzun gabe geratuz indarra erabiltzeko beste modu batzuen zilegitasunari buruzko galdera⁴. Izan ere, ikusiko dugunez, egun Nazio Batuen Erakundearen Gutunean arazo hau konpontzen saiatu dira.

¹ NAVA, J. G. (2013). Doctrina y filosofía de los derechos humanos: definición, principios, características y clasificaciones. *Razón Y Palabra*, 16. *Liburukia*, 4-30 orr. <https://www.revistarazonypalabra.org/index.php/ryp/article/view/479> (azken bisita 2024/01/17). 6-7. orr.

² LAMARCA ITURBE, I. (2022). Nazio Batuen giza eskubideen sistemaren argi-ilunak, eta gerrak ekiditeko ezintasunak. *Legebiltzarreko Aldizkaria – LEGAL – Revista del Parlamento Vasco*, 3. *Liburukia*, 108-137 orr. <https://legal.legebiltzarra.eus/article/view/4958/5309> (azken bisita 2024/01/17). 110. orr.

³ Nazioen Ligaren Itunaren 12. artikulua: “The Members of the League agree that, if there should arise between them any dispute likely to lead to a rupture they will submit the matter either to arbitration or judicial settlement or to enquiry by the Council, [...]”.

⁴ FUENTES TORRIJO, X; PEREZ FARIAS, P. (2014). La prohibición de la amenaza y del uso de la fuerza por el derecho internacional. *Araucaria. Revista Iberoamericana de Filosofía, Política y Humanidades*, (32).

Nazioarteko zuzenbidea babesteko eta garatzeko aurkitu diren oztopoak, Berlingo Harresia erortzeak Bigarren Mundu Gerrari amaiera ematean, oinordetzan utzitako sistema erreformatzeko utzikeriaren ondorioz eman ziren eta, oraindik ere, ematen dira. Geroago, bipolarizazioaren akaberarekin, ez ziren Estatuaren arteko harremanak arautzen dituzten printzipioak eguneratu. Beraz, antolaketa juridiko berririk gabe geratu ginen.

Nahiz eta iragana adibidetzat daukagun, egungo egoera bat indarkeria armatutzat jotzea zaila izaten da eta, adierazpen falta honek, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren oztopo dugu. Ohikoa da Estatuak uko egin nahi izatea gatazka armatu baten alderdi direla onartzeari. Baina, ezeztatutako gatazka edo eraso hauen aurrean, Segurtasun Kontseiluaren betoaren pribilegio ospetsuari dela eta, ez dago erabaki bat modu sistematikoan hartzeko baimena duen nazioarteko erakunderik⁵.

Nazioarteko zuzenbide humanitario bateratu bat eratzeke aukera izateko, gatazka armatu baten egoeraren aurrean, behar militarretatik eratorritako interesak eta gizatasun-ikuspuntutik etorrarazitako eskakizunak bateratzeko borondatean oinarritzen dira orokorrean. Honek, "printzipio kardinal" bezala ezagutzen direnak formulatzea ekarri du. Nazioarteko Justizia Auzitegiak halakotzat aipatu egin zituen, 1996ko uztailaren 8ko iritzi aholku-emailean⁶:

a) Biztanleria zibila eta izaera zibileko ondasunak babestea, borrokalarien eta borrokalari ez direnen arteko eta helburu militarren eta ez-militarren arteko bereizketatik abiatuta.

b) Beharrezkoak ez diren pairamenak edo alferrikako kalteak eragiteko debekua, horiek sor ditzaketen gerra-baliabideak eta armak erabiltzeko debekuari lotuz. Hau da, Estatuak mugak aurkitzen dituzte edozein motatako armak erabiltzeko. Interes

zenbakia), 255-267 orr.
<https://institucional.us.es/revistas/Araucaria/A%C3%B1o%2016%20%20N%C2%BA%2032%20%202014/La%20prohibici%C3%B3n.pdf> (azken bisita 2024/01/17). 256. orr.

⁵ BUCETTO, M.S. (2022). Concepto de "guerra" en el derecho internacional de los derechos humanos y el derecho internacional humanitario: particularidades del caso argentino. *Lex: Revista de la Facultad de Derecho y Ciencia Política de la Universidad Alas Peruanas*, 20. *Liburukia* (29. znb.), 161-180 orr. 176-177 orr.

⁶ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren iritzi aholku-emailea, 1996ko uztailaren 8koa. <https://www.icrc.org/es/doc/resources/documents/misc/5tdlda.htm>

militarraren ikuspegitik beharrezkoak diren sufrimenduak eta kalteak egotea eskatzen duen terminologia arriskutsuaren aurrean aurkitzen gara honen ondorioz⁷.

c) "Martens klausula", 1899ko Hayako akordioetan lehen aldiz aipatu zena. Egun, 1949ko Genevako Hitzarmenei gehitutako 1977ko I. Protokoloan⁸ eguneratu zen:

“In cases not covered by this Protocol or by other international agreements, civilians and combatants remain under the protection and authority of the principles of international law derived from established custom, from the principles of humanity and from the dictates of public conscience.”.

Hayako eta Genevako hitzarmenetako Estatu-kideei Nazioarteko Justizia-Auzitegiak egindako erreferentzia desberdinak gehitu behar zaizkio, baita Nazio Batuen Erakundeko organoen erabaki ugari ere, besteak beste, Jugoslavia eta Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak 1993an eta 1994an Segurtasun Kontseiluak igarritako ebazpenak⁹. Baina, Nazioarteko Justizia-Auzitegiak, puntu horretan argi eta garbi adierazi zuen printzipio horiek nazioarteko zuzenbide garaikidearen egituran duten lekua, berez, ohitura izaera ez da eztabaidagai.

Estatu guztiek bete behar dituzte oinarrizko arau horiek, hauek ezartzen dituzten hitzarmenak berretsi egin edo ez, ohiturazko nazioarteko zuzenbidearen printzipio zeharkaezinak direla adierazi baitzuen Gorteak, aurrekaririk ez duen arau-maila berri bat ezarriz.

Denbora luzez, armen munduko esportazio munduan, Amerikako Estatu Batuek eta Errusiak izan dira nagusi, areago, azken hiru hamarkadetan, lehen eta bigarren arma esportatzaileen posizioa mantendu dute. Hala ere, bi Estaturen arteko arrakala nabarmen handitu da, Errusiaren eta hirugarrenaren hornitzaileari dagokionez, hau da, Frantziarekiko distantzia murriztu da. Zenbakietara itzulita, Arma estatubatuarren esportazioak %14 igo dira 2013-2014 eta 2018-2022 urteen artean, bigarren aldi honetan, munduko armen esportazioaren %40 hartuz. Bestalde, Errusiako esportazioak %31 jaitsi dira 2013-2017 eta 2018-2022 aldien artean, mundu mailan %22tik %16ra jaitsiz. Frantziaren partaidetza, berriz, %7.1etik %11ra igo da. Azken honek batez ere Errusia eta

⁷ PIGRAU SOLÉ, A. (2006). El empleo de armas nucleares ante el Derecho Internacional Humanitario. RODRIGUEZ-VILLASANTE Y PRIETO, J. L. (Koord.), *El Derecho Internacional Humanitario ante los retos de los conflictos armados actuales*. (135-157 orr.). Marcial Pons. 146-147 orr.

⁸ «BOE» 177. znb., 1989ko uztailaren 26koa, 23828 - 23863 orr (36 orr.).

⁹ Segurtasun Kontseiluaren 827. erantzuna (1993), 1993ko maiatzaren 25ekoa <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1993-27916> (azken bisita 2024/01/17); eta organo berdinarekin 955. erantzuna (1994), 1994ko azaroaren 8koa <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1995-12242> (azken bisita 2024/01/17).

Indiaren arteko harremanaren beherakadari esker ikus dezakegu, hauen arteko arma hornikuntza %37 bat jaitsi baita.

Munduko arma-esportatzaile nagusien artean, adierazitako hiru Estaturen ondorengo bostek jaitsierak ikusi dituzte haien esportazioetan, hala nola, Txinak (-%23), Alemaniak (-%35), Erresuma Batuak (-%35), Estatu Espainiarrak (-%4.4) eta Israelek (-%15). Berriz, Italiak (%45) eta Hego Koreak (%74) hazkunde handiak izan dituzte.

Europako Estaturen inportazioak %47 bat igo egin dira, nahiz eta armen nazioarteko transferentzia maila globala %5.1 jaitsi den. Armen inportazioak, oro ar, jaitsi egin dira Afrikan (%-40), Amerikan (%-21), Asian eta Ozeanian (%-7.5) eta Ekialde Ertainean (%-8.8), edonola ere, Ekialdeko Asian eta tentsio geopolitiko handiko beste zenbait eremutan inportazioak nabarmen igo dira¹⁰.

1991tik 2021eko amaiera arte, Ukrainak arma handi gutxi inportatu zituen, baina, inbasioarekin, Estatu Batuek eta Europako hainbat Estatu askok eskaintako laguntza militarren ondorioz, mundu mailan arma handien hirugarren inportatzailearen tokia hartu du, Qatar eta Indiaren ondoren. Qatarri dagokionez maila kezkagarri batean igo egin dira inportazioak, %311 batean, gama altuko armak eta teknologia aurreratuak. Bestalde, borroka hegazkinen eta helmen luzeko misilen hornitzeak gerra are gehiago okertuko dezaketela, NATOk Estatuak uko egin zioten Ukrainaren eskaerari.

Bestalde, Sahara Hegoaldeko Afrikako Estaturen armen inportazioak 23% jaitsi ziren, baina Angola Nigeria eta Mali inportatzaile handienak bezala mantendu egin dira, Errusiak Txina gaindituz azpieskualdeko arma-hornitzaile nagusi gisa, Kontinentearekin indartzen ari dituen harremanak direla eta.

Azken buruan, mundu mailan armen transferentziak gutxitu egin diren arren, Europara bideratutakoak nabarmen ugartu dira Errusiarekiko tentsioen ondorioz, berez, NATOk Europar Estatuak %65 handitu zituzten inportazioak. Ukrainako inbasioak arma errusiarren esportazioak are gehiago mugatu ditu, lehentasuna emanez bere indar armatuen hornidurari, bestalde, beste Estatu batzuen eskariak txikitu egin da, zehapenengatik eta Amerikako Estatu Batuek eta bere aliatuek gero eta presio handiago egin dutelako hauei ez erosteko.

¹⁰ MANOLACHE, S. (2023). Aumentan las importaciones de armas en Europa, mientras crece el dominio de EE.UU. en el comercio mundial de armas. *Srockolm International Peace Research Institute*. https://sipri.org/sites/default/files/2023-03/at_press_release_esp.pdf (azken bisita 2024/01/17).

II. MARKO JURIDIKOA

Azken mendeetan zehar, bakea betebehartzat hartu izan da, ziurtasuntzat baino gehiago. Gerrak errealitatea zehaztu dute denboren hasieratik, baita izate bihurtu ere. Gatazka osteko zuzenbidean, *ius post bellum* izenekoa, gerra, gatazka armatu hutsetik haratago, etengabeko prozesuetan oinarritzen da, eta prozesu horiek giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatu behar dituzte une oro, bakea berrezarri arte. Gai honen inguruan eratu diren nazioarteko hitzarmen eta testu juridikoak ez dira nahikoak epe luzerako bakea bermatzeko, ezta saihesteko, baizik eta beharrezkoa den trantsizioa arautzeko esparru bat, betiere, gatazka osteko gizarte-konfigurazio berriak zehaztutako arau-esparru baterako baldintzak badaude¹¹.

Liskarrak amaitzen direnean — dela armistizioagatik, dela epe luzeko onarpen formalagatik — bake iraunkorra berreraikitzen hasten da, eta, batzuetan, bake hori geldoa eta atzerakoia izan daiteke. Horregatik, bakea berrezartzeaz hitz egitea bake-adierazpen hutsetik haratago doa, egonkortasuna bilatzen da. Bakea berrezartzeak alderdien arteko liskarrak amaitzea ez ezik, ordena politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala berrezartzea ere badakar. Liskarrak amaitzeko ahaleginak ere prozesu horren parte dira, eta Estatuko errealitate berriei men egingo dien arau-multzo berri bat eraikitzeko nahia da. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa beharrezkoa da talde ahulak babesteko, gerrako presoak askatzen eta aberriratzten jarraitzeko, desplazatuak kokatzeko, giza eskubideen errespetua sustatzeko, gerrako kriminalei buruzko erabakiak hartzeko justiziaren eta ekitatearen alde, beste gauza askoren artean¹².

Bakea mantentzeko eragiketen ezaugarriak honako hauek dira: (1) Indarra ez erabiltzea, hau da, liskarrak amaitu ondoren hedatzeko diseinatuta daude eta, era berean, ez dira saiatzen lurralde bat ziurtatzen edo militarki esku hartzen, konfiantza eraikitzeko mekanismoen bidez egiten dute lan; (2) Gaitasun militar mugatua, esaterako, arma arinak eta tokiko garraiorako ibilgailuak baino ez dituzte eskura, baina, lehenengoak, defentsa pertsonalerako bakarrik hartzeko prestatuta daude, baldin eta norberaren bizitza edo osotasuna arriskuan badago; (3) neutraltasuna, hots, bakeari eusteak ez dio lagundu behar

¹¹ MACCHIA VALDÉS, I; RODRÍGUEZ SANTIBÁÑEZ, I. (2021). La necesidad de un marco normativo postconflicto o *ius post bellum* para lograr la paz. *Armario Mexicano de Derecho Internacional*, XXII. liburukia, 195-231 orr. <https://revistas.juridicas.unam.mx/index.php/derechointernacional/article/view/16952/17496> (azken bisita 2023/12/16). 197. orr.

¹² MACCHIA VALDÉS, I; RODRÍGUEZ SANTIBÁÑEZ, I. (2021). La necesidad de un marco normativo postconflicto o *ius post bellum* para lograr la paz, *op. cit.*, 205. orr.

gatazkan dauden alderdietako bati eta, horregatik, bakea ziurtatuko duten indarrak multinazionalak dira, kausa baterako edozein joera saihesteko; azkenik, (4) herrialde hartzailearen baimena, subiranotasunaren printzipioa bera errespetatuz, bakea mantentzeko eragiketak Estatuei aitortuz, eta bakeari eta segurtasunari eusteko bideak bilatzeko erantzukizuna ematea¹³. Estatuek ezaugarri hauek guda gertatu aurretik aplikatuko balituzte, bakea mantentzeko zailtasunak leunduko lirateke.

Herritarren babesa interes politikoari erabat lotuta ez geratzeko edo nazioarteko komunitatearen zatiketaren edo konpromisorik ezaren aurrean ahanzturara kondenatuta ez egoteko borrokaren aurrean aurkitzen gara oraindik ere¹⁴.

Estatuak trantsizioaren aurreko araubidean egindako ankerkerien biktimen eskubideak babesten direla zaindu behar du. Biktimek egia, justizia eta konponketa jasotzeko eskubidea dute. Justizia trantsizionaleko prozesuek aldaketa estrukturalak bilatzen dituzte justiziarekin lotutako alderdietan, biktimei buruzkoetan, eta aurreko diseinu instituzionaletan, arauetan eta praktiketan sortu ez zirenetan¹⁵.

Estatuek bilera egin dute giza eskubideen gaiari buruzko zenbait akordio egiteko. Arau horiek jokabide-arau objektiboak ezartzen dituzte, betebeharrak jakin batzuk ere, hauei eta herritarrei. Bi motatakoak izan daitezke arauak, hala, juridikoki lotesleak, edo ez-lotesleak. Dokumentu lotesleak bidez, sarritan, itun edo hitzarmenak deituak, Estatuek giza eskubideak nazio mailan babesteko borondatezko konpromezua adierazten dute, berrestearren eta atxikitzearen ondorioz. Bestalde, adierazpenak egin ditzakete Tratatu Zuzenbideari buruzko 1969ko Vienako Konbentzioarekin¹⁶ bat etorritik, lotesleak izan gabe. Baina, dudarik gabe, Estatu batek giza eskubideei buruzko xedapen batzuk beteko dituela hitzematea aski izan daiteke, ezer baino, noski. Aitzitik, loteslea ez den tresna bat, funtsean, Estatuaren adierazpen edo akordio politikoa da, hau da, eskubideak babesten saiatuko dira, legezko inolako betebeharririk gabe. Praktikan, ez dago aplikatzeko

¹³ DIEHL, P. L.; BLOOMFIELD, L. (1994). *International Peacekeeping*. Johns Hopkins University Press, 88 liburukia (2. znb.). <https://doi.org/10.2307/2944778> (azken bisita 2023/12/16). 4-11 orr.

¹⁴ GARRIGUES, J. (2018). La responsabilidad de proteger: de un principio ético a una política eficaz. *Fundación para las Relaciones Internacionales y el Diálogo Exterior (FRIDE)*, 3. Kapituluak, 153-162 orr. <https://xdoc.mx/documents/la-responsabilidad-de-protoger-de-un-principio-etico-a-una-60163bb27906a> (azken bisita 2023/12/16). 155. orr.

¹⁵ UPRIMNY, R; SAFFON, M. P. (2008). Usos y abusos de la justicia transicional en Colombia. *Anuario de Derechos Humanos*. 4. Liburukia, 165-195 orr. <https://www.corteidh.or.cr/tablas/R21370.pdf> (azken bisita 2023/12/16). 165-168 orr.

¹⁶ Tratatu Zuzenbideari buruzko 1979ko Vienako Konbentzioa U.N Doc A/CONF.39/27, 1969ko maiatzaren 23a.

mekanismo ofizialik edo legalik, nahiz eta konpromezu politiko handiak egon daitezkeen eskubide horiek egon daitezzen.

Hiru arau maila bereiziko ditugu, (1) nazioarteko maila, non Nazio Batuen Erakundea nabarmena den; (2) europar maila, Europar Batasuna nagusi dena, eta, azkenik, (3) Estatu maila, non ardatza Estatu Espainiarreko araudietan ezarriko den.

1. Nazioarteko maila.

Adierazi den bezala, Nazio Batuen Erakundearen zuzenbidea nagusi da nazioarteko mailan. Bigarren Mundu Gerraren ondoren, barne-legedien hegemonia ordezkatzeko zituzten akordio multilateralak arautzen dituzten nazioarteko instituzioak eratzeari ekin zioten, horrela, nazioarteko gatazkak egotekotan edo hauek gertatzeko probabilitatea ikusten bazen, hauek erregulatuko edo mugatuko zituzten.

Izan ere, nazioarteko araudi hauek leuntzeak dauzkate, ulergarria daitekeena, kontutan izanda bost kontinenteetako Estatuak ados jartzeko zailtasunak, bakoitzak daukan ohiturak blokeoak ezarri ditzaketelako Estatuaren barne jurisdikzioan. Izan ere, limite hauek zuzenbide humanitarioan ondorio kaltegarriak erakutsi ditu.

1.1 Nazio Batuen Erakundearen Gutuna.

Gutuna¹⁷ loteslea Erakundeko Estatu kide guztientzat, hau onartu eta bete beharko dute Nazio Batuen parte izateko. Nazioarteko harremanen printzipioak jasotzen ditu, Estatuaren berdintasun subiranotik, indarra erabiltzearen debekuraino¹⁸.

Ez da modu espresean giza eskubideen aipamenik aurkitzen. Erakundeak, giza eskubideen babesa baliagarria izateko gerra ekiditea eta honi aurrea hartzea du oinarrizko xede, giza eskubideen errespetuan eta herrien arteko berdintasunean oinarrituz, lankidetzaren bidez konponduz. Baina, printzipio hauek – errespetua, berdintasuna eta lankidetzaren ez daukate balio juridikorik, hots zenbait doktrinarentzat adierazpen hutsak dira¹⁹.

Gutunaren hitzaurrearekin hasiz, Estatu kideek honako hau adierazten dute: gero gerra-belaunaldientzat etorkizuna babesteko asmoz, gizateria mundu-gerra moduko eszenatokien mende jartzen dutenak, Nazioarteko Zuzenbideko iturrietan -

¹⁷ «BOE» 275 znb., 1990ren azaroaren 16koa, 33862 - 33885 orrialdeak (24 orr.).

¹⁸ United Nations. *Charter*. <https://www.un.org/en/about-us/un-charter> (azken bisita 2023/12/16).

¹⁹ LAMARCA ITURBE, I. (2022). Nazio Batuen giza eskubideen sistemaren argi-ilunak, eta gerrak ekiditeko ezintasunak, *op. cit.* 112. orr.

itunak, esaterako- ezarritako ereduak bete ahal izateko baldintzak sortuko dituzte. Horretarako, aurrerapena eta berdintasuna sustatu behar dira askatasun-esparruaren barruan, tolerantzia praktikatu eta bakean elkarrekin biziz, nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko indarrak batuz, eta, egoerak horrela eskatzen duenean, metodoak aurrera eramanez.

Hitzaurretik, bakea mantentzeko metodoak, neurriak eta printzipioak kontutan hartuko direla adierazten da, Gutunaren 1. artikuluan berresten dena. Testuaren *telos*-a daukagu, Erakundearen xedeak biltzen baititu: Nazioarteko bakeari eta segurtasunari eustea, eta, horretarako, neurri kolektibo eraginkorrak hartzea, bakearen aurkako mehatxuak prebenitzeko eta ezabatzeko, eta eraso-egintzak edo bakearen bestelako urraketak ezabatzeko, eta, bide baketsuen bidez, eta justiziaren eta Nazioarteko Zuzenbidearen printzipioekin bat etorritik, bakea urra dezaketen nazioarteko gatazkak edo egoerak doitzea edo konpontzea.

Instintiboa lirateke gutuneko gainerako artikuluek jarraibide horri erantzun beharko lioketela pentsatzea, horregatik, garrantzi handikoa da lehen artikulua adierazten duena: bakeari eusteko neurri kolektibo eraginkorrak hartu ahal izango dira mehatxuak aurreikusteko eta, horrekin, ezabatu ahal izateko. Beraz, bakea eta segurtasuna mantentzeko bi bide daude, baketik bertatik eta baketik kanpo, hau da, lehenengoan liskarrik ez dagoen eta bitarteko diplomatikoetara jotzen den giro batean sortzen da (VI. Kapituluak), eta, bigarren agertokian, berriz, neurri errepresiboetara jotzen da (VII. Kapituluak)²⁰.

Baketik bertatik bakea bermatzeko, gatazkak modu baketsuan konpontzeko, gatazkak modu baketsuan konpontzeak konponbidea bilatzen da, batez ere, negoziazioaren, ikerketaren, bitartekaritzaren, adiskidetzaren, arbitrajearen, epailearen konponketaren, eskualdeko erakunde edo akordioetara jotzearen edo haiek hautatutako beste bide baketsu batzuen bidez. Guzti hori, bakeari eutsi eta hau arriskuan jar ez dadin²¹. Nazioarteko arbitrajeak osasun ona du, bai auzi-praktikan, bai konbentzionalen.

²⁰ CAMPOS SALAZAR, J. N. (2019). Análisis de la Carta de la ONU a la luz de los postulados del texto “Zum ewigen Frieden” de Immanuel Kant. El objetivo de la paz y el mecanismo de la guerra. *ANIDIP*, 7. liburukia, 116-140 orr. <https://revistas.urosario.edu.co/index.php/anidip/article/view/8535/9591> (azken bisita 2023/12/16). 120. orr.

²¹ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 33. artikulua.

Era berean, konponketa-prozedura honetan alderdi edo dimentsioak sendotzen jarraitzen da²². Era berean, Segurtasun Kontseiluari, nazioarteko tirabira edo eztabaida sor dezakeen edozein egoeratarako, baita hauek luzatzeak nazioarteko bakeari eta segurtasunari arriskuan jar dezakeen zehazteko baimena ematen zaio²³.

Bide baketsuekin bukatzeko, Estatu Kide ez diren Estatuaren eztabaidak onar ditzakete, baldin eta alde aurretik Gutuna onartu badute, gutxienez gatazkak modu baketsuan konpontzeko betebeharrei dagokienez, hau da, VI. kapitulua. Izan ere, ordena juridikoko eztabaidak, oro har, Nazioarteko Justizia Gortearen mende jarri behar dituzte alderdiek²⁴.

Lehen artikulua jasotzen duen bigarren eszenatokiarekin jarraituz, behin-behineko neurriak²⁵, eta, indar armatuak ez dakartzaten neurriak azaltzen dira, hala nola, zehapen ekonomikoak²⁶. Diplomazia alde batera uzten da, ekintza hertsatzaileen alde eginez. Baina, gatazkak tratatzeko moduak beste nozio bat hartu dezake, aireko, itsasoko edo lurreko indarren erabilera ezartzen da eta, baita nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko edo berrezartzeko behar den ekintza ere²⁷.

Honen harira, "gerra legitimatu" bat gertatu daiteke, Segurtasun Kontseiluak bakeari eusteko edo bakea berrezartzeko baimendutakoa. Argi dago artikulua honetan tentsio normatiboa aurkezten duela Gutunaren 1. Artikuluaekin kontrajarriz. Izan ere, Estatuak indar armatuak erabiliko lituzkete hirugarren baten aurka balizko mehatxu bat ezabatzeko. Baina, ez da nahikoa ekintza militarra araudietan oinarritua izatea. Ezinbestekoa da bakea mantentzeko, inposatzeko edo bakea sendotzeko operazio batean militarri parte hartzea ahalik eta adostasun zabalaren erdian. Nazioarteko doktrinak irizpide osagarriak ezarri nahi izan ditu indar militarren erabilerak zehazteko: (1) mehatxuaren larritasuna; (2) asmo zuzena; (3) azken baliabidea; (4) bitartekoen proportzionaltasuna; eta (5) ondorioen balantzea²⁸.

²² SANTA MARÍA, P. A. (2013). El arreglo arbitral de las controversias internacionales: aspectos recientes. VÁZQUEZ GÓMEZ, E.M.; MUÑOZ, A.; CORNAGO PRIETO, N. (koord.). *El Arreglo Pacifico de Controversias Internacionales*. 79-100 orr. Tirant Lo Blanch. 79. orr.

²³ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 34. artikulua

²⁴ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 35. artikulua

²⁵ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 40. artikulua

²⁶ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 41. artikulua

²⁷ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 42. eta hurrengo artikulua.

²⁸ DOMÉNECH OMEDAS, J. L. (2012). La acción militar en las operaciones de paz. CARDONA LLORENS, J. PUEYO LOSA, J. L.; RODRÍGUEZ-VILLASANTE Y PIETRO, J. L.; SOBRINO HEREDIA J.M.; AZNAR GÓMEZ M. J.

Gutunaren 2. artikuluan Estatu Kideek jarraituko dituzten printzipioak aurkitzen ditugu. Ikertzen ari den gaiarekin lotutako atala laugarrena lirateke, indarra erabiltzeko debekua arautzen duena. Doktrina bereizita dago debekuaren helmugari dagokionez, absolutua, beste Estatu baten lurralde-osotasuna edo independentzia politikoa urratzea dakarrena edo Nazio Batuen asmoen aurkakoa dena bakarrik debekatzen duen inguruan.

Indarraren monopolioa Kontseilura besterendu egin da, Estatu Kideek ezin dute bere kabuz indarra erabili, ezta herri edo komunitateen giza eskubideak babesteko ere, nahiz eta urte batzuetan Estatuak eta doktrinak esku-hartze humanitarioa izateko eskubidea edo betebeharra erregulatzearen saiakera egon den²⁹. Babesteko beharrari edo erantzukizunari buruz ari dira, nazioarteko komunitateari eskuduntza ematen diona Estatu batek bere herritarrak eta lurraldea babesten ez dituenean.

Batzuen ustez, indarra erabiltzeko debekuak ahalik eta interpretaziorik zabalena izan behar du, txikiagoak diren herrialdeak bermea izan dezaten. Xedapenari interpretazio erlatibo bat ematen utziko balitzaio, indarraren erabilera baimenduak daudela ulertuko zen, ez luketelako izanen kontraesanean ez Estatuaren lurralde-osotasuna, ez independentzia politikoa, ez Nazio Batuen printzipioak. Kasu horretan, ondorioztatu beharko litzateke indarra erabiltzeko debekua ez dela erabatekoa³⁰. Baina, beste batzuek uste dutenez, interpretazioak ez dauka garrantziarik praktikan, Estatuak oso gutxitan saiatzen baitira xedapen hori modu murriztuan interpretatzen. Estatuak indarra erabiltzen dutenean, ez dituzte beren egintzak justifikatzen helburua beste Estatu baten lurralde-zatiketa dela adieraziz, ez gobernuaren boteretik kentzea, ezta Gutunaren printzipioak urratzea ere³¹.

Indarra erabiltzeko debekuaren salbuespenak bi dira, alde batetik, Segurtasun Kontseiluaren ekintza hertsatzailea, eta, bestetik, bidezko defentsarako eskubidea. Estatuaren arteko negoziazio eta hitzarmen oro, printzipioz, oinarrizko askatasun- eta

(koord.). *Estudios de derecho internacional y derecho europeo en homenaje al profesor Manuel Pérez González* liburuan; *I. liburukian* (441 – 489 orr.). Tirant Lo Blanch. 444 - 445 orr.

²⁹ ESCUDERO ESPINOSA, F. F. (2002). Uso de la fuerza, intervención humanitaria y libre determinación (la <<guerra de Kosovo>>). *Cuestiones en torno a la intervención humanitaria y el Derecho Internacional actual* (93-132 orr.). Universidad de León. Servicio de Imprenta.

³⁰ BROWNLIN, I. (1963). Crimes against peace: definition and bases of responsibility. *International Law and the Use of Force* (195-280 orr.). Oxford University Press. 267. orr.

³¹ FUENTES TORRIJO, X; PEREZ FARIAS, P. (2014). La prohibición de la amenaza y del uso de la fuerza por el derecho internacional. *Araucaria. Revista Iberoamericana de Filosofía, Política y Humanidades*, (32 zenbakia). 255-267 orr.

<https://institucional.us.es/revistas/Araucaria/A%20C3%B1o%2016%20%20N%C2%BA%2032%20%202014/La%20prohibici%C3%B3n.pdf> (azken bisita 2023/12/16). 258. orr.

berdintasun-baldintza batzuen arabera egin behar dira. Baldintza horiek, ez dituzte inolako kanpo-hertsapenik izan behar elkarren arteko akordioak lortzeko prozesuan. Hala eskatzen dute, besteak beste, Estatu berdintasun subiranoaren eta beste Estatu batzuetako gaietan esku ez hartzearen printzipioek, bai eta Estatu arteko harremanetan indarra erabiltzea debekatzea ere, guztiz finkatutako kasuetan izan ezik³².

Indarra erabiltzeko lehenengo salbuespenari dagokionez, 24. artikulura jo behar da. Ekintza azkarrak eta eraginkorrak ziurtatzeko, Estatu Kideek Segurtasun Kontseiluari eskuratzen diote nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko erantzukizun nagusia. Kontutan izan behar da, neurri hertsatzaileak hartzeak ez duela ordezkatzeko *per se* bidezko defentsa-eskubidea, bi ekintzak batera gara daitezke. Guzti hori, 27. artikulua aitortutako beto-eskubidearekin lotu behar da, baina, gai hau sakonago aztertuko da aurrerago.

Bigarren salbuespenari dagokionez, bidezko defentsarako eskubidea Gutunaren 51. artikuluan aurkitzen da araututa. Hitz batez, eraso armatuaren kasuan bakarrik eska daiteke, eta behin-behineko ariketa izango da harik eta Segurtasun Kontseiluak nazioarteko bakeari eta segurtasunari eusteko beharrezko neurri guztiak hartu arte. Eraso armatu bat egoteko betekizunaz eta bidezko defentsa-neurriak Segurtasun Kontseiluari jakinarazteko betebeharrak gain, doktrinak eta jurisprudentziak jasandako erasoaren eta defentsa-erantzunaren artean egon behar duen proportzionaltasunaren baldintza gehitzen dute. Doktrinaren ikuspuntutik, artikulua terminoak bat etor litezke 1945 baino lehenagoko hamarkadetan bidezko defentsaren kontzeptio murriztaileago baterantz eboluzionatu zuen nazioarteko zuzenbidearekin³³.

Doktrina banatuta aurkitzen da berehalako mehatxuari dagokienez. Gutuna indarrean sartu zenetik onartu egin dute defentsa legítimoaren kontzeptua babestu daitekeela, inguruabarren arabera³⁴.

³² YÁÑEZ-BARNUEVO, J. A. (2022). La nulidad de los tratados impuestos mediante coacción ilícita, en perspectiva histórica. *Revista Española de Derecho Internacional (REEDI)*, 2022ko 74. liburukia (2. znb.), 386-406 orr. <https://www.revista-redi.es/redi/article/view/195/189> (azken bisita 2023/12/16). 386.orr.

³³ BROWNLIE, I. (1963). Crimes against peace: definition and bases of responsibility. *op. cit.*, 273, 274 eta 280. orr.

³⁴ REMIRO BROTONS, A. (2010). La legítima defensa. *Derecho Internacional. Curso General* (671-682 orr). Tirant Lo Blanch. 674. orr.

Hala nola, 2001eko irailaren 11ko atentatuei erantzuna emateko, Kontseiluak aho batez onartu egin zuen irailaren 12ko 1368 (2001) ebazpena³⁵, norbanakoaren defentsa legitimorako eskubide immanentea aitortzen duena. Ebazpen honek inplizituki onartzen du Estatukoak ez diren eragileek Estatu baten kanpotik egindako atentatuak eraso armatua izan daitezkeela. Doktrinaren sektore batek ez du horrekin bat egiten, eta terrorismoaren aurkako borroka barne-araudi juridikoei dagozkien polizia-neurriei, judizialei eta penalei egokitu beharko litzaieke³⁶.

Azkenik, Gutunaren 92. artikulua Nazioarteko Justizia Auzitegiaren sortzen du. Hau izango da Erakundearen organo nagusia eztabaida judizialak ebazteko, aurrerago azalduko dena.

1.2 Armen inguruko Merkataritzarako Ituna.

Munduko armamentu merkataritza arautu zuen lehen araua da Armen inguruko Merkataritzarako Ituna³⁷. Oro har, goranahi handirik gabe erregulatu egin zen, Itunean jasotako armamentu mota eta armen esportazioak baimentzeko ezartzen diren irizpideak aztertzean agerian uzten dena. Transferentziaren kontzeptu zabal batetik abiatzen da, esportazioa, inportazioa, joan-etorria, ontzi-aldaketa eta artekaritza barne hartzen dituena, eta laguntza teknikoa esparrutik kanpo geratzen da, konponketa, mantentzea edo garapena barne³⁸.

Zortzi armamentu-kategoriei baino ez zaie aplikatzen: (1) borroka-orgak; (2) borrokarako ibilgailu blindatuak; (3) kalibre handiko artilleria-sistemak; (4) borrokarako aireontziak; (5) erasorako helikopteroak; (6) gerra-ontziak; (7) misilak eta misil-jaurtigailuak; eta (8) arma txikiak eta arma arinak³⁹. Hauei, arma mota horiek erabiltzen dituzten munizioak⁴⁰ gehitu behar zaizkio, baita piezak eta osagaiak⁴¹. Baina, ez daude

³⁵ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/RES/1368 (2001) erabakia, 2001eko irailaren 12koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N01/533/82/PDF/N0153382.pdf?OpenElement> (azken bisita 2023/12/16).

³⁶ GUTIÉRREZ ESPADA, C. (2001). ¿No cesaréis de citarnos leyes viendo que ceñimos espada? A propósito del 11-S. *Anuario de Derecho Internacional, XVII. Liburukia*, 25-38 orr. https://dadun.unav.edu/bitstream/10171/22098/1/ADI_XVII_2001_02.pdf (azken bisita 2023/12/16). 27. orr.

³⁷ «BOE» 163 znb., 2013ko uztailaren 9koa, 50849 – 50860 orrialdeak (12 orr.).

³⁸ MELERO ALONSO, E. (2013). El Tratado sobre el Comercio de Armas: análisis de su contenido. ...*desde fuera de Palacio*. <https://fuera depalacio.wordpress.com/2013/08/14/el-tratado-sobre-el-comercio-de-armas-analisis-de-su-contenido/> (azken bisita 2023/12/16).

³⁹ Armen inguruko Merkataritzarako Ituna 2.1 artikulua.

⁴⁰ Armen inguruko Merkataritzarako Ituna 3. artikulua.

⁴¹ Armen inguruko Merkataritzarako Ituna 4. artikulua.

Itunaren markoan agente kimikoak edo biologikoak – araudi bereziak dauzkatena-, ezta ekipo elektronikoak edo aplikazio militarreko softwarea. Kategoria bakoitzean sartzen diren arma mota zehatzak ezartzen dituen zerrendarik ere ez da jasotzen. Berez, testua berresten duen Estatu bakoitzak berezko zerrenda eratuko behar du, kontuan hartuta, gutxienez, Nazio Batuen Arma Konbentzionalen Erregistroan erabilitako deskribapenak jaso behar dituela⁴².

Estatuen esku uzten da erabakia. Zuzenean adierazten da 4. artikuluan kontrol nazionalaren beharra, hau da, Estatuak tokiko araudia sortu behar dute esportazioak kontrolatuak egon daitezen, beharrezko lizentzia lortzeko ebaluatzeko baldintzak minimoak garatzen dituen barne-legediarekin. Baldintza minimo horiek 6. eta 7. artikuluetan biltzen dira, doktrinaren aldetik kritika handiena jaso egin duten xedapenak izanda⁴³.

Seigarren artikulua prebentzio moduan funtzionatzen du, ez baitira berrespenik edo erantzuteko mekanismorik ezartzen. Urrapenik ez egotea bilatzen da. Hasteko, Estatu Kideek ez dituzte inolako transferentziarik baimenduko, baldin eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak, Nazio Batuen Gutunaren VII. kapituluaren arabera jardunez, hartu dituen neurrien ondorioz dagozkion betebeharrak urratzen baditu. Arma-bahiketen inguruan ari da atal honek. Bestalde, ezingo dira transferentziarik baimenduko, Estatuaren nazioarteko betebeharrak urratzen baditu, alderdi den nazioarteko akordioen arabera, bereziki nazioarteko transferentzia edo arma konbentzionalen legez kontrako trafikoaren inguruan garapena egiten dutenak. Azkenik, debekatuta egonen dira, genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak, 1949ko Genevako Hitzarmenaren protokoloen⁴⁴ arau-hauste larriak, izaera zibileko ondasunen edo pertsona zibil babestuen aurkako erasoak, edo alderdi den nazioarteko akordioetan tipifikatutako bestelako gerra-krimenak aurrera eramateko erabiltzen bada baimendutako transferentzia.

Baimentzen da, Estatu kideek, transferentziarekin zer urraketa egingo liratekeen ezagutzen ez dutela justifikatzea, ez eta helmugako Estatuaren harremanak edo asmoak ere. Horien esku geratzen da giza eskubideen urraketak egotea, Segurtasun Kontseiluaren ebazpenik ezean, narezen ez duena, Segurtasun Kontseiluaren betoa jokoan hasten bada,

⁴² Armen inguruko Merkataritzarako Ituna 5.2 eta 5.3 artikulua.

⁴³ Gobierno de España. Ministerio de Economía, Comercio y Empresa (2023) *Tratado sobre el Comercio de Armas*. <https://comercio.gob.es/ImportacionExportacion/Regimenes/Paginas/tratado-comercio-armas.aspx> (azken bisita 2023/12/16).

⁴⁴ «BOE» 177 znb., 1989ko uztailaren 26koa, 23828 - 23863 orrialdeak (36 orr.).

munduko esportatzaile handien artean baitaude pribilegio hau daukaten horiek. Izugarritzko diru kantitateak mugitzen dituzte salmentekin, eta, beraz, zaila da pentsatzea balizko urraketan kontrol exhaustiboa egiten dutenik, edo informazioa gardentasunez eskaintzen dutenik. Merkatu honen ezaugarri nagusia sekretismoa daukagu, nazioarteko segurtasunak konfidentzialtasuna behar baitu. Estatuek, askotan, informazioa gordetzen dute, beren jarduera edo salmentei buruzko isiltasunari eutsiz, eta eskubideak interes ekonomikoen gainetik egon daitezkeela pentsatzea elezahar bat lirateke. Azken finean, Estatu kideek, araudia errespetatu dadin, lan egin behar dute, testuak asmo-adierazpen gisa gera ez dadin⁴⁵.

Kontuan hartu beharreko irizpideei dagokienez, 7. artikulua araberako, Estatuek ebaluatu beharko dute armek bakea eta segurtasuna lortzen lagundu dezaketen edo kalte egin diezaioketen. Baita, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa edo giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen urraketa larri, bai terrorismoari edo nazioarteko delinkuentzia antolatuari buruzko konbentzioen arabera delitu bat egiteko edo errazteko erabil daitezkeen ere. Edozein kasutan ez da transferentziarik baimenduko Estatu esportatzaileak arrisku nabarmena dagoela antzematen badu. Bestalde, 11. artikuluan, baloratu behar duten beste elementuetako bat azaltzen da, esportatutako armamentutik beste herrialdeetara desbideratzeko arriskua. Hau saihesteko neurriak ezarri behar dira, deigarria izanez helmugako herrialdean tentsio edo gatazka armaturik dagoen balioestera ez behartzea, ezta herrialde horren garapen-maila kontuan ez hartzea ere.

Berriz ere, ez da zehazten edo garatzen irizpideen edukia. Horrela, armamentu-esportazioak baimentzeko orduan interpretazio-tarte handia aitortzen zaie Estatuari. Legezko estaldura eman diezaietke helburu humanitarioak liratekeen esportazio horiei. Armamentuaren esportazioak bakea eta segurtasuna lortzen laguntzen duela uste bada, esportazioaren baimena artikulua babesean dagoela uler daiteke. Praktikan, xede humanitarioak dituzten esportazioak gatazka armaturietan esku hartzeko modu militar gisa erabili dira, 2011ko Libiako gerran gertatu zen bezala. Frantziako Gobernuak armak eman zizkien libiar errebeldeei, argudio humanitarioetan oinarrituta⁴⁶. Ez da zehazten Estatuek

⁴⁵ JIMÉNEZ OLMOS, J. (2013) "El Tratado sobre el Comercio de Armas". *Razon y fe Aldizkaria*, ISSN 0034-0235, 268, 1381. znb., 373-383 orr. 375.orr.

⁴⁶ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/RES/1973 erabakia, 2011ko martxoaren 17koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N11/268/39/PDF/N1126839.pdf?OpenElement>

beren interes politiko eta ekonomikoak kontuan har ditzaketen armamentu-espertazioak baimentzean, arriskutsua izan daitekeena, baina, Estatu Espainiarreko 53/2007 Legeak eta Europar Batasuneko 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuak hori onartzen dute. Hitzaurreak berariaz aitortzen ditu arma konbentzionalen nazioarteko merkataritzari dagokionez, Estatuen interes legítimoak, hala nola politikoa, ekonomikoa, merkataritzakoa eta segurtasunekoak. Baina Itunaren artikuluetan ez dira interes horiek aipatzen, beraz, ez da espreski debekatu interes hauek kontutan hartzea⁴⁷.

Azken finean, Ituna indarrean egon arren, eta honen ezarpena nazioarteko zuzenbidean izugarritzko pausua izan, armen merkataritzak gora egiten jarraitzen du. Estatu alderdi giltzarri askok armak saltzen jarraitzen dituzte giza eskubideen aurkako abusu larriak egiten dituzten gobernuei⁴⁸. Testuaren xede nagusia arma konbentzionalen nazioarteko merkataritzaren erantzukizuna eta gardentasuna areagotzea da. Hala ere, Estatuak gerra-krimenak edo giza eskubideen urraketa larriak egin izanaren aurrekariak dituztenei transferitzen jarraitzen badute, Armen Merkataritzari buruzko Tratatuaren helburu humanitarioa eta sinesgarritasuna nabarmen kaltetuko dira, eta kaltetzen da⁴⁹.

1.3 Arma Nuklearren Ez Ugaritze Hitzarmena.

Gerra hotza amaitu zenetik, suntsipen handiko armen ugalketa eta hedapena nazioarteko segurtasuneko gai garrantzitsua izan da. Inolako konponketa instituzionalik ugalketa galarazteko ez balego, Estatuak segurtasun-arrazoiengatik antolatzen badira ere, ugaltze-espiral bat elikatuko zuketuen azken batean, non geroz eta arma nuklear gehiago erosiko edo eratuko ziren, komunikazioa eskasa baita eta besteen asmoekiko mesfidantza

(azken bisita 2023/12/16). Berehalako su-etena agintzen du, Nazio Batuen idazkari nagusiaren eta Afrikako Batasunaren ordezkari konponbide baketsua aurkitzeko. Bestalde, zibilak edo hauek aurkitzen diren eremuak babesteko eta Libiako aire-espazioaren gaineko hegaldiak debekatzeko beharrezkoak diren indar-baliabide guztiak erabiltzea baimentzen du.

⁴⁷ Armen Salerosketa Inguruko Hitzarmenaren Atarikoak: “Principles [...] Refraining in their international relations from the threat or use of force against the territorial integrity or political independence of any State, or in any other manner inconsistent with the purposes of the United Nations in accordance with Article 2 (4) of the Charter of the United Nations [...]”

⁴⁸ Amnistía Internacional (2019). *Datos que matan 2019: La magnitud del comercio mundial de armas*. <https://www.amnesty.org/es/latest/press-release/2019/08/killer-facts-2019-the-scale-of-the-global-arms-trade/> (azken bisita 2023/12/16).

⁴⁹ Cruz Roja, C. I. (2015). *Tratado sobre el Comercio de Armas: debemos poner fin a la transferencia irresponsable de armas*. <https://www.icrc.org/es/document/tratado-sobre-el-comercio-de-armas-debemos-poner-fin-la-transferencia-ilegal-de-armas> (azken bisita 2023/12/16).

gailentzen baita. Arazo hau konpontzeko helburuarekin, Arma Nuklearren Ez Ugaritze Hitzarmenaren⁵⁰ sorrera martxan jarri zuten⁵¹.

Lehenengo artikulutik hasiz, honetan, testuaren xedea aurkezten da. Alderdiek konpromezua hartzen dute ezein hartzaileri arma nuklearrik edo beste lehergai nuklearrik ez transferitzeko, ezta horien gaineko kontrolik ere. Gainera, ez dute inolaz ere lagunduko edo bultzatuko arma hauek ez dituen Estaturen bat fabrikatzera zein eskuratzera, edo horien gaineko kontrolik egitera ere.

Estatu kideentzat zenbait betebeharrak edo debekuak biltzen ditu. Hauek, konpromezua hartzen dute arma nuklearrik edo beste lehergai nuklearren transferentziarik ez jasotzeko, ezta horien gaineko kontrolik ere. Bestalde, ez dituzte hauek fabrikatuko edo eskuratuko, ezta laguntzarik eskatuko edo jasoko hauek eratzeko⁵².

Garrantzia handiena duen atalak 6. artikulua lirakeke, doktrinaren aldetik jaso duen kritika dela eta. Estatu Kideek, fede onez negoziatu beharko dute arma nuklearren erabilera eta ugaritzea goiz eteteari, neurri eraginkorrak erabiliz, nazioarteko kontrol zorrotzen pean. Labur esanda, arma nuklearrak eskuratu zuten Estatuei armagabetzera derrigortzen die. Zuzen lirakeke esatea 9.3 artikulua erreferentzia egiten duen Estatuen inguruan ari dela esatea, Estatu Nuklearrak. Hauek, 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen arma nuklear bat edo beste lehergailu nuklear bat fabrikatu eta lehertu zutenak izan ziren. Errusia, Amerikako Estatu Batuak, Txina, Frantzia eta Erresuma Batua dauzkagu, Betoa edukitzen duten bost Estatuak.

1.4 Arma Nuklearren Debekuaren Inguruko Hitzarmena.

Estatu nuklearrek Ez Ugaritzeko Hitzarmenaren 6. artikuluan ezarritako betebeharrak ez dira bete. Azken hamarkadan, desarmatze nuklearraren arloko tresna zehatzen sorreran izandako paralisiaren aurrean, Ekimen Humanitarioa sortu zen. Ekimen horrek Estatuko eragileak, Estatukoak ez direnak, akademikoak eta adituak batu zituen, eta ingurune diplomatiko eta informaletan elkarrizketa-prozesu konplexu bat elikatzen joan ziren, armagabetze nuklearraren arloan statu quo-aren alternatiba bat bilatzeko.

⁵⁰ «BOE» 313 znb., 1987ko abenduaren 31koa, 38243 – 38256 orrialdeak (14 orr.)

⁵¹ LAHOZ CASAS, D. (2023). TPN o TPAN: el dilema de la Unión Europea entre la no proliferación y el desarme. *Revista Análisis Jurídico-Político*, 5. liburukia (9. znb.). <https://hemeroteca.unad.edu.co/index.php/analisis/article/view/6557/6022> (azken bisita 2023/12/16). 10-12. orr.

⁵² Arma Nuklearren Ez Ugaritze Hitzarmenaren 3. artikulua.

Arma nuklearrak debekatzeko itun bat negoziatzeko Nazio Batuen Konferentzia egin zen, non, pertsonen aurkako erasoekin gertatu zen bezala, lehenik eta behin arma nuklearrak deslegitimatuz behar zirela argudiatu zen, ondoren debekatzeko arrazoiak eman ahal izateko eta, azken batean, 2017. urtean Arma Nuklearrak Debekuaren Inguruko Hitzarmena⁵³ onartu zen⁵⁴.

Hitzarmenak, lehen artikuluan, armagabetzeari buruzko elementuen ezarpenarekin hasten da, Estatu Kideentzako debeku anitzak ezarriz. Hasteko, Estatu alderdiek ez dituzte arma nuklearrak edo bestelako lehergailu nuklearrik garatuko, probatuko, ekoitziko, fabrikatuko, eskuratuko, edukiko edo biltegitratuko, ezta, edozein hartzaileri transferituko, edo horien gaineko kontrola, zuzenean edo zeharka baimenduko. Ez dituzte hauen transferentziarik edo kontrolik jasoko, zuzenean nahiz zeharka izan, ezta erabiltzeko edo erabiltzeko mehatxurik egingo. Gainera, ezinen dute Estatu Kide ez den edozein Estaturi Hitzarmenaren indarrez debekatutako jarduerarik egitera lagundu edo bultzatu, ezta eginkizun hauek akabo eramateko laguntzarik eskatu edo jaso. Bere lurraldean edo bere jurisdikziopeko edo kontrolpeko edozein tokitan edozein arma nuklear edo beste lehergai nuklear kokatu, instalatu edo hedatzen uztea.

Nahiz eta artikulua honetan jasotako betebeharrak bikoiztu egiten diren Estatu Kideentzako, Ez Ugartze Hitzarmenarekin alderatuta, arma horien "garapena" debekatzeko badakarrela esanguratsuenak lirateke. Galarazpen honekin, Estatuak arma nuklear bat erabiltzeko aurreko fasean parte har ezin dezakeela adierazten du.

Horrekin batera, arma nuklearrak eta leherketa nuklearreko beste gailu batzuk erabiltzea edo erabiltzeko mehatxua egitearen debekuak, Gutunaren 2. 4 artikuluekin bat egiten du, elementu berritzailea izanez. Izan ere, lehen aldiz debekatu da arma nuklearrak erabiltzea edo mehatxatzea edozein egoeratan, etsaitasun- edo gerra-egoeratan ere. Arma nuklearrak, biologikoen eta kimikoen toki berean kokatzen ditu lehen aldiz⁵⁵.

⁵³ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren A/CONF.229/2017/8 erabakiaren bidez onartutakoa, 2017ko uztailaren 7koa. <https://www.opanal.org/wp-content/uploads/2017/07/Tratado-sobre-la-Prohibicio%CC%81n-de-las-armas-nucleares.pdf> (azken bisita 2023/12/16).

⁵⁴ LOMÓNACO, J. (2017). Hacia la prohibición de las armas nucleares. *Revista Mexicana de Política Exterior* (110. znb.), 79-95 orr. <https://revistadigital.sre.gob.mx/index.php/rmpe/article/view/289/268> (azken bisita 2023/12/16). 86-87 orr.

⁵⁵ NYSTUEN, G. (2018). The TPNW and international law. Existing international law and nuclear weapons. NYSTUEN, G.; EGELAND, JØLV, E.; TORBJØRN GRAFF, H. (koord.). *The TPNW and its complications for Norway* (5-9 orr) liburuan. Norwegian Academy of International Law. https://www.researchgate.net/publication/335834495_The_TPNW_and_its_implications_for_Norway. (azken bisita 2023/12/16). 5. orr.

Estatu Kideak behartzen dira Energia Atomikoaren Nazioarteko Erakundearekin⁵⁶ babes-hitzarmen bat sinatzera, orainik egin ez badute. Honen bidez, herrialdeen jarduera nuklearraren gaineko kontrola egingen da, jarduera hauek xede militarrekin ez dela erabiliko bermatzeko⁵⁷. Horrela, aurreko Hitzarmenean jasotako babes-arloko xedapenak indartzen dira⁵⁸.

Armagabetzea lortzeko, arma nuklearrak dituzten Estatu alderdiei zuzentzen da. Material hauek egoera operatibotik kanpo utzi behar dituzte, berehala, suntsituz, bai eta programa nuklearrak ezabatu ere, batera garatutako plan baten arabera. Baina, hau ezinezkoa da gaur egun, Estatu Nuklearrak ez baitira itun berri honen parte. Betebehar hau Ez Ugaritzeko Tratatuaren seigarren artikuluan jasotakoa baino askoz zehatzagoa da. Estatu Nuklear bakoitzak armagabetzeko modua eta aldia zehazteko bidea zabalik uzten da honek pizgarri bat izan nahi duena Estatu Nuklearrak Estatu Kide gisa batu daitezen lortzeko, eta, horrekin batera, Hitzarmenak izaera unibertsala lor dezan⁵⁹.

Biktimen laguntza eta ingurumena lehengoratzearen inguruan arautzen da ere, baita nazioarteko lankidetzari eta laguntzari dagokionez. Estatu Kideek konpromezua hartzen dute arma nuklearren erabileraren edo saiakuntzen biktimek behar duten laguntza egokia emateko, beren adinarekin eta generoarekin lotuta izan ditzaketen beharrak kontuan hartuta⁶⁰.

1.5 Nazio Batuen Erakundearen Giza Eskubide Konpilazioa eta Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutua.

Nazioarteko Justizia Auzitegia edo Gortea, honen Estatutuaren⁶¹ lehen artikulua adierazten duenez, Nazio Batuen Erakundearen organo judizial nagusia da. Bere osarari dagokionez, independente diren magistratuak osatuko dute, begirune moral handikoak eta beren herrialdeetan eginkizun judizial gorenak betetzeko eskatzen diren baldintzak

⁵⁶ Energia Atomikoaren Nazioarteko Organismoa Nazio Batuen Erakundeak sortu zuen 1957. urtean, teknologia nuklearraren aurkikuntzek eta erabilera ezberdinek sortutako beldur eta itxaropen sakonei erantzuteko. Egun, laborategien bidez, militarrek ez diren xedeekin ikertzen dute energia atomikoa. <https://www.iaea.org/about/overview/history> (azken bisita 2023/12/16).

⁵⁷ Arma Nuklearren Debekuaren Inguruko Hitzarmenaren 2. artikulua.

⁵⁸ JUÁREZ GURAIEB, C. (2021). Contribuciones de la diplomacia al desarme nuclear: ¿qué aportes brindará el Tratado para la Prohibición de Armas Nucleares al desarme? *Anuario Mexicano de Derecho Internacional* (22. znb.), 575-610 orr. <https://revistas.juridicas.unam.mx/index.php/derecho-internacional/article/view/16962/17507> (azken bisita 2023/12/16). 596. orr.

⁵⁹ Arma Nuklearren Debekuaren Inguruko Hitzarmenaren 4. artikulua.

⁶⁰ Arma Nuklearren Debekuaren Inguruko Hitzarmenaren 6. eta 7. artikulua.

⁶¹ «BOE» 275 znb., 1990ko azaroak 16ekoa, 33862 – 33885 orrialdeak (24 orr.)

betetzen dituztenak, edo nazioarteko zuzenbidearen jurisprudenteak⁶². Batzar Nagusiak eta Segurtasun Kontseiluak hamabost magistratuak erabakiko dituzte⁶³, bederatzi urteko agintaldirako, berriz hautatzeko aukerarekin⁶⁴.

Nazio Batuetako sei organo nagusietatik - Batzar Nagusia, Segurtasun Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Administrazio Fiduziarioko Kontseilua eta Nazioarteko Justizia- New Yorken aurkitzen ez den bakarra da, Hayako Bakearen Jauregian – Herbehereetan - ezartzen baitu⁶⁵.

Auzitegiaren eskuduntzari dagokionez, Estatuaren arteko eztabaida juridikoak erabakitzeaz arduratzen da bakarrik⁶⁶. Baita, Erakundearen organo zein erakunde espezializatuek aurkez diezazkioketen gaiari buruzko kontsulta-iritziak ere eman ditzake⁶⁷.

Estatuaren arteko eztabaidak, alderdiek aurkezten dizkioten auzi guztietara eta Gutunean edo indarrean dauden itun eta hitzarmenetan bereziki aurreikusitako gai guztietara hedatzen dira⁶⁸. Prozedura hurrengoaren izan da, 43. artikulua jasotzen duena:

1. The procedure shall consist of two parts: written and oral.
2. The written proceedings shall consist of the communication to the Court and to the parties of memorials, counter-memorials and, if necessary, replies; also all papers and documents in support.
3. These communications shall be made through the Registrar, in the order and within the time fixed by the Court.
4. A certified copy of every document produced by one party shall be communicated to the other party.
5. The oral proceedings shall consist of the hearing by the Court of witnesses, experts, agents, counsel, and advocates.

Izan ere, Auzitegiaren erabakia bakarrik derrigorrezkoa izanen da Estatuaren artean eta arazo zehatz horren inguruan⁶⁹. Gainera, ezinen da erregutu, epaia behin

⁶² Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 2. artikulua.

⁶³ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 3. eta 4. artikulua.

⁶⁴ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 13. artikulua.

⁶⁵ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 22. artikulua.

⁶⁶ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 34. artikulua.

⁶⁷ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 65.1 artikulua.

⁶⁸ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 36. artikulua.

⁶⁹ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 59. artikulua.

betikoa izango da eta. Nolanahi ere, norainokoari buruzko adostasunik ez badago, Gorteak edozein alderdik eskatuta interpretatuko du⁷⁰.

Lege aplikagarriari dagokionez, nazioarteko araudiak dira, batez ere Erakundearenak. Baina, giza-eskubideei dagokienez, batez ere giza eskubideen gutunaren tresnak izanen dira kontutan. Hauek, Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean biltzen dira eta testu ezberdinetaz osatuta dago. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala⁷¹, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna⁷² Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna⁷³ eta, azkenik, itunei lotutako Hautazko Protokoloak.

Gerrak ekiditeko, Adierazpena eta Eskubide Zibil eta Politikoen itunak aipagarrienak dira.

1.5.1 Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

Adierazpenaren izaera juridikoa ez dago argi, hortaz, doktrina desberdinak aurkitu daitezke. Alde batetik, ez dauka nazioarteko itun baten izaera, bestetik, Adierazpenetik ez da zuzenki betebeharr juridikorik eratortzen Estatuentzat eta, eskubide subjektiborik ezin sortuz, ezta eskubideak betearazteko tresna juridikorik ezartzen. Izaera juridikotik harat, balio politiko eta etikoa dauka. Erakundearen bilakaeran eta jarduerak balio horiek behin baino gehiagotan nabarmendu dira, horrela, agerikoa da aipatutako itunek, eta beste askok, Adierazpena dutela iturburu eta horretan oinarritzen direla.

Halaber, interpretatzeko balioa dauka. Baina ez da Nazioarteko Justizia Auzitegiaren parametro judiziala, alegia, ezin da erabili ez hura ustez urratu izanagatik auziak abiarazteko, ezta auzibidean dauden gaiak aztertu eta erabakitzeke ere. Alabaina, Auzitegiak erabili lezake aplikatu behar dituen arauak interpretatzeko. Inspirazio-indarra duen dokumentua izaten jarraitzen du, giza duintasunaren mehatxu berriei eta gizakiaren biziraupenari aurre egiteko⁷⁴.

⁷⁰ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 60. artikulua.

⁷¹ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren A/RES/217(III) erabakia, 1948ko abenduaren 10ekoa. [https://www.un.org/en/development/desa/population/migration/generalassembly/docs/globalcompact/A_RES_217\(III\).pdf](https://www.un.org/en/development/desa/population/migration/generalassembly/docs/globalcompact/A_RES_217(III).pdf) (azken bisita 2023/12/16).

⁷² «BOE» 103 znb., 1977ko apirilaren 30ekoa, 9337 - 9343 orrialdeak (7 orr.).

⁷³ «BOE» 103 znb., 1977ko apirilaren 30ekoa, 9343 - 9347 orrialdeak (5 orr.).

⁷⁴ ORAÁ, J.; GÓMEZ ISA, F. (2002). La Declaración Universal de Derechos Humanos. *Deustoko Unibertsitatea, Argitalpen zerbitzua*. <https://elibro.net/es/ereader/upna/33997> (azken bisita 2023/12/16). 124. orr.

Nazioko auzitegiek batzuetan erabili izan dute ere. Erabili izan da, bai, baina oso gutxitan, Tanzaniako Auzitegi Gorenaren epai batean gertatu zen bezala, zeinaren ondorioz, bi emakume, 2012an haien arazoa aurkeztu zioten Emakumearen aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko Komiteari. Kasua herrialde horretako alargunen egoerari buruzkoa da, Tanzaniako ohiturazko oinordetza-zuzenbidearen pean, hildako senarren ondasunak heredatzeko edo administratzeko eskubidea ukatu zitzaien. Ondorioz, aita-amaginarrebek beren etxebizitzetatik atera zituzten, seme-alaba adingabeekin batera. Aurkezpenean argudiatu zen Tanzaniako beste milioika emakumek ohiturazko lege diskriminatzaileen mende jarraitzen dutela eta kasu honetan aipatzen diren bi emakumeek jasandako urraketa berberak jasaten dituztela⁷⁵. Konstituzioaren aurkakotzat jo zen ohiturazko zuzenbidearen arau hori, emakumea diskriminatzea ahalbidetzen zuena, Aitorpenaren 7. artikulua⁷⁶ argi urratzen duena⁷⁷. Orokorrean, auzitegi nazionalak honetan oinarritzen dira, zuzenean aplikatu baino lehen, konstituzioetan jadanik aitortuta dauden eskubideak dira eta. Estatu Espainiarrean, Auzitegi Gorenak arau hori aipatzen du eztabaidatutako eskubidea materialki indartzeko⁷⁸.

1.5.2 Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna.

Nazio Batuen Gutunean adierazitako printzipioekin bat etorritik, gizaki guztien duintasuna eta eskubideak berberak eta besterenduezinak direla aitortzea munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarri dauka testuak, horrela adierazten baitu hitzaurreak.

Eskubide horiek gizakiari dagokion duintasunak eratortzen dituela eta, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren arabera, ezin dela gauzatu askatasun zibil eta politikoak izateari dagokionez, gizaki askearen ideala, beldurretik eta miseriatik aske den gizakiarena alegia, horretarako baldintzak sortzen ez badira, pertsona bakoitzari

⁷⁵ E.S & S.c. v. United Republic of Tanzania, communication no. 48/2013 (2013). *ESCR*. <https://www.escr-net.org/es/caselaw/2015/es-sc-c-republica-unida-tanzania-cesdawc60d482013-comunicacion-no-482013> (azken bisita 16/12/2023).

⁷⁶ Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 7. artikulua: "All are equal before the law and are entitled without any discrimination to equal protection of the law. All are entitled to equal protection against any discrimination in violation of this Declaration and against any incitement to such discrimination."

⁷⁷ Nazio Batuen Erakundearen Emakumearen Aurkako Diskriminazioa Ezabatzeko Komitearen CEDAW/C/60/D/48/2013 erabakia, 2015ko apirilaren 13koa, Tanzanian emakumeekiko ezberdintasunak ezabatzeko alargun egoeran gizonetik berdintasuna izateko jarraibideak. https://www.escr-net.org/sites/default/files/caselaw/cedaw_tanzania_inheritance_laws_views.pdf (azken bisita 2023/12/16).

⁷⁸ ORAÁ, J; GÓMEZ ISA, F. (2002). La Declaración Universal de Derechos Humanos. *op. cit.* 112. orr.

ahalbidetzen dizkietenak baliatzea eskubide zibil eta politikoak, bai eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideak ere⁷⁹.

Bakea gizakiaren duintasunaren bidez lotzen da, argi utziz gerra giza eskubidearen traba garrantzitsua dela, hortaz, hauek mantentzeko guda ekiditeko betebeharra isilbidez biltzen da. Baina, ez da Estatuei zuzentzen, baizik eta Erakundearen organoei, balioak babesteko behar adinako lana aurrera eraman dezaten⁸⁰.

Testua berresten duten Estatuek betebeharrak – konpromezuak - izanen dituzte: (1) Estatuaren lurraldean dauden eta bere jurisdikzioaren mende dauden gizabanako guztiei errespetatu eta bermatzeko itun honetan aitortutako eskubideak, inolako bereizketarik egin gabe; (2) neurri egokiak hartu, Konstituzio-prozeduren eta Itunaren xedapenen arabera, Itunaren eskubideak eragingarriak izan daitezen legeria-xedapenak emateko; azkenik, (3) Itunean aitortutako eskubideak edo askatasunak urratzen direnean, halakoak urratuak dituzten pertsonak errekurtso eragingarria ezartzeko aukera. Berez, testuak zerrendatutako eskubideak bermatzea eta, betetzen ez dituzten Estatuek, Giza Eskubideen Komitearen eskutan egonen dira⁸¹.

Betearazpen tresna den Komiteari dagokionez, honi azaldu beharko diote Estatuek zenbateraino betetzen dituzten xedapenak, txosten baten bidez. *Soft Law* bezala hauteman zen, hortaz, Protokoloa⁸² onartu egin zen, betebeharrak zorrotzen dituenak⁸³. Ituneko edozein eskubideetarik edozein urratu dela alegatzen duen gizabanako orok Komitearen esku utzi ahal izango du idatzizko komunikazioa, baldin eta barne-jurisdikzioko errekurtso guztiak agortu baditu⁸⁴.

1.6 Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatutua.

Nazio Batuen Erakundeko organo iraunkorra da, eta, Nazioarteko mailan, garrantzia handien duten krimen larrienen testuinguruan, pertsonen gaineko eskuduntza

⁷⁹ Eskubide zibil eta politikoaren Nazioarteko Itunaren hitzaurrea: “[...] in accordance with the principles proclaimed in the Charter [...] these rights derive from the inherent dignity of the human person, [...] in accordance with the Universal Declaration of Human Rights, the ideal of free human beings enjoying civil and political freedom and freedom from fear and want can only be achieved if conditions are created whereby everyone may enjoy his civil and political rights, as well as his economic, social and cultural rights, Considering the obligation of States under the Charter of the United Nations to promote universal respect for, and observance of, human rights and freedoms, [...]”

⁸⁰ LAMARCA ITURBE, I. (2022). Nazio Batuen giza eskubideen sistemaren argi-ilunak, eta gerrak ekiditeko ezintasunak. *op. cit.*, 115. orr.

⁸¹ Eskubide zibil eta politikoaren Nazioarteko Itunaren 2. artikulua.

⁸² «BOE» 79 znb., 1985ko apirilaren 2koa, 8757 - 8759 orrialdeak (3 orr.).

⁸³ Eskubide zibil eta politikoaren Nazioarteko Itunaren 40. artikulua:

⁸⁴ Eskubide Zibil eta Politiken Nazioarteko Itunaren Protokoloaren 2. eta 3. artikulua.

izango du, ez Estatuaren gainean. Auzitaratu daitezken hauek Estatu Kideen herritarrak izan beharko dira⁸⁵.

Krimen larri hauek Erromako Estatutuaren⁸⁶ zerrendatzen dira, 5. artikuluan: (1) genozidioa, (2) gizateriaren aurkako krimenak, (3) gerra krimenak eta, azkenik, (4) agresioa. Hurrengo artikuluek hauek garatzen dituzte, egoera ezberdinak listatuz, hauek, lege aplikagarria eraikiz, Estatutua izanen da magistratuek kontutan hartu behar izanen duten testua.

Genozidio delituak, talde nazional, etniko, arrazazko edo erlijioso bat erabat edo zati batean bere kideak hilez edo beste bide batzuetatik suntsitzeko. Hala nola, taldeko kideei gorputz-kalte edo kalte-psikologiko larriak eraginez, bizi-baldintzak kaltetuz, talde barruan jaiotzak eragozteko neurriak ezarriz, edo umeak hartzea eta hauekin negozioa egitea. Omar al-Bashirren kasua lirakeke, Sudango presidentea izan zena. Nazioarteko Zigor Auzitegiak genozidioa leporatu zion 2010ean. Karguetan hilketa, gorputzeko edo buruko kalte larriak eragitea eta talde objektibo bakoitzari taldearen suntsipen fisikoa eragiteko kalkulaturako bizi-baldintzak nahita ezartzea erabaki ziren⁸⁷.

Bigarrenik, Gorteak gizateriaren aurkako krimenak epaitu ditzake. Bortxaketa larriak dira, edozein biztanleria zibili egindako lau eskalatako eraso baten parte. Batez ere ikusten diren delituak hilketa, bortxaketa, espetxeratzea, desagerpen bortxatua, esklabotza -batez ere emakume eta haurrena-, sexu-esklabotza, tortura, apartheidia eta deportazioa dira. 2021 urtean, Dominic Ongwen ugandarra zigortu zuen Gorteak krimen honengatik. Jaunaren Erresistentzia Armadako brigada-komandante gisa izanda, 2000ko hamarkadaren hasieran, zibil askoren hilketak baimendu zituen, behartutako ezkontza, sexu-esklabotza beste delituen artean⁸⁸.

Hirugarrena, gatazka armatuaren testuinguruan Genevako hitzarmenen urraketa larriak diren gerra-krimenak dauzkagu, adibidez, haur soldaduen erabilera, zibilak edo gerrako presoak bezalako pertsonak hiltzea edo torturatzea, eta ospitaleen, monumentu historikoen edo erlijioari, hezkuntzari, arteari, zientziari edo karitatezko helburuei eskainitako eraikinen aurkako erasoak nahita zuzentzea. Praktikan, epai askok

⁸⁵ Erromako Estatutuaren 1. go artikulua.

⁸⁶ «BOE» 126 znb., 2002ko maiatzaren 27koa, 18824 – 18860 orrialdeak (37 orr.).

⁸⁷ Nazioarteko Zigor Gortearen ICC-02/05-01/09-OA epaia, 2010ko otsailaren 3koa. https://www.icc-cpi.int/sites/default/files/CourtRecords/CR2010_00656.PDF (azken bisita 2023/12/16).

⁸⁸ Nazioarteko Zigor Gortearen ICC-02/04-01/15 epaia, 2021ko otsailaren 4koa. https://www.icc-cpi.int/sites/default/files/CourtRecords/CR2021_01026.PDF (azken bisita 2023/12/16).

gizateriaren aurkako krimenekin batera ezartzen dituzte zigorrak, kasurako, 2019an, Gorteak Patrick Ntaganda zigortu egin zuen, gutxienez 74 pertsona hiltzeagatik eta beste bost hiltzen saiatzeagatik. Epaian agertzen diren krimenen zerrenda luzearen artean, Abbé Bwanalanga elizgizonaren hilketak akabatu eraman zen bere izenean, Mongbwali herrixkan, urrez aberatsa dena, inpaktu suntsitzailea izan zuena. Ntaganda gerra krimenen eta gizateriaren aurkako krimenen 18 karguren errudun jo zuen⁸⁹.

Azkenik, laugarren delitua Gortearen jurisdikzioan erortzea eraso delitua da. Estatu batek indar armatua erabiltzea da, beste Estatu baten subiranotasun, osotasun edo independentziaren aurka. Delitu horren definizioa Erromako Estatutuak aldatzearen bidez onartu zen, 2010ean, Kampala, Ugandako Estatutuaren lehen Konferentzian. 2017ko abenduaren 15ean, Estatuko Partiduen Batzarrak ebazpen bat onartu zuen, akordio baten bidez, Auzitegiak 2018ko uztailaren 17an eraso-krimenari buruz zuen jurisdikzioa aktibatu egin zuena⁹⁰. Thomas Lubanga Dyilorena epaitutako agresio-krimenen kasurik nabarmenetakoa liriteke. 2012an, gerra krimenengatik eta eraso krimenengatik kondenatu zuen. Kongoko Abertzaleen Batasuneko burua izan zen. Borroka armatuan haur soldaduak errekrutatzea eta erabiltzea leporatu zioten, eta hori eraso-krimena da⁹¹.

Erromako Estatutuak delitu horiek bereziki kondenatzea baino ez du bere jurisdikziopean. Ezarritako krimenekin zuzenean lotuta ez dagoen beste edozein kasu ezin izango da Nazioarteko Zigor Gortera eraman. Subiranotasuna ekintza-arauak arautzen eta zehazten dituen printzipioa bada ere, ezin da ukatu kontzeptu hori eraldaketa-prozesu batean dagoela eta, edozein krisiren aurrean, nazioarteko komunitateak erantzun egokiak eskatzen dizkiela urraketa orokorreko egoerei.

Estatu Batuak eta beste herrialde batzuk Nazioarteko Zigor Gortearen parte ez badira ere, herrialde horiek parte hartzeko eta izugarrikeria horien definizioak eta eskuduntzak aitortzeko beste modu batzuk bilatu dira. Erantzun gisa, Estatu Batuak bezalako herrialdeek beste arau juridiko batzuk sinatu dituzte, hala nola genozidio-delitua prebenitzeko eta zigortzeko Konbentzioa.

⁸⁹ Nazioarteko Zigor Gortearen ICC-01/04-02/06 epaia, 2019ko uztailaren 8koa. https://www.icc-cpi.int/sites/default/files/CourtRecords/CR2019_03568.PDF (azken bisita 2023/12/16).

⁹⁰ Internatioanal Criminal Court. *How the Court Works*, <https://www.icc-cpi.int/about/how-the-court-works>

⁹¹ Nazioarteko Zigor Gortearen ICC-01/04-01/06 A 5 epaia, 2014ko abenduaren 1ekoa. https://www.icc-cpi.int/sites/default/files/CourtRecords/CR2014_09844.PDF (azken bisita 2023/12/16).

Gortearen osaketarekin jarraituz, 18 magistratuk osatuko dute, izaera moral, inpartzialtasun eta zintzotasun handiko pertsonen artetik hautatuko direnak, beren Estatuetan auzitegi judizial gorenetera izendatzeko beharrezkoak diren gaitasunak dituztenak. 9 urtez jardunen dute, baina, berrautatzeko aukerarik gabe⁹².

Magistratuez aparte, Fiskalaren irudia ezartzen da. Ofizioz hasiko du ikerketa Estatuaren zerrendatutako krimen bati buruzko informazioan iristen bazaio, honen egiazkotasuna aztertuz, Estatuaren, Nazio Batuen organoen, gobernu edo gobernuz kanpoko erakundearen edo besteen aldetik beharrezkoa den beste informaziorik lortzeko eskumenarekin. Ikerketa irekitzeko oinarria ikusten badu, Aurretiazko Gaiaren Salari baimen-eskaera aurkeztuko dio. Baina, ikerketarekin jarraitzeko nahikoa ez dela uste badu, ezezkoaren berri emango die aurkeztu dutenei. Izan ere, egitate edo froga berriak agertzen badira, ikerketa berriro irekitzeko eragozpenik ez da egonen⁹³.

Behin aipatutako Aurretiazko Gaiaren Salariaren baimena eskuratzean, ikerketarekin hasiko da⁹⁴, probidentziak eta odenak emateko aukerarekin, Fiskalak ikerketa zuzen batekin jarraitzeko⁹⁵. Epaiketa baino lehen, entzunaldi bat egonen da, non Fiskalak auzipetzea eskatzeko karguak azalduko dituen. Salak proba nahikoak ikusten baditu, lehen auzialdira igorriko du kasua, hor epaituta izan dadin⁹⁶. Lehen auzialdian, karguak irakurriz hasiko da, momentu horretan, akusatuak bere burua errudun adierazi dezake, Estatuaren 65. artikulua⁹⁷ baldintzak betetzen badira. Horrela ez bada, frogaren praktikekin jarraituko da⁹⁸. Zigor-epaia bada, hiru zigor posible aurkezten dira. Espetxeratzea, betiko giltzapetzearen aukerarekin, krimenaren larritasuna eta zigortuaren inguruabar pertsonalek justifikatzen dutenean. Hortaz gain, isuna ezarri daiteke, baita ondasunen konfiskatzea⁹⁹.

⁹² Erromako Estatuaren 36.1, 36.3 a) eta 36.9 a) eta b) artikulua.

⁹³ Erromako Estatuaren 15.1, .2, .3 eta .6 artikulua.

⁹⁴ Erromako Estatuaren 53. artikulua.

⁹⁵ Erromako Estatuaren 57.1 a) artikulua.

⁹⁶ Erromako Estatuaren 61.1. eta 7. artikulua.

⁹⁷ Erromako Estatuaren 65.1. artikulua: "Where the accused makes an admission of guilt [...] the Trial Chamber shall determine whether: (a) The accused understands the nature and consequences of the admission of guilt; (b) The admission is voluntarily made by the accused after sufficient consultation with defence counsel; and (c) The admission of guilt is supported by the facts of the case that are contained in: (i) The charges brought by the Prosecutor and admitted by the accused; (ii) Any materials presented by the Prosecutor which supplement the charges and which the accused accepts; and (iii) Any other evidence, such as the testimony of witnesses, presented by the Prosecutor or the accused. [...]".

⁹⁸ Erromako Estatuaren 64.8. a) artikulua.

⁹⁹ Erromako Estatuaren 77. artikulua.

Epaiaren aurrean errekurtsua ezarri daiteke. Fiskalak prozeduraren, aplikatutako legediaren edo gertakarien Gortean huts-egiteren bat jarduten badu, errekurtsua ezarriko du, baita ekintzen eta zigorraren arteko proportziorik ez badago. *Reo*-ari dagokionez, egoera berdinetan ezarri ahalko du, baina, gainera, prozesuaren edo epaiaren justiziari edo erregulartasunari eragiten dion beste edozein arrazoirengatik¹⁰⁰. Bestalde, epaia erregutu ahal izateko aukera aurkezten da: (1) lehen ezezagunak ziren gertaera berriak aurkezten dira, (2) giltzarri den froga bat faltsua dela jabetzen da, edo (2) magistratu batek bere betebeharrak akabo eramaten ez baditu, hauek Gortetik ateratzeko larritasun maila erabakitzen badute¹⁰¹.

Nazioarteko Zigor Gortearen gaur egungo jardueraren eta gatazka armatuetan banakako erantzukizuna epaitzeko orduan duen jurisprudentziaren esperientzia garrantzi handia erakutsi egin du¹⁰².

2. Europar mailan.

Nazioarteko araudiak, orokorrak diren materiak eta irizpideak edo jarraibideak garatuz eta zehaztuz joan dira europeizazioaren bidez. Prozesuak, eraikitzea, hedatzea eta instituzionalizatzea, eta sinesmen eta arau partekatuak Europar Batasuneko politikak eta joko politikoa lantzean definitzen eta sendotuz, eta, gero, Estatu Kideetan egitura politiko eta politika publikoen logikan barne-araudian hauek txertatzen da egun¹⁰³.

Hortaz, nazioarteko mailako marko juridikoa garatzen duten araudiak eratu egin dira. Izan ere, azalduko denez, Estatu Kideen menpe uzten da oraindik erabakiak, zehatzak ez diren pautak ezartzen baitira, norbanakoen interesen mesederako interpretatu daitezkeenak.

¹⁰⁰ Erromako Estatutuaren 81.1 artikulua.

¹⁰¹ Erromako Estatutuaren 84.1 a), b) eta c) artikulua.

¹⁰² SÁNCHEZ, J. S. (2018). ¿Por qué es importante que la Corte Penal Internacional condene más allá de toda duda razonable? *ACDI - Anuario Colombiano de Derecho Internacional*, 11. *Liburukia*, 101-130. orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6344862> (azken bisita 2023/12/16). 113 eta 118 orr.

¹⁰³ RADAELLI, C. M.; FEATHERSTONE, K. (2003). The Europeanization of Public Policy. FEATHERSTONE, K.; RADAELLI, C. M. (koord), *The Politics of Europeanization* liburuan, Oxford. <https://doi.org/10.1093/0199252092.003.0002> (azken bisita 2023/12/16). 30. orr.

2.1 428/2009 Erregelamendua, erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak, transferentzia, artekaritza eta joan-etorria kontrolatzeko Erkidegoko araubidea ezartzen duena.

Irismen orokorra du 428/2009 Erregelamenduak¹⁰⁴, zuzenean aplikatu behar da. Hartzaileek, Estatu kideek, osorik bete behar dute araudi hau indarrean jartzen denetik, transposizio-egintza nazionalik behar izan gabe¹⁰⁵.

Testuak, Lehen Eranskinean agertzen den zerrendatik abiatzen da, zeinak erabilera bikoitzeko elementuak aurkezten dituen. Baina, hau eguneratzearen beharra ezartzen da, desbideratze-mehatxuen inguruko kontrol eraginkorra mantentzeko eta sektorearen aldaketei egokitzeko ezinbestekoa baita¹⁰⁶. Beraz, zerrendan aurkitu daitezken elementuak esportatu ahal izateko, beti autorizazioa eskuratu beharko da¹⁰⁷.

Izan ere, 4. artikulua *catch-all* klausula¹⁰⁸ bezala funtzionatzen du. Zenbait egoera azaltzen dira, non, nahiz eta zerrendatuak ez egon, autorizazioa lortu beharko den transferentziaren Estatu helmugaren testuinguruarengatik. Estatuak, Europar Batasunak erabakita, bahiketa jasaten ari badu, baita Atzerriko Politika eta Segurtasun Erkideak edo Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluak horrela erabakitzen badute¹⁰⁹.

Estatuen arteko kooperazioa garrantzia handia dauka lizentziak eskuratzeko momentuan informazio zirkulazioa erraztatzeko. Debekatu ahal izango dute zerrendan aurkitzen ez dena esportatzea, edo esportatzeko baimen-baldintza bat ezarri ahal izango dute, segurtasun publikoko arrazoiengatik edo giza eskubideei buruzko kontsiderazioengatik¹¹⁰.

Esportazio-baimena emateko, Estatu Kideek kontuan izan beharrezkoak ikusten dituzten gogoeta guztiak, baina, testuak ezarritako irizpide minimoekin: (1) nazioarteko ez-ugaltzeko araubideetako eta esportazioak kontrolatzeko nazioarteko

¹⁰⁴ DOUE L 329/6, 2021ko urriaren 7koa.

¹⁰⁵ PARLAMENTO EUROPEO (2023). *Las fuentes y el ámbito de aplicación del Derecho de la Unión Europea*. <https://www.europarl.europa.eu/factsheets/es/sheet/6/las-fuentes-y-el-ambito-de-aplicacion-del-derecho-de-la-union-europea> (azken bisita 2023/12/16).

¹⁰⁶ 428/2009 Erregelamenduaren 15. artikulua,

¹⁰⁷ 428/2009 Erregelamenduaren 3. artikulua.

¹⁰⁸ Estatu Kideek erabil dezaketen mekanismoa da. Esportatzeko intentzioa duten estatuei, dagokion lizentzia eskatzera behartzeko. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/tramites-y-gestiones/documentos-certificados-especificos/industria-tecnologia/material-defensa-productos-tecnologias-doble-uso-otro-material-policia-caza-deportivo/EST2014346093.html?sectores=119-137> ((azken bisita 2023/12/16).

¹⁰⁹ 428/2009 Erregelamendua 6.1 artikulua

¹¹⁰ 428/2009 Erregelamendua 13. artikulua.

akordioetako kide gisa, edo kasuan kasuko nazioarteko tratatuak berrestearren ondorioz, bakoitzak bere gain hartu dituen betebeharrak eta konpromezuak; baita, (2) Kontseiluak hartutako zehapenen, Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen¹¹¹ erabaki baten edo Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpen lotesle baten arabera dituen betebeharrak; bestalde, (3) atzerri- eta segurtasun-politika nazionalari buruzko begiruneak, 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuan¹¹², esportazio mota hauen kontrola arautzen duten arauak zehazten dituen; eta, azkenik, (4) aurreikusitako azken erabilerari eta desbideratze-arriskuari buruzko gogoetak¹¹³. Inperatibotasun-maila falta antzematen da, baita honen leunketak zenbait xedapenetan, Estatu kideen barne-legedian eta interpretazioan utzi egiten da zama, haiek beharrezkoak ikusten dituzten gogoetak kontutan hartuz, eta, testuak ezartzen dituen irizpideak, orokorrak dira.

2.2 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua, teknologia eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arau komunak zehazten dituen.

Teknologiaren eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arau komunak ezartzen dituen dokumentua da, lankidetzaren eraginkortasuna optimizatzeko eta Estatu kideen arteko bateratasuna sustatzeko xedarekin eratuta, teknologia eta ekipo militarren esportazioen esparruan hain zuzen ere.

Estatu kideek urtero eman behar dute teknologia eta ekipo militarren esportazioen eta Jarrera Bateratuaren aplikazioaren berri. Gainera, Europar Batasuneko Zerrenda Militar Bateratuan¹¹⁴ dauden teknologia edo ekipo militarrek esportatzen dituen Estatu kide bakoitzak esportazioei buruzko txosten nazional bat argitaratuko du. Teknologia eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arauak eta irizpideak ezartzen dituen arren, irizpide horien aplikazioa aldatu egin daiteke Estatu kideen artean¹¹⁵.

¹¹¹ Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundeak, Ipar Amerikatik, Europatik eta Asiatik eratorritako 57 Estatuk osatzen duten munduko eskualdeko segurtasun-erakunderik handiena da. Egonkortasuna, bakea eta demokrazia lortzeko eta mantentzeko lan egiten du. Elkarrizketa politikoaren eta tokian tokiko proiektuen bidez. Segurtasunaren ikuspegi integral baten bidez, zeinak dimentsio politiko-militarra, ekonomikoa eta ingurumenekoa eta giza dimentsioa biltzen dituenak, ezberdintasunak ezabatzen eta Estatuaren arteko konfiantza sustatzen laguntzen du, gatazken prebentzioaren, krisien kudeaketaren eta gatazka osteko birgaitzearen arloko lankidetzaren bidez, <https://www.osce.org/es/who-we-are> (azken bisita 2023/12/16).

¹¹² DOUE L 239/1, 2019ko irailaren 17koa.

¹¹³ 428/2009 Erregelamendua 12. artikulua.

¹¹⁴ DOUE C 85/1, 2020ko martxoaren 13koa.

¹¹⁵ 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuaren 1.1 artikulua.

Testuan garrantzia handiena duen artikulua bigarrena da. Esportazioak aurrera eramateko kontutan hartu behar diren irizpideak zerrendatzen dira. Baimenak ebaluatzeko orduan bete behar dituzten jarraibideak zortzi dira, inperatibotasun maila ezberdinekin.

Lehen irizpideak, Estatu Kideen nazioarteko konpromezuak eta betebeharrak errespetatzearen beharra adierazten du, bereziki Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak - Europar Batasunak hartutako berrespenak-, ez-ugaritzeko akordioen inguruan. Baimenak eskuratzearen ukapena gertatuko da onespina bateragarria ez bada nazioarteko konpromezuekin horiekin. Testuak, 2019.urtean jasandako aldaketarekin, Armen Inguruko Merkataritzarako Itunaren inguruan erreferentzia zuzena egiten du, honek ezartzen dituen betebeharrak errespetatzearen lehentasuna adieraziz. Inperotabitoasun sendoa ikusten da.

Bigarren irizpideari dagokionez, azken helmugako herrialdean giza eskubideak errespetatzea eta herrialde horrek nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzea ziurtatzeko, Estatu kideek zenbait oinarri jarraitu behar dituzte. Zuzenbide Humanitarioaren aurrean Estatu inportatzailearen jarrera ebaluatuko da. Arrisku ikustekotan, baimena ukatu beharko da¹¹⁶. Doktrinak zera kritikatu du, eskubideen urraketak helmuga Estatuan ematen ez badira, baina bai hirugarren Estatu batean, lizentzia eskuratu daiteke, leuntasunak ikusten dira inperotabotasunean¹¹⁷.

Hirugarren irizpideak, helmugako Estatuan tentsio giroaren edo gatazka armatuen existentziaren inguruan aritzen da. Estatu esportatzaileek, helmugako Estatuan existitzen diren gatazka armatu hauek eragiten nahiz luzatzen dituzten edo tentsioak zein gatazkak biziagotzen dituzten teknologia edo ekipamendu militarrek esportatzeko lizentziak ukatzeko beharra biltzen da. Inperatibotasun maila zorrotza aurkezten da.

Laugarren irizpideak Nazio Batuen Erakundearen xede nagusia biltzen du, bakea eta segurtasuna mantentzeko printzipioak berretsiz. Baimenaren bidez, beste Estatu bat erasotzeko edo horren jabetza indarrez aldarrikatzeko arriskuak ebaluatu beharko du. Izan ere, leunketak aurkitu daitezke: helmugako Estatuak eta beste baten arteko gatazka badago edo hau gerta litekeen; herrialde bizilagun baten lurraldea aldarrikatzen badu; edo

¹¹⁶ ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. (2019). Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAeko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko. *op. cit.*, 28-29 orr.

¹¹⁷ JANER TORRENS, J. D. (2016). Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos. *Revista española de derecho internacional aldizkarian*, 68. liburukia (1.go znb.), 49-71 orr. 56. orr.

teknologia edo ekipamendu militarrek helmugako Estatuaren segurtasun nazionalaren defentsarako ez diren helburuetara bideratzea, edo hori gertatzeko aukera badago. Aipatzekoa, eskualde-egonkortasunari kalte handirik ez egiteko beharra. Inolako gidarik gabe ezartzen da, Estatu kide esportatzaileen esku utziz interpretazioa.

Bostgarren irizpidea, Estatu kideen eta hauen erantzukizuna diren kanpo-harremanak dituzten lurraldeen segurtasun nazionala, bai eta herrialde lagunak eta aliatuen segurtasun nazionala errespetatzeko beharra. Esportatuko diren materialen eragin potentziala kontutan hartuko da, haien segurtasunaren eta defentsaren mesedetan, bai eta beste Estatu kide baten eta herrialde lagunak eta aliatuen intereserako ere, gainera, faktore horrek ezinen du eraginik izan giza eskubideak eta eskualdeko bakea, segurtasuna eta egonkortasuna errespetatzeko irizpideak kontuan hartzean. Estatu esportatzailearen aliatu den Estatu batek, aliatu ez duen beste bati zuzentzen bada esportazioa, zuzentzeko aukera erakusten du segurtasun eta defentsa inguruko arazoak direla eta adieraziz, nahiz eta Estatuak giza eskubideak urratu, hau barne-errepresioaren ondorioz ematen ez bada.

Seigarren irizpidearekin jarraituz, helmugako Estatuak nazioarteko komunitatearen aurrean duen jokabidea kontrolatzea, batez ere, terrorismoa eta nazioarteko delinkuentzia antolatua babestu edo sustatzea, nazioarteko konpromezuak errespetatzea -bereziki indarra ez erabiltzea, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzea- eta ez ugaltzeko konpromezuari eta armamentua eta armagabetzea kontrolatzeko beste zenbait esparruei dagokienez.

Zazpigarren irizpideak, desbideraketaren arriskuen inguruan Armen inguruko Merkataritzarako Itunaren 5. artikuluekin bat egiten du, desbideraketak. Estatu horren interesak eta bakea mantentzeko aktibitatea, materialak erabiltzeko gaitasun teknikoak, kontrol eraginkorrak ezartzeko gaitasuna, desiragarriak ez diren lurraldetara desbideratzeko arriskua izan da kontutan. Testuak Estatu esportatzaileari interpretazioa egiteko eskumena ematen dio berriz ere, subjektibotasuna utziz helmugako Estatuaren aurrekarien inguruko interpretazioan¹¹⁸.

Bukatzeko, zortzigarren irizpideak, esportazioaren bateragarritasuna herrialde hartzailearen gaitasun tekniko eta ekonomikoei dagokienez. Helmugako Estatuaren gastu

¹¹⁸ ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. (2019). Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko. *op. cit.* 30. orr.

militar eta sozialen mailak izanen dira iturri, baita Europar Batasuneko edo alde biko laguntzak. Beste behin, inperatibotasuna leunduz, inolako markorik ezarriz.

Irizpideen inperatibotasun maila faltarekin, xedeen banaketak aurkitzen dira, hortaz, kontrol politika, esportazioen murrizketa, giza-eskubideen errespetua, bakea mantentzea eta gatazken prebentzioa, eta, industria militarren mantentzea eta maila europarrean indartzea, Estatu esportatzaileen ekonomia, giza, merkataritza eta industria interesak, eta helmugako Estatuaren segurtasun beharra eta defentsa kontrajarriz. Aurretik antzeman ezin daitekeen ondorioak aurkeztuz¹¹⁹.

Izan ere, 10. artikuluan, bederatzigarren irizpidea aurkitzen da, besteekin talka egiten duena. Kontuan hartu dezakete proposatutako esportazioek beren interes ekonomiko, sozial, komertzial eta industrialetan duten eragina. Ez da ziurtatzen zein egoeratan kontutan noiz, baina, doktrinaren ustez, interes hauek ezin dira irizpideen gainetik ezarri, osatzeko erabili daitezke bakarrik. Irizpideak nagusituko lirateke Estatu kideen interesen gainetik, ondorioa inkongruentea baita, askatasun gehiegi eskainiz Estatu esportatzaileei baina askatasun gehiegi daukate interpretazio hori egiteko¹²⁰.

Bukatzeko, aipatzekoa zuzenbide humanitarioarengatik egingen diren esportazioen inguruan modu espresean irizpideen artean arautzen ez dela, nahiz eta, Erabiltzailearen Gidaren ondorioz interpretatu daitekeen. Irizpideekiko kontrakoak dira esportazio mota hauek, baina, ezaugarri humanitarioa dela eta baimentzen dira. Jarrera Bateratuak aplikatzeko eta interpretatzeko elastikotasuna baimentzen du¹²¹.

2.3 Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutua.

Europar Batasunak eratutako auzitegia Europar Batasuneko Justizia Auzitegia daukagu. Erakundearen zazpi instituzioetako bat da eta Tratatuaren interpretazio eta

¹¹⁹ MELERO ALONSO, E. (2010). La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico. *Revista española de derecho europeo aldizkarian*, 34. znb, 235-264 orr. 247-249 orr.

¹²⁰ JANER TORRENS, J. D. (2016). Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos, *op. cit.*, 56-57 orr.

¹²¹ MELERO ALONSO, E. (2010). La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico, *op. cit.*, 256-257 orr.

aplikazioan Zuzenbidearen errespetua bermatzea du helburu, hau da, europeizazioaren praktika kontrolatzen du¹²². Hainbat dira Auzitegiak arautzen duten testuak.

Europar Batasunaren Hitzarmenak¹²³ adierazten duen moduan, Europako ondare kultural, erlijioso eta humanistikotik abiatuz, giza eskubide bortxaezin eta besterenezinak diren balio unibertsalak, askatasuna, demokrazia eta berdintasuna inspiratzen dute Erakundea¹²⁴. Adierazpen honetatik abiatuz, Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuneari¹²⁵ jasotako eskubideak, askatasunak eta printzipioak aitortzen ditu, beste Hitzarmenen balio juridiko bera izanez¹²⁶. Gizabanakoen eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak zein sozialak biltzen ditu Gutunak. Baita europar herritartasunetik datozen horiek, nahiz eta Europar Batasuneko zuzenbidearen pribatiboak izan¹²⁷.

Aitortutako eskubideen eta askatasunen funtsezko edukia errespetatu beharko da, izan ere, mugak ezarri daitezke proportzionaltasun-printzipioa errespetatuz, beharrezkoak direnean eta Europar Batasunak onartutako interes orokorreko helburuei edo gainerakoen eskubideak eta askatasunak babesteko beharrari erantzuten dietenean. Gutun honetan aitortutako eskubideak, Erkidegoko Tratatueta edo Europar Batasunaren Hitzarmenean oinarritzen direnak, zehaztutako baldintzetan eta mugen barruan gauzatuko dira. Bestalde, Gutunak Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak¹²⁸ bermatutako eskubideei dagozkien eskubideak jasotzen dituen heinean, horien zentzua eta irismena Hitzarmen horrek ematen dienaren berdina izango dira. Baina, honek ez du eragozten babes zabalagoa ematea¹²⁹.

Giza Eskubideen Europako Auzitegia edo Europar Batasunaren Justizia Auzitegira jotzeko aukera azaltzen da, hau da, bi bide daude europar mailan eskubideen babes judiziala akabo eramateko, bi interpretazio ezberdin lortzeko aukerarekin. Araukonkurrentzia gertatzen bada, haren zentzua eta irismena Erromako Itunak adierazten duenaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziak, gutxienez,

¹²² Europar Batasuneko Hitzarmenaren 29. artikulua: "The Council shall adopt decisions which shall define the approach of the Union to a particular matter of a geographical or thematic nature. Member States shall ensure that their national policies conform to the Union positions."

¹²³ DOUE C 326/32, 2012ko urriaren 26an.

¹²⁴ Europar Batasuneko Hitzarmenaren atarikoak.

¹²⁵ DOUE C 364/1 2000ko abenduaren 18koa.

¹²⁶ Europar Batasuneko Hitzarmenaren 6. artikulua.

¹²⁷ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. (2008) *Curso de Derecho Internacional Público*. Thomson Civitas, 858-859 orr.

¹²⁸ «BOE» 243 znb., 1979ko urriaren 10ean, 23564 - 23570 orrialdeak (7 orr.).

¹²⁹ Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 52. artikulua.

berdinak izango dira. Bestalde, eskubide berdinak bi araudi ezberdinetan bilduak agertzeak, ezin daiteke interpretatu beste testu batzuetan edo barne-legediak onartutako giza eskubideen interpretazio mugatu daitezkeela¹³⁰.

Lau egoeratan funtzionatzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak. Hasteko, legeria aplikatzeko, Estatuaren administrazioek europar arau-hauste bat egiten badute, Europar Batasuneko legeria ez betetzeagatik. Horrela egiaztatzen bada, konponbidea jarri beharko du edo ekintza berriei eta balizko isun bati aurre egin beharko die¹³¹. Bestalde, Europar Batasunaren egintza juridikoak baliogabetu ditzake deuseztapen-errekurtsoen ondorioz. Egintza horiek erakundearen tratatuak edo oinarrizko eskubideak urratzen dituela uste bada. Kasu honetan herritarrek eska dezakete ere, ez bakarrik gobernuek edo organoek¹³². Hortaz aparte, Europar Batasunaren jardutea bermatzea, ez-egitezko errekurtsoaren ondorioz. Egoera jakin batzuetan, Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak erabakiak hartu behar dituzte, eta, hala egiten ez badute, Estatuetakoko gobernuek, Europako beste erakunde batzuek edo, egoera jakin batzuetan, partikularrek edo enpresek auzitegira jo dezakete¹³³. Azkenik, erakundea zigortzea kalte-galerengatik akzioen bidez. Auzitegira jo dezake Europar Batasunaren edo haren langileen egitez edo ez-egitez kaltetuntzat jotzen den edozeinek¹³⁴. Justizia Auzitegiak, auzitegi nazionalak planteatutako epaitu aurreko arazoak, deuseztatze zenbait errekurtso eta kasazio-errekurtsoak ebazten ditu. Auzitegi Orokorrak, bere partez, partikularrek, enpresek eta, batzuetan, Estatuetakoko gobernuek jarritako deuseztatze-errekurtsoak ebazten ditu.

Auzitegiak 3 edo 5 epaileko jurisdikzio-salak osatzen dute, baita 11 epaileko Sala Handian. Denak bakoitiak dira, lehendakariak ez baitu kalitatezko botorik berdinketa gertatuz gero. Estatu kideetako gobernuek izendatuko dituzte, sei urterako. Hiru urtean behin, partzialki berrituko dira, berriz ere aurkezteko aukerarekin. Bakoitzaren herrialdean jurisdikzio-funtzio gorenak betetzeko eskatzen diren baldintzak betez¹³⁵.

Justizia Auzitegiaren prozedimendua organoaren Estatutuan¹³⁶ biltzen da. Bi fasetan izapidetzen dira gaiak. Lehendabizi, (1) idatzizko fasean, alderdiek idatzizko

¹³⁰ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. (2008) *Curso de Derecho Internacional Público*, op. cit, 859-860 orr.

¹³¹ Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Hitzarmenaren 258-259 artikulua.

¹³² Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Hitzarmenaren 263. artikulua.

¹³³ Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Hitzarmenaren 265. artikulua.

¹³⁴ Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Hitzarmenaren 340. artikulua.

¹³⁵ Europar Batasuneko Funtzionamenduaren Hitzarmenaren 251. eta 253. artikulua.

¹³⁶ DOUE C 202/210, 2016ko ekainaren 7koa.

alegazioak aurkeztuko aukera izanen dute. Honetan oharrak egin ditzakete, halaber, administrazio nazionalak, erakundeak eta, kasu batzuetan, baita partikularrek ere. Epaille txostengileak Auzitegiaren bilera orokorrean eztabaidatzen diren alegazio eta ohar guztiak laburbilduko ditu, bertan, zenbat epaille gaiaz arduratuko diren erabakiko da, hiru, bost edo hamabost, gaiaren garrantziaren eta konplexutasunaren arabera. Ikustaldi bat egin behar den erabakiko da ere, ahozko fasea. (2) Fase honi dagokionez, bi aldeek abokatuek beren argudioak planteatuko dituzte. Epailleek deliberatu eta epaia emanen dute. Auzitegi Orokorrean, prozedura antzekoa izanen da, salbu eta auzi gehienetan hiru epaille daudenean eta abokatu nagusirik ez dagoenean¹³⁷.

Epai baten zentzuari eta irismenari buruzko zalantzarik izanez gero, Auzitegiari dagokio epai hori interpretatzea, alderdiak edo Batasuneko instituzioak hala eskatuta¹³⁸. Epaiaren berrikuspina eskatu ahal izateko, eragin erabakigarria izan dezakeen egitate bat aurkitu behar da, epaia eman aurretik auzitegiak eta interesa duen alderdiak ezagutzen ez zutena. Epai horretan berariaz jasoko da berrikuspina eragiten duten ezaugarriak dituen egitate berri bat dagoela, eta, horregatik, demanda onargarritzat joko da. Ezin izango da berrikuspen-demandarik aurkeztu epaia eman eta hamar urtera¹³⁹.

2.4 Erromako Hitzarmena, Giza Eskubideen Europako Hitzarmena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Estatutua.

Erkidego mailan, Europar Batasunik kanpo beste Auzitegi nagusi bat aurkitzen da, Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen Europako Auzitegia.

Organoa arautzen duen Estatutuak¹⁴⁰ giza-eskubideak errespetatzearen beharra biltzen du, europar nortasun bezala ulertzen dena. Estatuek erakundearen kide izateko baldintza da¹⁴¹. Errespetatu beharreko araudi guztien arteko testu gorena 1950ko Erromako Hitzarmena¹⁴² eta ondoren onartutako protokoloak lirateke. Honen aplikazioa Estatuaren lurraldetatik harat joan daiteke, hola, Estatuak haien lurraldetik kanpo eragindako ondorioengatik erantzun beharko dute, nahiz eta hirugarren hau Estatu kidea ez izan. Auzitegiak eskumena izango du, esparru-erabakien eta -erabakien baliozkotasunari eta interpretazioari, hitzarmenen interpretazioari eta betearazte-neurrien

¹³⁷ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 19. eta hurrengo artikulua.

¹³⁸ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 43. artikulua.

¹³⁹ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Estatutuaren 44. artikulua.

¹⁴⁰ «BOE» 51. znb., 1978ko maiatzaren 1a, 4840 - 4844 orrialdeak (4 orr.).

¹⁴¹ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Estatutuaren 3. eta 4. artikulua.

¹⁴² Lehen adierazitako Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmena.

baliokotasunari eta interpretazioari buruzko aurreiazko ebazpenak emateko. Munduan lehena izan da automatikoki nahitaezkoa izaten¹⁴³.

Parlamentu Batzarrak aukeratzen ditu epaileak, Estatu bakoitzak proposatutako izenetatik abiatuta. Bederatzi urteko agintaldi ez berriztagarriz hautatzen dira, eta, nahiz eta epaileak Estatuaren izenean hautatuak izan, ez dute hori ordezkatzeko¹⁴⁴.

Prozedimenduak Auzitegiaren Prozedimenduaren inguruko Erregelamenduan¹⁴⁵ azaltzen da. Batzordeak argi eta garbi onartezinak diren kasuak, partikularren salaketak izatekotan, ebazteaz arduratzen dira. Aho batez erabakirik hartzen ez badute, kasua Sala Handira igortzen da. Sala Nagusia hitzarmena interpretatzeko edo aplikatzeko zailtasunak sortzen diren kasuez arduratzen da. Gainera, alderdi bakoitzak aukera du kasua Sala Handira bidaltzea eskatzeko, irizpena eman ondorengo hiru hilabeteetan, beraz, Salak apelazio-azitegiaren antza du. Sala Nagusiaren erabakiak behin betikoak dira¹⁴⁶.

Demanda onartzen denean, osoa edo parte batean, Hitzarmenaren ustezko arau-hauslea den Estatu kideari helaraziko zaio, alegazioak aurkezteko. Epaimahaiak hauek jasotzean, demandatzaileari helaraziko dio alegazioak egin ditzan. Izan ere, paraleloki, Estatuari aukera ematen zaio kasuaren ebazpena adiskidetasunezko akordio batera iristea. Ondoren, bista egin edo epaia zuzenean iradoki dezake. Izan ere, Auzitegiaren ebazpenek ez dituzte Estatuaren jurisdikzioek hartutako erabakiak baliogabetzen¹⁴⁷.

Epaiak batzorde batek ematen duenean, behin betikoak dira. Sala batek emandako epaien aurka errekurtsioa jar daiteke Sala handiaren aurrean, hiru hilabeteko epean, bestela, irmoa izango da. Sala Nagusiak emandako epaien aurka ezin da errekurtsioa aurkeztu. Behin irmoa denean, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordera bidaltzen dira, epaia behar bezala bete dadin kontrolatu dezaten. Hain zuzen ere, alde diren Estatuak epaiak bete beharko dituzte beti, barne-legediak adierazitako prozeduren bidez¹⁴⁸.

¹⁴³ Erromako Hitzarmenaren 35. artikulua.

¹⁴⁴ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Prozedimenduaren inguruko Erregelamenduaren 2, 24, 26, eta 27 artikulua.

¹⁴⁵ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Idazkaritzak 2018ko abuztuaren 1ean onartua.

¹⁴⁶ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Prozedimenduaren inguruko Erregelamenduaren 53, 54, 56. artikulua.

¹⁴⁷ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Prozedimenduaren inguruko Erregelamenduaren 61, 62, 72, 73 eta 80. artikulua.

¹⁴⁸ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. (2008) *Curso de Derecho Internacional Público*, op. cit. 853-854 orr.

Lege aplikagarri nagusia Giza Eskubideen Europako Hitzarmena¹⁴⁹ da. Testu honekin batera, garrantzia handiko beste araudiak eratu egin dira Europako Kontseiluan honen inguruan, hala, Errepresio eta Terrorismoarentzako Hitzarmena¹⁵⁰ edo Torturari eta zigor edo tratu anker edo iraingarriei aurrea hartzeko Europako Hitzarmena¹⁵¹, besteen artean, baina, hauek lirateke nazioarteko zuzenbide humanitarioan, guda eta armen salerosketen ondorioz, garrantzia handiena daukatenak.

3. Estatu mailan.

Estatu Espainiarraren esportazioak Nazioarteko Zuzenbidearen konpromezuekin bat egin behar dute, eta esportazio horiek giza eskubideen urraketa sustatzen ez dutela, gatazka armatuak pizten ez dituztela eta pobrezari modu esanguratsuan laguntzen ez diotela bermatu behar du. Estatuaren Gobernuak ere, batez ere Europar Batasunaren kide izanda, aktiboa izaten dira armen merkataritza nazioartean arautzearen alde.

3.1 53/2007 Legea, abenduaren 28koa, defentsarako eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritza kontrolatzeari buruzkoa.

Atarikoan legearen helburuak adierazten dira. Nazioko eta nazioarteko segurtasunaren ikuspegitik, legez kontrako trafikoa eta ugaritzea geldiarazteko xedearekin onartu zen testu hau, bakearen eta segurtasunaren aurka edo jarduera terroristetan parte har dezaketen Estatuak edo beste eragileak blokeatzeko, betiere, armen legezko merkataritzaren eskakizun legitimoei kalterik egin gabe. Konpromezu horiek betez eta Estatuaren defentsaren eta kanpo-politiken interes orokorrak bermatuz, armen kontrola erregulatzen da.

Esportazioen kontrola autorizazioen bidez baimentzen dira, aurretiko autorizazio-administratiboa eskuratu beharko da, kontrol dokumentu eta berresporazioaren aurkako klausulekin batera aurkeztuz¹⁵². Izan ere, salbuespen bat ezartzen da, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren babesteko, Indar Armatuaren bidez edo Estatu Espainiarreko Segurtasun Indar eta Kidegoekin batera egiten diren edo erabiliko diren defentsa-materiala, bestelako materiala edo erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak, ez eta

¹⁴⁹ «BOE» 243 znb., 1979ko urriaren 10ekoa, 23564 - 23570 orrialdeak (7 orr.).

¹⁵⁰ «BOE» 242. znb., 1980ko urriaren 8a, 22357 - 22360 orrialdeak (4 orr.).

¹⁵¹ «BOE» 159. znb., 1989ko uztailaren 5a, 21152 - 21154 orrialdeak (3 orr.).

¹⁵² 53/2007 Legearen 4. artikulua.

beste herrialde batzuetako armadek lurralde nazionalean Espainiako Indar Armatuekin batera maniobrak egiten dituztenak edo erabiliko dituztenak ere¹⁵³.

Salbuespena ez ematekotan, baina, Estatuko eta nazioarteko interesen eta printzipioen aurka egiten bada, autorizazioa ukatuko da, edo behin eskuratuta eten edo ezeztatu nahi bada, ezeztapen hori bideratzeko argudioak zerrendatzen dira Legean: (1) bakea, egonkortasuna edo segurtasuna asaldatzen duten ekintzetan erabil daitezkeen arazoizko zantzuak daudenean, tentsioak edo ezkutuko gatazkak areagotu ditzaketenak, gizakiari dagokion errespetuaren eta duintasunaren aurka erabil daitezkeenak, barne-errepresioko helburuekin edo giza eskubideen urraketako egoeretan, transferitutako materialen desbideratzeen ebidentziak dituzten herrialdeak jomuga dituztenak edo Estatuak hartutako nazioarteko konpromezuak urratu ditzaketenak; bestalde, (2) defentsa nazionalaren eta Estatuaren kanpo-politikaren interes orokorrak urratzen direnean; gainera, (3) Europar Batasunean adostutako araubideak urratzen dituztenean eta Estatuak sinatu dituen beste nazioarteko xedapen garrantzitsuak; azkenik, (4) Nazioarteko Zuzenbidetik eratorritako mugak urratzen direnean, batez ere Nazio Batuek eta Europar Batasunak agindutako bahiketak¹⁵⁴. Orokortasunak adierazten dituzten egoerak dira, nazioarteko araudiek adierazitako xedapenak errepikatuz, kideen esku erabakia uzten zuten horiek. Berez, Estatu Espainiarrak berriz ere ziurgabetasuna adierazten du debekatzeko interpretazioan.

Kontrol eta gardentasun neurriak biltzen dira. Hasteko, Gobernu Zentralak sei hilean behin Kongresuari azken erreferentzia-aldiko defentsa-materialaren eta erabilera bikoitzeko materialaren esportazioei buruzko informazio egokia bidaliko dio. Bestalde, Gobernuak, Turismo eta Merkataritzako Estatu-idazkariaren bitartez, urtero aurkeztuko da Kongresuko Defentsa Batzordean, azken estatistiken berri emateko. Honek, jasotako informazioaren inguruan irizpena emango du, hurrengo urtean emango diren eragiketei begira gomendioak emanez. Bestalde, Turismo eta Merkataritzako Estatu-idazkariak irizpen horren ondoriozko ekintzen berri emango du urteko agerraldian¹⁵⁵.

¹⁵³ 53/2007 Legearen 5. artikulua.

¹⁵⁴ 53/2007 Legearen 8.1 artikulua.

¹⁵⁵ 53/2007 Legearen 16.1, .2 eta .3 artikulua.

Beraz, kontrol parlamentarioaren mekanismo hau behin esportazio-lizentzia eskuratuta eta materialak helmuga-Estatura bidali eta iritsi direnean ematen da. Hortaz, mekanismoaren eraginkortasun falta eta gardentasun gabezia ikus daiteke.

3.2 Defentsa-Materialaren, Beste Material Batzuen eta Erabilera Bikoitzeko Produktu eta Teknologien Kanpo-Merkataritza Kontrolatzeko Erregelamendua.

53/2007 Legeak, azken eranskinetatik lehenengoan zera ezartzen du, Gobernuak, errege-dekretu bidez, hura garatuko duten Erregelamendu-arauak idatziko du. Urte honetan 414/2022 Errege Dekretua¹⁵⁶ onartu egin da, maiatzaren 31koa, Defentsa-materialaren, Beste Material Batzuen eta Erabilera Bikoitzeko Produktu eta Teknologien Kanpo-Merkataritza Kontrolatzeko Erregelamendua, abuztuaren 1eko 679/2014 Errege Dekretuaren¹⁵⁷ bidez onartua izan zena, eguneratzen duena.

Aipamen berezia egiten zaio Armen Merkataritzari buruzko Hitzarmenari, testuaren 6. eta 7. artikulua aplikatzeko, debekuak eta esportazioen ingurukoak. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak espreski aipatzen dira orain. Eguneraketa honen bidez, Erregelamenduaren 7. artikulua edukiak zera adierazten du: arrazoizko zentzuaren harira, ezinen dira baimenak eskuratu defentsa-materiala, beste materiala edo erabilera bikoitzeko produktuak eta teknologiak erabil badaitezke bakea, egonkortasuna edo segurtasuna eragozten duten ekintzetan mundu- edo eskualde-eremu batean, tentsioak edo ezkutuko gatazkak areagotu ditzaketenean, gizakiek merezi duten errespetuaren eta duintasunaren aurka erabil daitezkeenean, barne-errepresioko helburuekin edo giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriko egoeretan, helmugatzat transferitutako materialen desbideratzeen ebidentzia duten herrialdeak dituztenean edo Espainiak hartutako nazioarteko konpromisoak urra ditzaketenean.

Adierazten den arrazoizko zantzua zehazteko, Estatu Espainiarrak parte hartzen duen nazioarteko erakundeek egindako defentsa-materialaren transferentziei eta eragiketa horien azken helmugari buruzko txostenak kontutan hartuko dira, baita giza eskubideen organoen eta Nazio Batuen beste organismo batzuenak. Bestalde, garapenaren, bakearen eta segurtasunaren, armagabetzearen, desmobilizazioaren eta giza eskubideen arloan ospe

¹⁵⁶ «BOE» 151 znb., 2022ko ekainaren 25, 89223 - 89247 orrialdeak (25 orr.).

¹⁵⁷ «BOE» 207 znb., 2014ko auztailaren 26, 68148 - 68300 orrialdeak (153 orr.).

handia duten ikerketa-erakunde eta -zentroek emandako informazioa. Azkenik, Kontseiluaren 2008/944/ASPE Jarrera Bateratuaren Erabiltzailearen Gidan deskribatutako jardunbide eguneratuagoak, teknologia eta ekipo militarren esportazioak kontrolatzeko arau orokorrak ezartzen dituen.

Autorizazioak eskatzeko hiru fase daude: (1) Erregistro berezian inskripzioa, (2) kontrol dokumentuen aurkezpena eta (3) beharrezko organoari bideratzea.. Behin baimena eskatuta, azken fasea, eskakizuna onartzea eta autorizazioa eskuratzea lirateke. Orokorrean Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa izanen da autorizazioak eskuratzeko eskuduntza dauka. Baina, eskuduntza hau formala da, Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko materialen kanpo-merkataritza arautzen duen Ministerio-Arteko Batzordeak txostena igorri beharko du, loteslea izanen dena. Hortaz, esportazioek esku-hartze administratiboaren menpe daude. Ministerio-Arteko Batzordea, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministeriora erantsita dago, defentsa eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzari lotutako eragiketak ebaluatzen dituen Estatuko organo gorena izanez, autorizazioak baimentzen ditu.

Batzordearen osaerari dagokionez, Presidentea Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko Merkataritzako Estatu Idazkaritzako titularra izanen da. Presidenteordea Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioko Kanpo Arazoetako eta Arazo Orokorretako Estatu Idazkaritzako titularra daukagu. Batzordea osatzen duten beste kideak organo ezberdinen titularrak izanen dira: Kanpo Politikako eta Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusia, Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministeriokoa; Defentsa Ministerioko Armamentu eta Materialen Zuzendaritza Nagusia; Defentsa Ministerioko Inteligentzia Zentro Nazionaleko Inteligentzia Zuzendaritza; Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioaren Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Departamentuko Zuzendaritza; Barne Ministerioko Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusia. 6. Barne Ministerioko Poliziaren Zuzendaritza Nagusia; Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusia; Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioko Idazkaritza Nagusi Teknikoa; azkenik, Jaurlaritzaren Lehendakartzako Segurtasun Nazionaleko Sailaren Zuzendaritza¹⁵⁸.

¹⁵⁸ 414/2022 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua.

Merkantzia-interesen ordezkariak lehenesten dira, ordea, nazioko defentsa eta barne segurtasunari dagokionez, agerpen nimioa. Bestalde, Zuzenbide Humanitario zein kooperazio gaitan eskuduntza daukaten organoen gabezia dago, hots, material adituena gabezia. Nazio Batuen Erakundearen, giza-eskubideen edo organismo multilateralen Zuzendari-Nagusia, Terrorismo Ez-Ugaritze eta Armagabetze Nazioarteko Arazoen Zuzendaritza-Nagusia, edo Nazioarteko Kooperazioaren Estatu-Idazkaritza ordezkatzeko duten horiek falta lirateke. Industria militarra sustatzen duen Estatuaren gobernu-politikak enpresa esportatzaileen interesak lehenesten ditu esportazio-araudiaren bidez.

Politika hori sekretismoaren bitartez babesten da. Berez, esportazio- eta salmenta-eragiketarako sekretutzat sailkatzen dira, Batzordearen akten edukiarekin gertatzen den moduan¹⁵⁹.

3.3 Estatu Sekretuen Legearen proiektua.

Estatu demokratikoaren publizitate printzipioak botere publikoen kudeaketan gardentasuna eskatzen du. Egiazko informazioa libreki jasotzea eta zabaltzea gaitz publikoei dagokien guztiari bereziki aplikatzen dira. Bakarrik modu honetan jardun dezakete komunitate politikoko kideek eskubide osoko herritar gisa eragiten dieten erabakietan. Dokumentu-sailkapena kanpo-politikari buruzko gaitz ugaritara zabaltzea erabaki zuen Ministroen Kontseiluak 2010ean, atzeraeraginez aplikatuz, dokumentazio historikoan eraginez, gehiago zailduko lukeena ezagutza-askatasuna. Informazioarako eskubidearen, gardentasunaren eta sailkapenaren arteko muga problematikoak argitu zituzten, sekretu ofizialen lege berri baten beharra ikusiz, 1968koa ordezkatzuz, Estatuaren nazioarteko konpromezuetara eta demokrazian garatutako arau-ingurunera egokituz¹⁶⁰.

Aitortutako publizitate-printzipioa, 1968ko Legearen ezaugarri garrantzitsuenen artean zegoen. Ezen herritarrek botere publikoen jardunari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea bezala interpretatzen, baizik eta Administrazioaren betebeharrak, ateak irekiak uzten zituenak informazioa Gobernuak egokituz jotzen zuenari aplikatzeko.

¹⁵⁹ MELERO ALONSO, E. (2009). La Administración y el comercio exterior del material de defensa y los productos y tecnologías de doble uso. *Derecho de la regulación económica*, (25. znb.). 808, 809 eta 822-823 orr.

¹⁶⁰ SANZ DÍAZ, C (2023). Seguridad nacional versus libertad de información: la información clasificada y la investigación histórica en España. *Derecom*, 34. liburukia, 99-128 orr. 100-103 orr.

Publizitate-printzipioa asmo adierazpena izan zen, babestutako ondasun juridikoa Estatuak informazio hori kontrolatzeko eta ondoren zabaltzeko duen eskubidea zen¹⁶¹.

1978an erreformatu egin zen Legea, eratzen ari zen Zuzenbide Estatuari egokitzeko. Hala, Estatuaren egintzen publizitate-printzipiotik kanpo utz daitezkeen gaien eremua mugatuz, gai sailkatutzat jotzeko legitimazioa duten agintarien kopurua murriztuz edo epaile eta auzitegien jurisdikzio-kontrola ez eragotziz¹⁶².

Estatu Espainiarrean, desklasifikazioa aldizkakoa izan da. Azken mendean hurrengo deskalifikazioak gauzatu dira: (1) 2004an, urte hartako martxoaren 11n Madrilen izandako atentatuekin lotutako lau dokumentu multzo, Kongresuko Ikerketa Batzordeak eskatuta; (2) 2007an, "CIAren hegaldiei" buruzko Estatuaren Inteligentzia Zentroaren dokumentuak, Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 2. Epategi Zentralak eskatuta; (3) 2009an, Gobernuak Estatuaren Inteligentzia Zentroaren paperen beste desklasifikazio bat erabaki zuen, agenteek edo espioitza zerbitzuaren mendeko langileek egindako txostenak, Cougar helikopteroaren istripuari buruzkoak, 2005an 16 militar espainiar hil zituen; (4) 2009an, Ministro Kontseiluak Ricardo Ortega kazetariaren heriotzari buruzko dokumentazioa desklasifikatu zuen, Estatuaren Inteligentzia Zentroak heriotzaren inguruabarren ikerketak; (5) 2011n, 1976 eta 1983 bitartean Videlaren diktadura militarrean desagertutako espainiarrei buruz Argentinako Enbaxadan eta kotsulatuetan artxibatutako dokumentuak, Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 5. Epategi Zentralak eskatuta, giza eskubideen urraketak argitzeko eta egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko eskubidea babesteko; (6) Estatuaren Inteligentzia Zentroak epailearen baimenik gabe egin zituen entzuketari buruzko dokumentazioa, Emilio Manglano eta Juan Alberto Perote arduradunak zigortuz, 80ko hamarkadan Estatuburua monitorizatzera iritsi baitziren; (7) 2018-2019 tartean, Auzitegi Nazionalak

¹⁶¹ GÓMEZ REINO, E. (1976). El principio de publicidad de la acción del Estado y la técnica de los secretos oficiales. *Revista Española de Derecho Administrativo (REDI)*, (8. znb.), 115-133 orr. 115. orr.

¹⁶² Estatu Sekretuen Legearen 1978ko erreforma: 2. artikulua, "A los efectos de esta Ley podrán ser declaradas "materias clasificadas" los asuntos, actos, documentos, informaciones, datos y objetos cuyo conocimiento por personas no autorizadas pueda dañar o poner en riesgo la seguridad y defensa del Estado.", 4. artikulua: "a calificación a que se refiere el artículo anterior corresponderá exclusivamente, en la esfera de su competencia, al Consejo de Ministros y a la Junta de Jefes de Estado Mayor.", 5. artikulua: "La facultad de calificación a que se refiere el artículo anterior no podrá ser transferida ni delegada.", 10. artikulua: "2. La declaración de "materias clasificadas" no afectará al Congreso de los Diputados ni al Senado, que tendrán siempre acceso a cuanta información reclamen, en la forma que determinen los respectivos Reglamentos y, en su caso, en sesiones secretas." eta 13. artikulua: "Las actividades reservadas por declaración de Ley y las "materias clasificadas" no podrán ser comunicadas, difundidas ni publicadas, ni utilizado su contenido fuera de los límites establecidos por la Ley. El incumplimiento de esta limitación será sancionado, si procediere, conforme a las Leyes penales, y por vía disciplinaria, en su caso, considerándose en este último supuesto la infracción como falta muy grave."

eskatuta, Kitchen operazioko laguntzaileei ordaintzeko erreserbatutako funtsak erabili zirela frogatzen duten dokumentuak, Barne Ministerioak 2011 eta 2015 artean Jorge Fernández Díazek zuzendutako Barcenasi egindako espioitza; azkenik, (8) 2021ean, Barne Ministerioak Urriaren Leheneko Talde Iraultzaile Antifaxistari buruzko dokumentuak, Kadizko Unibertsitateko doktore-tesi bati laguntzeko. Aldizkakotasun, kontraesan gehiegi eragiten ditu Europako beste Estatuarekin konparatuz, non, 25 eta 30 urteko epean publikoak bihurtzen diren. Gainera, herritarrek ere eskubidea daukate desklasifikaziorako prozedimenduak hasteko ¹⁶³.

Lege proiektuak, mahai-inguruan kokatu du sekretuen eztabaida. Estatu Espainiarrak, nazioz gaindiko erakunde ugariaren alderdi da, Konstituzioaren arabera, Estatuaren segurtasunaren eremu materialean integratutako eskumenak partekatzea dakarrena, eta, ondorioz, barne-legedia segurtasunari buruzko nazioarteko testu- lotesleetan ezarritako araudira egokitu eta integratu behar da. Zera dauka xede bezala testuaren proiektuak, baimenik gabe jakinarazteak edo behar ez bezala erabiltzeak kalte egin badezake edo segurtasun edo defentsa nazionala arriskuan jar dezaken informazioari aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzea¹⁶⁴.

Hirugarren artikuluan sailkapen-kategoriak arautuko dira: goi-sekretua, sekretua, konfidentziala eta mugatua, kasu bakoitzean zein sailkapenen aurrean gauden jasoz. Goi sekretuaren sailkapenari dagokionez, garrantzi handiena eta eztabaida gehiena piztu duena da. Babes-maila handiena behar duen informazioari aplikatuko zaio, baldin eta informazio hori baimenik gabe jakinarazteak edo behar ez bezala erabiltzeak mehatxu edo kalte oso larria eragin badiezaieke Estatuaren interesei honako eremuetan: lurralde-subiranotasuna eta -osotasuna; ordena konstituzionala eta segurtasuna; segurtasun nazionala; nazioaren defentsa; segurtasun publikoa eta herritarren bizitza; Estatuaren Indar Armaturen edo horien aliatuen, edo Segurtasun Indar eta Kidegoen gaitasuna edo segurtasuna; inteligentzia- edo informazio-zerbitzuen, edo horien aliatuen, edo Segurtasun Indar eta Kidegoen misio eta eragiketen eraginkortasuna edo segurtasuna; Estatuaren kanpo-harremanak edo nazioarteko tentsio-egoerak; eta izaera estrategikoko interes ekonomiko edo industrialak; eta babes handiena behar duen beste edozein eremu.

¹⁶³ SANZ DÍAZ, C. (2023). Seguridad Nacional versus libertad de información: la información clasificada y la investigación histórica de España, *op. cit.* 112-113. orr.

¹⁶⁴ Estatu Sekretuen Legearen proiektuaren 1.go artikulua.

Sailkapen honen ondorioz, aurreproiektuak aukera emango luke goi-sekretu gisa sailkatutako gaien eremuan informazioa sartzeko, hala nola, Estatuko edo Autonomia-Erkidegoetako segurtasun-indar eta -kidegoek ordena publikoa mantentzeko hartutako neurrien aplikazioari buruzkoa. Gehiegizko diskrezionalitate-ahalmena eskaintzen dio Gobernuari, barne-araubideko gaiak goi-sekretupeko izenpean informaziotik salbuesteko, Estatuaren interes orokorrak babesteko informazio-murrizketaren maila hori beharko ez luketenak. Kolokan jartzen da Estatu-sekretuaren nozioa, botere publikoen egintzen publizitate-printzipioaren salbuespen gisa. Batez ere, ikasgai bat horrela sailkatzen bada, bere desklasifikazioa ez delako izango berrogeita hamar urte igaro arte, baldin eta beste hamabost urtez luzatzen ez bada¹⁶⁵. Gainera, “beste edozein eremu” adierazpenarekin, Gobernua edo Estatuko gainerako organoak erabakitzeke tarte handiegia eskuratzen dio, publizitate-printzipioaren kaltetan¹⁶⁶.

Goi sekretu eta sekretua bezala antzematen den informazioa sailkatzeko, birsailkatzeko eta desklasifikatzeko eskumena Ministroen Kontseiluari dagokio soilik, inolaz ere eskuordetu daitekeena. Bestalde, konfidentzial eta mugatuak bezala sailkatzen diren horien gainean organo askok izanen dute eskumena¹⁶⁷. Berriz ere, defentsa materiak babes berezia bermatuz.

Nahiz eta gardentasunean, kontrolean eta legegintzan aurrerapausoak eman diren Gobernuak urteak daramatza seihileko txostena argitaratzen, eta urtean behin laburpena aurkezten du Kongresuaren aurrean. Izan ere, ezinezkoa da jakitea nola aplikatzen dituen kasu jakin batzuetan armak erabiltzeko arriskua ebaluatzeko irizpideak, giza eskubideen urraketa larriak egiteko edo errazteko, eta zer arrazoik bultzatzen duten armak esportatzeko lizentziak eskuratzera edo ukatzera, gaiak arduratzen den Ministerio arteko Batzordearen erabakiak eta aktak sekretu bezala sailkatzen baitira. Honek, legegileko ordezkariari exekutiboaren ekintza kontrolatzea eta gizarteari funtsezko informazioa eskuratzean mugak ezartzen ditu. Hala nola, 2015ean Saudi Arabiako eta Emiratu Koalizioari egindako arma-salmenta polemikoak, nahiz eta ustezko 300 gerra-krimen baino gehiago akabo eraman, zenbait kasutan Estatuko Airbus hegazkin gisa erabiliz, Yemenen gerra-krimenak egiten lagundu zezaketenak. Beste adibide bat, 2019ean, Estatu

¹⁶⁵ Estatu Sekretuen Legearen proiektuaren 16.1 artikulua.

¹⁶⁶ CARRILLO, M. (2023). Información clasificada: el secreto, como excepción al principio de publicidad de los actos del Estado. *Derecom*, (34. znb.), 21-31 orr, <http://www.derecom.com/derecom/> (azken bisita2023/01/16). 26-27 orr.

¹⁶⁷ Estatu Sekretuen Legearen proiektuaren 4. artikulua.

Espainiarreko Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak atzera bota zuen Centre Delàs egindako eskaera, Tornado borrokarako-hegazkinaren piezak esportatzeko baimenei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, Sekretu Ofizialen Legearen babesean babestutako gaia dela argudiatuz¹⁶⁸.

III. DOHAINTZAK.

Nahiz eta armen salerosketaren inguruan marko juridiko zabala ezarri den, ondasun hauen dohaintzei buruz ez da testurik onartu, ez Estatu barne-legedian ez nazioarteko mailan. Hortaz, dohaintzen araudi orokorrera jo behar da ondasun-transmisio modalitate hau ikertzeko, hutsune larriak aurkezten dituenak.

Dohaintzetan, erabilera bikoitzeko artikulua barnebiltzen dira, hala nola, *drone*-ak, gauez ikusteko betaurrekoak, balen aurkako txalekoak, errifleak eta munizioak, edo doan emandako kabilido-zerbitzuak. Berez, dohainik direnez, ezin dira, printzipioz, salerosketak erregulatzen dituen araudiak erabili, nazioarteko zuzenbide Humanitarioa errespetatzearen kontrolak ezinezkoak bihurtuz.

1. Lege aplikagarria.

Estatu Espainiarraren kasuan, Kode Zibilean¹⁶⁹, dohaintzaren definizioa ezartzen da, hau, pertsona batek bere ondasuna beste bati dohainik transferitzeko kontratua da¹⁷⁰. Zuzenbide pribatua da, pertsonen arteko harremanak arautzen dituenak, ez Estatuaren arteko dohaintzak. 53/2007 Legeak, esportazioei buruz hitz egitean, ez du bakarrik salerosketei buruz aritzen, baizik eta dohaintzei buruz ere¹⁷¹, hortaz, aplikagarria dira kontrol mekanismo guztiak.

Ondasun publikoen dohaintzei dagokienez, kontutan hartu behar da hauek Estatuaren jabetzakoak direla eta haien administrazio zein mantentzea bere kargura daudela. Beraz, Estatu emaileak baimendu behar du ondasun publikoak beste Estatu edo erakunde bati dohaintzan ematea, berariazko araudi eta murrizketen mende geratuz. Azken adierazpen honek ez da araudietan azaltzen, baina, Estatu Espainiarraren araudi

¹⁶⁸ ESTÉVEZ, A. (2023). ¿A quién le importan lo Secretos Oficiales que matan? *Amnistía Internacional*. <https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/blog/historia/articulo/a-quien-le-importan-los-secretos-oficiales-que-matan/> (azken bisita 2024/01/03).

¹⁶⁹ «Gaceta de Madrid» 206 znb., 1889ko uztailaren 25ekoa.

¹⁷⁰ Kode Zibilaren 618. artikulua.

¹⁷¹ 53/2007. 1.go artikulua.

orokorraren bidez ondorioztatu daiteke, 33/2003 Legean¹⁷² hain zuzen ere, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.

Hortaz, ez dago Estatu arteko ondare publikoaren armamentu-dohaintzak arautzen dituen espainiar araudi zehatzik, hala ere, araudi orokorraren bidez zera konkluditu daiteke, dohaintza oro Estatu emaileak baimendu behar du, salerosketekin gertatzen den moduan. Ondasun horiek atzerriko Estatuari eta nazioarteko erakundeei laga ahal izango zaizkie, betiere lagapen hori bakeari eusteko, polizia-lankidetzarako edo laguntza humanitariorako eragiketen esparruan egiten bada, eta jarduera horien berezko helburuak gauzatzeko egiten bada¹⁷³.

Nazioarteko mailan, Europar Batasunaren Estatu Kideentzat, Erroma I Erregelamendua¹⁷⁴ lirake lege aplikagarria, izan ere, pertsonen arteko dohaintzen inguruan aipatzen da ere. Berez, zailtasunak aurkitzen dira, ez bakarrik hauen salmentak nazioarteko itunak edo hitzarmenak babesten dituzten printzipioak bermatzeko, baizik eta, dohaintzei buruz inolako erregulazio zehatzik ez izatean, transmisio hauek zinez kontrolatzeko bideak okertuz gain, egiaztapena ezinezkoa bihurtzen da.

Baina, beste nazioarteko erakundeei dagokionez, ezer ez da aipatzen, kritikarik jaso egin ez duena, ez Estatuaren parte, ez beste organismo edo taldeen parte, azpimarratzeko lirakeena, kontutan hartuz armak gudak gauzatzen ari diren lurraldeetara iristeko beste modu bat direla.

2. *Government to Government* kontratuen modalitatea.

Ondasunak transmititzeko beste bide bat G2G (edo *Government to Government*) kontratuak lirake. Hauen bidez, Estatu baten gobernuak beste Estatu baten gobernu batekin kontratazio bat egiten duenean sinatzen dira, ondasunak eskuratzeko, zerbitzuak kontratatuzko, proiektuak edo obrak gauzatzeko, kudeatzeko, garatzeko edo operatzeko. Kontratututako Estatuak egin ditzake, bere erakunde, bulego, enpresa publiko edo pribatu nazional edo atzeritarren bitartez¹⁷⁵.

Kontratu horien ezaugarri nagusia zera lirake, Estatuaren kontratazioaren ohiko arauak betetzeko beharra desagertzen da. Horren ordez, gobernuen artean zuzenean egiten

¹⁷² «BOE» 264znb., 2003ko apirilaren 11koa.

¹⁷³ 33/2003 Legearen 145. artikulua.

¹⁷⁴ «DOUE» 177 znb., 2008ko uztailaren 4koa, 6 - 16 orrialdeak (11 orr.).

¹⁷⁵ HANNA, K. T. What is Government to Government (G2G)? *WhatIs*. <https://www.techtarget.com/whatis/definition/government-to-government-G2G> (azken bisita 2024/01/03).

den hautaketa-prozesu azkarrago bat jarraitzen da. Hautaketa-prozedura hauek arintzen dituzte zorrozatasuna alde batera utzi gabe, hautatutako hornitzaileen ez-betetzeen arriskuak arinduz, hornitzaileekin negoziatzeko gaitasuna handituz, kalitate hobeko eta herrialdearentzat onura gehiago dakarten eskaintzak eskuratzea ahalbidetzeko aukera ematen duena, eta berrikuntza eta ezagutzak helmugako Estatuari transferitzea gertatzea sustatuz zein garatuz¹⁷⁶.

Kontratu hauek, Erroma I Erregelamenduaren araubidetik kanpo aurkitzen dira, salerosketak baitira. Baina, Europar Batasuneko zuzenbideak, erregulazio berezi bat eratu egin zuen kontratu hauentzat. Defentsaren eta Segurtasunaren arloan, Gobernuen eta administrazioen arteko kontratuen esleipenari buruzko Ohar Orientagarria¹⁷⁷ onartu zen. Honetan, 2009/81/EC Zuzentarauaren¹⁷⁸ 13. artikulua f atalean oinarri duena, jarraian azalduko dena.

Estatu hornitzaileek baimenak autorizatu ahal izateko kontutan izan beharko duen minimoa adierazten du. Europaren defentsaren oinarri industrial eta teknologikoa indartzeko, ezinbestekoa da defentsa-ekipoen merkatu europarra, hau sustatuz eta garatuz, mantentzeko premian, gaitasunak bultzatuta eta lehiakorra izan dadin. Helburu hori lortzeko, Estatu kideek hainbat tresna erabil ditzakete, Europar Batasuneko Zuzenbidearekin bat etorritik, defentsa-taldeek benetako merkatu europarra eta baldintza-berdintasuna helburu dutenak, bai Europan, bai munduan zehar.

Kontratu bat beste gobernu bati esleitzeko erabakiak hartu aurretik, azterketa egokia egin beharko du. Zehaztu beharko litzateke lehiarik ez dagoen edo ezinezkoa den, edo, aitzitik, kontraturako lehia egon daitekeela ematen duen. Botere esleitzzaileek erabaki ahal izango dute beren azterketa barne-merkatura mugatzen duten. Azterketa dokumentatu beharko lukete, hala eskatzen zaienean, beren erabakiak justifikatuta daudela frogatu ahal izan dezaten, justifikazio-dokumentaziotik abiatuta. Honek kontrol mekanismotzat hartzen da.

Baina, azalduko araudia Europar Batasuneko Estatu Kideentzat zuzentzen da, hortaz, Erakunde honetatik kanpo dauden Estatuaren inguruan, europar zuzenbideak ez du

¹⁷⁶ CCC (2022). What is Government to Government (G2G) contracting. *The Canadian Commercial Corporation*. <https://www.ccc.ca/en/insights-for-exporters/what-is-government-to-government-g2g-contracting/> (azken bisita 2024/01/03).

¹⁷⁷ DOUE C 450/1 2016ko abenduaren 2koa.

¹⁷⁸ «DOUE» 216 znb., 2009ko abuztuaren 20koa, 76 – 136 orrialdeak (61 orr.)

ezer erregulatu momentuz, beraz, kontrol mekanismoak ez dira aplikagarriak. Gainera, badaude egoerak zeinetan dohaintzak G2G kontratuak bezala aurkezten direnak, kontrol hau alde batera utzi ahal izateko.

3. Salaketa hutsa.

Mundu mailan, giza eskubideen defendatzaileak herritarrak izan dira askotan, edo hauek eraturako taldeak, ez gobernu-ordezkariek, errealitate bat baita zuzenbidea gizartearen atzetik bilakatuz doala. Bereziki, Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) lehen mailako zeregina izan dute nazioarteko komunitateak giza eskubideen inguruko gaietan ematen duen arreta zuzentzean, hala nola, International Amnesty edo UNICEF lan sendoa egin dute hauek aldarrikatzeko.

GKEek gobernuen eta erakundeen ekintzen jarraipena egiten dute askotan, hauek bultzatzen dituzte giza eskubideen printzipioen arabera jarduteko eta hauek errespetatzeko, hau da, egintzak zein omisioak salatzen dituzte injustizia egoeratan edo zuzenbidea aplikatzen ez denean¹⁷⁹.

Izan ere, nahiz eta hauek Gobernuen ekintzak edo utzikeriak salatzen dituzten taldeak izan, GKEen diru-sarrera nagusiak Gobernuetatik eskuratzen dituzte. Nazioarteko erakundeek rol garrantzitsua daukate hauen finantzaketan. Hainbat erakundek, hala nola Europar Batasunak edo Nazio Batuen Erakundeak – hauek eraturako beste erakunde asko kontutan izanda- , funtsak bideratzen dituzte GKEek herrialde pobreetan akabo eramaten dituzten ekimenei laguntzeko. Estatu Espainiarraren kasuan, autonomia-erkidegoek, udalek eta Gobernu zentralak berak beren aurrekontuaren zati bat bideratzen dute erakunde horiei ekonomikoki laguntzeko¹⁸⁰.

Armen salerosketen inguruan eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin gertatzen ez den bezala, non nazioarteko zein tokiko araudiak dauden – nahiz eta marko juridikoak irmotasun falta zeinbaitetan aurkeztu –, ez daude salaketarik gobernuen edo erakundeen ekintzei zein omisioei dagokienez, zeinak, egun, Ukrainan gertatzen ari den gudan erabakigarriak diren, mundu osoko Estatuak armak dohaintzen ari dizkiote eta. Bestalde, zalantzazkoa lirateke gobernuak baimenak eskuratzeko kontrol eta jarraibide

¹⁷⁹ Unidos por los Derechos Humanos. *Organizaciones No Gubernamentales*. <https://www.unidosporlosderechoshumanos.es/voices-for-human-rights/human-rights-organizations/non-governmental.html> (azken bisita 2024/01/03).

¹⁸⁰ Acción contra el Hambre. *Cómo se financia una ONG?* <https://www.accioncontraelhambre.org/es/como-se-financia-ong> (azken bisita 2024/01/03).

guztiak bete izatea, gogoan hartuz, gerra hasi eta hurrengo asterako tropak eta armamentuak Ukrainara iritsi zirela, baita Estatu Espainiarraren aldetik. Horrela, Ukrainak eskuratutako defentsa materialen esportazio baimenduak 30 lizentziaren bidez 309.834.020 euroko balioa daukaten armamentua bidali egin du Estatuak, izan ere, 2022. Urtean gertatutako transmisioei dagokie zenbaki hauek, 2023. urteko estatistikak ez baitira argitaratu oraindik¹⁸¹.

IV. EGUNGO ERAGOZPENAK.

Guda giza eskubideen aurkari nagusia da. Honek aurrera eramateak bermatzen duenak armen salerosketak eta dohaintzak dira. Armen merkataritzaren garapenarekin, geroz eta gehiago saldu dira, gerra ugari sortuz, berpiztuz edo iraunaraziz. Horrek ondorioak ekarri ditu, batez ere lurralde horietako herritarren bizitzeari dagokienez, nazioarteko komunitatea Zuzenbide Humanitarioaren inguruan polarizatuz.

1. Ukrainako guda.

Aurreko mendearen bigarren erdialdeko bi potentzia hegemoniko handienetako bat baztertuta sentitu da, mendebaldeko gutxiespenen ondorioz, geraldian zegoen botere sobietarraren eta segurtasunaren beldur. Errusiak alde batera ikusten du bere burua. 2008an Georgiaren eta 2014an Krimearen testuinguruak, ebidentzia argiak izan dira gerta zitezkeenaren inguruan. Hala eta guztiz ere, ez Estatuak, ez Europar Batasunak, ez NATOk, ez dira saiatu ere egin adiskidetze-, elkarrizketa- zein lankidetzaz- neurriak hartzen, europar lurraldean nazioarteko segurtasuna bermatzeko beharrezkoak izan zitezkeenak. Hitz batean laburbilduz, nagikeria nabarmendu da¹⁸².

Aurrekari bezala, NATOk hedatu egin zen zonalde komunista batzen zuten Estatu askoren sarrerarekin, ezinegona sortu zuena Errusian. 1999an, Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren baimenik gabe Kosovoko serbiar eskualdean

¹⁸¹ Defentsa-materialen, beste material batzuen eta erabilera bikoitzeko produktu eta teknologien esportazioari buruzko Espainiako Estatistikak (2022) Ukrainaren inguruko esportazioak. https://comercio.gob.es/ImportacionExportacion/Informes_Estadisticas/Material%20Defansa%20Doble%20Uso/2022/INFORMEESTAD%C3%8DSTICAS2022.pdf (azken bisita 2024/01/12). 13. eta 55. orr. Hala nola, Ebaren parte ez diren herrialdetan, NATOr egindako esportazioen artean Ukrainak 31,3 milioi euroko transmisioa jasan du, granadak, obusak, 7,62 mm-ko metrailagailuak, 155 mm-ko tiroak, 7,62 mm-ko tiroak, 12,7 mm-ko tiroak, hainbat kalibretako armen urruneko kontrol-sistemak, mortero-hodiaren maketa eta 120 mm-ko mortero-granadak, kaskoak, balen aurka babesteko txalekoak, uniformeak, NBQ babes-ekipamenduak eta dosimetroak, garraiorako ibilgailuak eta ibilgailuetarako pneumatikoak eskuratuz.

¹⁸² PONS RAFOLS, X. (2022). La Guerra de Ucrania, las Naciones Unidas y el Derecho Internacional: algunas certezas sistémicas insostenibles. *Revista Electrónica de Estudios Internacionales (REEI)*, (43. znb.). 30. orr.

albanokosovarren giza eskubideak babesteko xedez, Jugoslavia bonbardatzea erabaki zuen NATOk. Behin amore eman zutenean, erresistentziarik gabe okupatu egin zen, eta, 2008ko otsailean albanokosovar herritarren batzar baten bidez – jatorrizko serbiarren parte-hartzerik gabe – Serbiarekiko independentzia aldarrikatu zuten¹⁸³.

Gertakari honek, Errusiarentzat, giza eskubideen eta herritarren erabaki askeari buruzko irakaskuntza da. 2008an bere eskutik aplikatuz Georgia inbaditzean. Errusiar gutxiengoa babestu zuen eta erabaki askerako eskubidea eman zien. Momentu hartan, NATOk Georgiari, Moldaviari eta Ukrainari erakundean sartuko zirela promes egin zien, ondorioz, Errusiak, 2014an, Donbass eskualdeko zati handi bat inbaditu egin zuen. Europar Batasuneko Atzerri eta Segurtasun Gaietarako goi-ordezkariek elkartze-akordio bat negoziatzen hasi zen, Ukrainako presidente errusiazalearen erorketa bultzatuz, baina, mendebaldearen aldeko presidente berriaren aukeraketarekin - euromaidaneko¹⁸⁴ manifestazioari gehituz - herrialdea ezegonkortu zen. Bestetik, Krimean erreferenduma egin zuten, Errusiar mapari eranstea. NATOk Kosovoko lurraldean Jugoslaviari egindako erasoak Putinek behin eta berriz erabili egin ditu argudio moduan, erasotzeko, independentzia antolatzeko edo anexionatzeko, oroimen historikoa, esaterako¹⁸⁵. Anexioa, militarki aldi baterako okupatutako lurraldea da, liskarren amaierarekin amaitzen dena, okupatzailearen lurraldean sartu ezin direnak. Horrela adierazi du ere Batzar Nagusiak, Estatu baten lurraldeak beste Estatu bateko lurrak mehatxuaren edo indarraren ondorioz eskuratzea, ezinen da legekotzat hartu¹⁸⁶.

2022ko otsailaren 24an, Bielorrusiar zein Errusiar lurraldetatik, errusiar tropen bidez, inbasio masibo bat hasi zen Ukrainan. Eraso honek, Ukrainaren lurralde-osotasunerako eta independentzia politikorako eskubidea urratzen du. Indar armatuaren erabileraren edo mehatxuaren debekua arau inperatiboa da, ikusitako bi salbuespenekin. Berez, Errusiak, erasoaren momentuan ez zen Gutunak biltzen duen egoeran aurkitzen. Ezin da defentsa legitimotzat hartu, erasoak Errusiak hasi zuelako. Bigarren salbuespenari

¹⁸³ SÁNCHEZ HERRÁEZ, P. (2018). Kosovo, año 10... y? *Instituto Español de Estudios Estratégicos (IEEE)*, (21. znb). 4 eta 16 orr.

¹⁸⁴ Euromaidan, ukrainar europazaleak, independentistak eta nazionalistak izan ziren manifestazio istiluei emandako izena. Europar Batasunera hubiltzeko eskaera zeukaten xede. <https://www.diariosigloxxi.com/texto-diario/mostrar/3348259/revolucion-euromaidan-rebelion-popular-conmovio-geopolitica-europea> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁸⁵ MANGAS MARTÍN, A. (2022). Guerra en Ucrania: perspectiva jurídico-internacional, *Actualidad jurídica Uría Mendéndez*, (60. znb.), 9-25 orr. 11. orr.

¹⁸⁶ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 2625 (XXV) erabakia. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/RESOLUTION/GEN/NR0/352/86/PDF/NR035286.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

dagokionez, otsailaren 24ean Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zera jakinarazi egin zion: Gutunaren 51. Artikuluan oinarritutako operazio berezi baten bidez – defentsa legitimoa euskarri zuena - Ukrainaren genozidioari amaiera emateko asmoa zuela. Baina, jakinarazpen honek, ez da beharrezkoa den Segurtasun Kontseiluko baimena¹⁸⁷.

Ukrainar-Errusiar gudak nazioarteko gerra bat da, orain arte, irismen geografiko mugatuta izan duena ukrainar lurraldean. Bestalde, arlo ekonomiko, sozial, politiko eta finantzarioa, mundu mailako irismena du. Gutxi balitz, aukera militar ez-ohikoak erabiltzeko mehatxuak aurkeztu da, hala nola, arma nuklearren erabilera¹⁸⁸. Errusiaren ekimenak eraso edo agresio gisa aitortu du, ez defentsa. Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak adierazi egin zuenez, Estatu batek, Gutunaren kontra, indar armatua lehena erabiltzen bada, eraso-ekintza baten *prima facie* frogatzat hartuko da. Nahiz eta gerra-adierazpenik ez egon, Estatu baten indar armatuek beste Estatu baten lurraldea inbaditzea zein erasotzea, edo horren ondoriozko okupazio militar oro, aldi baterako izan arren, edo beste Estatu baten lurraldea edo haren zati bat indarraren bidez anexionatzea, agresio bat izanen da¹⁸⁹. Errusiak, Batzar Nagusiak adierazitako hiru legez kontrako ekintzak aurrera eraman ditu: Ukrainako lurraldearen inbasioa, okupazioa eta anexioa, Gutunaren 1.1 artikulua barnebiltzen duen hori modu zuzenean oztopatzen duena.

Betebehar honen urratzeak ondorio bereziak eta betebehar zehatzak dakartzkie Estatu guztiei, ez bakarrik erasotzaileari eta erasotuari. Horrela adierazten du Estatuak Nazioartean Legez Aurkako Gertaerengatik duen Erantzukizunari buruzko artikuluen proiektuak¹⁹⁰. Nazioarteko Zuzenbide orokorreko aginduzko eratorritako betebeharren urraketa larriei dagokienez, Estatuak, elkarlanean jardun behar dute, zilegiak diren bitartekoen bidez, urraketak –betebeharrak modu nabarmenean edo sistematikoan ez betez - geldiarazi ahal izateko. Ezein Estatu ez du onartuko zilegi denik urraketa larri baten ondorioz sortutako egoerarik, egoera horri eusteko laguntza ez eskainiz¹⁹¹.

¹⁸⁷ MANGAS MARTÍN, A. (2022). Guerra en Ucrania: perspectiva jurídico-internacional, *op. cit.* 13. orr

¹⁸⁸ MANGAS MARTÍN, A. (2022). Guerra en Ucrania: perspectiva jurídico-internacional. *op. cit.* 12. orr.

¹⁸⁹ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 3314 (XXIX) erabakia “Definición de agresión”. <https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2007/5517.pdf> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹⁰ Estatuak Nazioartean Legez Aurkako Gertaerengatik duen Erantzukizunari buruzko artikuluen proiektua, Nazioarteko Justizia Auzitegiak onartu egin zuen bere 53º bilkura-aldian (A/56/10) eta Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak 56/83 Ebazpenean erantsitakoa, 2001eko abenduaren 12koa. https://www.iri.edu.ar/publicaciones_iri/manual/responsabilidad/Proyecto%20de%20Art%EDculos%20so bre%20RESPONSABILIDAD%20DEL%20ESTADO%20POR%20HECHOS%20INTERNACIONALM ENTE%20IL%20CDCITOS.pdf (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹¹ Estatuak Nazioartean Legez Aurkako Gertaerengatik duen Erantzukizunari buruzko artikuluen proiektuaren 40. eta 41. artikulua.

Erasoak, modu automatikoan Nazio Batuen Erakundearen sistemak piztu egin zituen. Segurtasun Kontseiluak ebazpen proiektu bat idatzi egin zuen¹⁹², baina, Errusiaren betoaren ondorioz ez zen onartu. Organo honetatik eratorritako gutxiengo adostasuna lortu zuen testu bakarria Segurtasun Kontseiluaren Presidenteak egindako adierazpen¹⁹³ bat izan zen, kide guztiek adostu egin zutena. Aitorpenaren edukia nimioa izan zen, Ukrainak bere segurtasun eta bakea mantentzeko kezka sakona adieraziz. Estatu Kideek, Erakundean sartzean, eztabaidak modu baketsuan konpontzeko betebeharra hartu zutela gogoraraziz. Baina, diplomazia-politiko hutsa lirateke, ez loteslea¹⁹⁴.

Kontseiluaren eragina betoarengatik segurtasuna eta bakea mantentzeko saiakerak mugatuak ikusten direnean, Batzar Nagusiak era subsidiarioan esku hartzen du egoera lausotzeko. Kontseiluak, Batza Nagusiaren ezohiko larrialdi-aldirako deialdia egin zuen¹⁹⁵, aurrera eraman zena. Agresioa deitoratu zen, indarraren erabilera gelditzeko eskatuz eta Giza-Eskubideen Kontseiluan parte izateko eskubidea suspenditu zioten¹⁹⁶.

Gatazka armatua pizgarri garrantzitsua izan da nazioarteko justizia penalaren sistemarentzat. Ukrainak 2022ko otsailaren 27an aurkeztu zuen demandarekin batera, Nazioarteko Zigor Gortearen aurrean kautelazko neurriak proposatu zituen. Errusiak prozeduran parte hartu ez duen arren, hauek akabo eramateko agindua eman du Gorteak. Gerra eta gizateriaren aurkako krimen larriak egin direla eta egiten jarraitzen dela egiaztatzea, genozidio-krimenak kontutan izateko printzipioak suspertuz¹⁹⁷.

Ukrainaren legitimazioaren hastapena, 1948ko Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioan¹⁹⁸ dago, bi Estatuak parte baitira. Okupatutako eremuetan ukrainar jatorriko pertsonen gaineko genozidio ekintzak leporatzen dizkio Errusiari.

¹⁹² Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/2022/155 erabakia, 2022ko otsailaren 25ekoa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N22/271/07/PDF/N2227107.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹³ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren Presidentearen S/PRST/2022/3 deklarazioa, 2022ko maiatzaren 6koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N22/341/96/PDF/N2234196.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹⁴ PONS RAFOLS, X. (2022). La Guerra de Ucrania, las Naciones Unidas y el Derecho Internacional: algunas certezas sistémicas insostenibles, *op. cit.* 15. orr.

¹⁹⁵ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren 2623/2022 erabakiaren bidez deialdia egin zen <https://digitallibrary.un.org/record/3958807?ln=es> (azken bisita 2024/01/12); eta Batzar Nagusiaren A/ES-11/L1 erabakiaren bidez ezohiko larrialdia onartu zen <https://digitallibrary.un.org/record/3965290?ln=es> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹⁶ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren ES-11/3 erabakia, 2022ko apirilaren 7koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N22/312/47/PDF/N2231247.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹⁷ Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Agindua, 2022ko martxoaren 16koa. <https://www.icj-cij.org/public/files/case-related/182/182-20220316-ORD-01-00-EN.pdf> (azken bisita 2024/01/12).

¹⁹⁸ «BOE» 34 znb., 1969ko otsailaren 8koa, 1944 – 1945 orrialdeak (2 orr.).

Ukrainaren alegazio lehun bat erabakigarria izan zen: Errusiaren tesia egiazkoa izan arren – oroimen historiko gisa -, Genozidioari buruzko Konbentzioak ez du inongo Estaturik indar armatua erabiltzeko eskubidea jasotzen. Ukrainak, Errusia bere gain operazio militarrik ez egiteko eskubidea dauka eta, horregatik, hauek eteteko agindua ezarri zuen kautelazko neurri bezala. Nolanahi ere, gerrak jarraitu egin du ordutik, eta Errusiak Gorteak ezarritako neurriak betetzeko itxaropen gutxirekin.

Testuinguru honetan, Nazioarteko Zigor Gorteak bere zeregin nagusia berreskuratu du nazioarteko justizia penalean. Estatuak, berriz ere ikusi dute nazioarteko zuzenbideko krimen larrienen zigorgabetasunaren aurka borrokatzeko tresna baliagarria dela. Nazioarteko komunitatearen babesa jaso du, eta, aldi berean, nazioarteko krimenak epaitzeko erreferentziazko jurisdikzio gisa duen posizioa sendotzeko aukera ematen dion erronka bati arin erantzuteko kemena baieztatuz. Hala ere, Ukrainako egoera berezia zein konplexua, Gortearen ekintza zuhurtziaz begiratzera behartzen du, sinesgarritasunari eta legitimitateari kalte egin liezaioketen itxaropen ez-errealistak saihesteko¹⁹⁹.

Izan ere, Auzitegiak ez du eskumenik bi Estatu hauen arteko eraso-krimena epaitzeko, gainera, zailtasun handiak izango ditu ordezkari errusiarrak epaitzeko, baita gerra edo gizateriaren aurkako krimenengatik ere. Hauek, ez dira Gorteak aurre egin beharko dien zailtasun bakarrak, ezta nagusiak ere. Aitzitik, gatazka armatuaren testuinguruan ikertzea, independentzia bermatzea eta gatazkan dauden alderdietako batekiko balizko partzialtasun-itzala saihestea, ikerketa-mekanismoak eta hirugarrenetikiko lankidetzak aktiboa indartzea eta osagarritasun-eredu egokia definitzea dira. Adierazi bezala, aukera handia aurkezten da Estatuak Gortearengan daukaten konfiantza indartzeko, etorkizunean finkatutako nazioarteko justizia penaleko sistemari jokatzean egokituko zaion papera indartzeko²⁰⁰.

Nazio Batuen beste organoen betearazte-faltak, argi eta garbi, Erakunde honen flotazio-lerroaren aurkako eraso da, eta haren eraginkortasuna zalantzan jartzen du. Baina, termino politikoetan Segurtasun Kontseiluaren ekintza ezinezkoa izan bada ere, Batzar Nagusiaren ekintza gomendiozkoa baino ez bada ere, eta Gorteak hartutako kautelazko neurriak nekez beteko badira ere, Nazio Batuek beren laguntza-mekanismo

¹⁹⁹ ESCOBAR HERNÁNDEZ, C. (2022). Ucrania y la Corte Penal Internacional: una oportunidad para la Corte y para la lucha contra la impunidad. *Revista Española de Derecho Internacional (REDI)*, 74. liburukia (2. znb.) 57-76 orr. 62, 63, eta 69 orr.

²⁰⁰ ESCOBAR HERNÁNDEZ, C. (2022). Ucrania y la Corte Penal Internacional: una oportunidad para la Corte y para la lucha contra la impunidad, *op. cit.* 70-73 orr.

guztiak aktibatu dituzte, eta agentzia humanitarioak tokian bertan daude, finantza-laguntza eta laguntza humanitarioa emanez, gobernuz kanpoko erakunde asko egiten ari diren bezala. Azken batean, berak jartzen ditu giza baliabideak²⁰¹.

Nazio Batuen Erakundearen eragina betoarengatik blokeatuta - edo aldi baterako geldiarazita Gorteari dagokionez - ikustean, Europar Batasunak esku sartzea erabaki zuen zehapenekin, baina, Estatu guztiek ez dauzkate hauek jarraitzeko edo ezartzeko biderik, bakoitzaren garapen ekonomikoa dela eta, hala nola, Hego eta Erdi Amerikar, Asiar edo Afrikar zonaldeak. Bestalde, Europako Kontseiluan, Ministroen Batzordeak bere eskubideak etetea erabaki zuen, eta, sei hilabetera, Errusiak Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren parte izateari utzi zion 2022ko irailaren 16an. Izan ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eskumena dauka Errusiaren aurkako demandak tratatzeko, baldin eta demanda horiek adierazitako egunean baino lehen gertatutako egite edo ez-egiteei buruzkoak badira. 2023ren erdialdean - azken datu zehatzak - 17.450 demanda aurkeztuta zeuden. Oraindik ere, juridikoki loteslea den betebeharra mantentzen da jadanik erabakitako Auzitegiaren epaiak betearazteko. Gainera, Ministroen Batzordeak hari buruzko epai eta adiskidetasunezko akordioen betearazpena gainbegiratzeko jarraituko du ere. Hortaz, nahiz eta sistema honetatik bereizi egin den, lotuta jarraitzen du²⁰².

Europar Batasunaren gabezia larriak eta aurreikuspen estrategikoak argi ikusi dira. Eraso honek 1945etik nazioarteko segurtasunaren aurkako mehatxurik handiena daukagu, existentzialak izaten ari diren eta oraindik ere astunagoak izanen diren ondorioak aurkeztuz. Europar Batasuna ahuldu egin da, bere asmo estrategikoak hautsiz, berriz ere Amerikako Estatu Batuen menpe geldituz. Ezerk ez du eragozten²⁰³.

Zeinbat Estatuak eraso egoerarekin nahastea erabaki dute, ez bakarrik nazioarteko erakundeek ezarritako zehapenak atxikituz, baizik eta hainbat motatako laguntza eskainiz, hala nola, kontrol legalik gabeko dohaintzak, neutraltasuna alde batera utziz. Erasoak jasan duen edozein Estatu nazioarteko laguntza eskatzeko eta lortzeko eskubidea dauka, bere onuran eta Nazioarteko komunitateren interesak babesteko²⁰⁴. Izan ere, eraso bati erantzun kolektiboa eta instituzionala aurkezten dituen egiturazko ahuleziak

²⁰¹ PONS RAFOLS, X. (2022). La Guerra de Ucrania, las Naciones Unidas y el Derecho Internacional: algunas certezas sistémicas insostenibles, *op. cit.* 18. orr.

²⁰² COUNCIL OF EUROPE (2022). *Russia ceases to be party to the European Convention on Human Rights*. <https://www.coe.int/en/web/portal/-/russia-ceases-to-be-party-to-the-european-convention-on-human-rights> (azken bisita 2024/01/12).

²⁰³ MANGAS MARTÍN, A. (2022). Guerra en Ucrania: perspectiva jurídico-internacional, *op. cit.* 24.orr.

²⁰⁴ MANGAS MARTÍN, A. (2022). Guerra en Ucrania: perspectiva jurídico-internacional, *op. cit.* 17. orr.

hondamendi humanitarioan itzultzen dira, batez ere beto eskubideak dauzkaten Estatuetan jomuga ezartzen bada, arma nuklearrak manipulatzeko gaitasuna dauzkatenek, hau da, gehiegizko babesaren faktoreaz ahalbidetzen diren horiek²⁰⁵.

Jadanik ondorio konponezinak agertu diren arren, ezerk ez du eragozten Europako segurtasun kolektiboei buruzko negoziazioetara itzultzea. Europar Batasunak - edo mendebaldeak talde bateratu moduan - edozein su-eten egiteko aukeraz probestu beharko da. Errusiak berak irtenbidearen parte izatea hoberena lirateke, agresioa geldiaraziz, indar armatuen atzera-egitea erabakiz eta akabo eramandako legez kontrako ekintza guztiengatik erantzunkizule bihurtuz²⁰⁶.

Bukatzeko, adieraztekoa, nahiz eta Errusiak arma nuklearren erabileraren mehatxu egin duen, oraindik ere, Nazio Batuen Erakundearen negoziazio mailan mantentzen da, estatubatuar espazioaren gainetik hilabetero hegan egiten ari baitu, nahiz eta Errusiar ordezkariak eta bestelako funtzionario edo goi-kargu militar debekatuta izan haien lurra edo aireko espaziotik sartzea zein pasatzea²⁰⁷. Izan ere, irudi diplomatikoen immunitateak, Vienako 1961ko Hitzarmenaren²⁰⁸ harira, baimena eskuratzen duela estatubatuar lurraldean egoteko²⁰⁹.

Adierazitako azken egoera kontutan izanda, zera konkluditu daiteke, Amerikako Estatu Batuek oraindik hain garrantzia handiko figura bere lurraldean sartzeko baimena mantentzen dute ez diplomazia hutsarengatik, baizik eta negoziaziorako bidea ikusten dutelako seguraski. Baina, Errusiaren mugimendu militarrek ikusita, guda mantentzen ari du Ukrainak daukan dependentziarengatik. Hau da, konfliktoak luze jarraitzen badu, Estatuak honi dohaintzak edo laguntzak traspasatzeari utziko diote, sostegaezina baita, batez ere beharrezkoak diren errekurso ekonomikoei dagokienez. Badirudi Errusiaren plana hori dela, Ukrainak babesten duten Estatuak nekatzea. Bestalde, Ukrainaren plana guda mantentzea dela dirudi, Errusiak bere baliabideak hunkituak ikusi arte, gerra mantentzeko kosta altuak baitira, errenditzea, lurraldeak desokupatzea eta berriz ere Ukrainak boterea izatea. Ukrainak ez dauka beharrezko baliabidean Errusia bezalako

²⁰⁵ PONS RAFOLS, X. (2022). La Guerra de Ucrania, las Naciones Unidas y el Derecho Internacional: algunas certezas sistémicas insostenibles, *op. cit.* 1. orr.

²⁰⁶ PONS RAFOLS, X. (2022). La Guerra de Ucrania, las Naciones Unidas y el Derecho Internacional: algunas certezas sistémicas insostenibles, *op. cit.* 13. orr.

²⁰⁷ FINANCIAL TIMES (2022). La “lista negra” de personas y entidades rusas sancionadas por la invasión a Ucrania. *Diario Financiero*. <https://www.df.cl/internacional/ft-espanol/la-lista-negra-de-personas-y-entidades-rusas-sancionadas-por-la> (azken bisita 2024/01/12).

²⁰⁸ «BOE» 21. znb., 1968ko urtarrilaren 24koa, 1031 – 1036 orrialdeak (6 orr.).

²⁰⁹ Vienako 1961ko Hitzarmenaren 31.1 eta 39.1 artikulua.

potentzia irabazteko, horregatik nekatu nahi du. Izan ere, Nazio Batuak eskua sartuko lukete edozein egoeratan, nazioarteko autoritate bat Estatua berreraikitzen den bitartean hara bidaliz.

2. Afrika-Errusia harremanak.

Afrika lehentasunezko eragile estrategikoa bihurtu da Errusiarentzat. Bigarren honen interesak Nazio Batuen Erakundeko Batzar nagusiaren 54 eserleku eta Segurtasun Kontseiluko txandakako 3 eserlekuetan oinarritzen dira. Honi, izugarrizko erreserba naturalak eta munduko biztanleriaren hazkunderik handiena duela gehituz. Izan ere, Errusiaren interes nagusia metal preziatuak eta lehengaien energia- eta erauzketa-industria dira²¹⁰, kostu txikiagoetan eskuratzeko aukera dela eta. Batez ere bere lurraldean aurkitzen ez diren materialak, hala nola, bauxita, manganesoa edo kromoa, baita urrea, Ukrainaren egoerarekin zailtasunak eratu baitira hau lortzeko²¹¹.

Afrikarekiko estrategia diplomatikoak munduko beste herrialde guztietan nabarmentzen ari dira, Kontinenteak eskaintzen dituen baliabide guztiak direla eta, baina, Errusiak izan da interes gehien erakusten ari duena azken urtetan, zehapenei aurre egiteko. Baita, potentzia hegemonikoaren irudia mantentzea eta bultzatzea, bazkide berriak lortuz, ahultasun eta isolamendu irudiarri aurre eginez²¹².

Errusia eta Afrikaren arteko Lehen Goi-Bilera eman zen 2019. urtean, Errusiako diplomaziaren arrakasta birbil gisa aurkeztuz munduaren aurrean. 43 afrikar-lider parte hartu egin zuten, dozenaka akordio eta elkar ulertzeko memorandum sinadurak lortuz. Ekimen nagusien artean, Errusiako Kanpo Arazoetako Ministroaren bisita ofizialak lirateke, urte batean ia kontinentearen eskualde guztietara eginez, gainera, guzti hauetan, mendebaldean aurkitzen diren herrialdeen aurkako oposizioa berpiztea lortu du, batez ere Frantziari dagokionez²¹³.

Bisita hauek gora egiten jarraitu dute, urte honetan, Hegoafrika, Esuatini, Angola, Eritrea, Mali eta Sudan bisitatu egin dira. Eztabaidetan, besteak beste, Hegoafrika eta

²¹⁰ VEGA TAPIA, A.; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2022). La política exterior de Rusia en África Subsahariana: claves de un nuevo orden mundial. *Instituto Español de Estudios Estratégicos (IEEE)*. 59/2022. 7-8 orr.

²¹¹ VEGA TAPIA, A.; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?. *Instituto Español de Estudios Estratégicos (IEEE)*. 66/2023. 4-5 orr.

²¹² Vega Tapia, A.; Herranz Lespagnol, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 3. eta 10. orr.

²¹³ VEGA TAPIA, A.; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 9-10 orr.

Malirekin lankidetza militarra areagotzea - jadanik bazkide tradizionalak izan direnak -, Itsaso Gorrian presentzia garatzea eta Angola bezalako herrialdetan eragin kulturala areagotzea saiatu egin da nagusiki²¹⁴.

Errusia eta Afrika arteko Goi-Bilera data berria ezarri egin zuten 2023. Urterako. Honetan, Errusiak, merkataritza- eta inbertsio-mekanismo berriak ezartzeko, eskualdean duen benetako presentzia sakontzeko, lankidetza-modu berriak bultzatzeko, bi aldean arteko ordainketa- eta dibisa-bide alternatiboak ezartzeko – mendebaldeko zehapenak saihestu ahal izateko- eta bi aldean arteko lankidetza humanitarioan, osasunean, mugikortasunean edo I+G+B bezalako gaietan sakontzearen helburua adieraziz, errealtate hotz batean, mugimendu militarretan itzuli daitekeena²¹⁵.

Harreman hauek alarmak piztu dituzte Afrikako Kontinentean nazioarteko eragile garrantzitsuen artean –Europar Batasuna, Amerikako Estatu Batuak eta Txina-, ohiko bazkideen izaera mehatxatuta ikusiz²¹⁶, politika, ekonomia eta segurtasun arloetan lortura berriak indartzeko eta garatzeko saiakera ugari aurkituz.

Europar Batasunarekin hasiz, bereziki honen Estatu Kide batzuek, lotura historikoak izatean, interes sendoa aurkeztu egin dute. Izan ere, eragile honi dela eta, egungo harremanak gertatzeko zailtasunak aurkitzen dituzte, Errusiak bere alde ustiatzen saiatzen ari den egoera²¹⁷. Laburbilduz, iraganeko harremanetan aurkitzen dute arazoa Afrikako Estatuak, neokolonialismoan eta esplotazioan, sinesgogorreko negoziazioak eragiten dituztenak.

Amerikako Estatu Batuei dagokionez, hauen harremanek gora egin zuten Obamarekin, nork Kontinentea hirutan bisitatu egin zuen eta, horrekin batera, Afrika eta Estatu Batuetako Lehen Goi-Bilera antolatu zuen. Ondoren, harremanak baldintzatuak ikusi ziren Trump-ekin. Egun, ezohikoa den politika agenda mantentzen ari da herrialde hauekin, presidenteordearen edo *first lady*-aren bezalako bisitekin. Honek, Biden presidenteak bira ofiziala egiteko asmoa suposatu zezakeen, horrela adierazi zuen eta, batez ere kontutan hartuta 2022an Bigarren Goi-Bilera aurrera eramane egin zuela, baina,

²¹⁴ VEGA TAPIA, A; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 10. orr.

²¹⁵ Business programme (2023). Russia-Africa economic and humanitarian forum. <https://summitafrica.ru/en/programme/business-programme/> (azken bisita 2024/01/12).

²¹⁶ VEGA TAPIA, A; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 3. orr.

²¹⁷ VEGA TAPIA, A; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 12. orr.

ez du Kontinentea bisitatu. Bestalde, bigarren bilera honetan, erakunde garrantzitsu guztien negoziazio mahaien partaide izateko beharra adierazi zuen ere, Afrikarako eserleku iraunkor bat eskatuz Segurtasun Kontseiluan-, berez, Afrika Kontinente bat dela azpimarratu behar da²¹⁸.

Azpimarratzekoa, Amerikako Estatu Batuen eta Afrikaren arteko aurrera eraman diren bi goi-bilerak guda testuinguruan eman dira, lehenengoa Krimearen inbasioarekin eta bigarrena Ukrainaren erasoarekin²¹⁹.

Bukatzeko, beste Estatu askok ez bezala, Txinak goi mailako bisitak urtero egiten ditu. Beraz, diplomaziak ez du aldaketa handirik jasan Errusiaren presentziaren handipenaren ondoren. Nolanahi, aintzat hartu behar da Txinaren interes nagusia 2030. urterako Europar Batasunaren merkataritza gainditzea liratekeela²²⁰, eta helburu honetan Errusiak ez lukeela tokirik izanen lehiakide izateko. Izan ere, badirudi Txinak Errusiarekin lehiatu nahi duela armen salmentaren negozioan, kontutan izanda, Errusiak gainditu egin zuela Sahara hegoaldeko eskualdeari arma-hornitzaile nagusi gisa bihurtuz, Txinako inportazioak %29tik %18ra jaitsiz²²¹.

Argi dago, Errusiak aurreratzen ari dituela beste kontinenteetako Estatuak baliagarriak diren Afrikar harremani dagokienez. Etorkizunean, arazoak eratu dezakeena, batez ere kontutan izanda europar neokolonialismoarekiko iritzia afrikar herrien aldetik, eta Amerikako Estatu Batuek akabo eramaten dute bestelako esplotazioak. Bestalde, onuragarria izanen da Errusiarentzat, lehen adierazi egin denez, nazioarteko mailan garrantzia ekonomikoa zein diplomatikoa berreskuratzen ari baitu.

²¹⁸ AFP Internacional. (2022). Biden pide incorporar a África al G20 y planea visitar el continente. *Swissinfo*. <https://www.swissinfo.ch/spa/afp/biden-pide-incorporar-a-africa-al-g20-y-planea-visitar-el-continente/48138382> (azken bisita 2024/01/12).

²¹⁹ VEGA TAPIA, A; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 14-15 orr.

²²⁰ Economist Intelligence Unit (2022). A new horizon for Africa-China relations. Why co-operation will be essential. *EIU*. https://www.eiu.com/n/campaigns/a-new-horizon-for-africa-china-relations/#mktoForm_anchor (azken bisita 2024/01/12).

²²¹ VEGA TAPIA, A; HERRANZ LESPAGNOL, A. (2023). Cumbre Rusia-África 2023: ¿Qué podemos esperar?, *op. cit.* 16-17 orr.

3. Arma nuklearrak.

Manhattan proiektuaren²²² arrakastarekin, 1945.urtean, Hiroshiman eta Nagasakin botatako bonba atomikoek Bigarren Mundu Gerrari amaiera eman zioten²²³, bake era berri bat ekarriz. Baina, momentu horretatik aurrera, izugarritzko suntsiketa maila daukaten armekin bizi beharko zen gizarteak.

Hurrengo urtean, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak bere lehen erabakia²²⁴ hartu zuen. Energia atomikoaren aurkikuntzaren ondorioz sortutako arazoak aztertzeaz arduratuko den batzorde bat sortuz. Berez, Nazioarteko Justizia-Auzitegiak berak “planetaren zibilizazio eta ekosistema guztiak suntsitzeko gaitasuna duten tresna”²²⁵ bezala antzeman zuen. Bere aldetik, Batzar Nagusiak, zera adierazi zuen: “Arma nuklearren eta termonuklearren erabilera Nazio Batuen Gutunaren arimaren, letraren eta xedearen aurkakoa da, beraz, honen urraketa zuzena dakar”²²⁶.

Historian bi aldi handi bereiz daitezke arma nuklearren arautzeari buruzko akordioen inguruan. Lehenengoa, laurogeiko hamarkada arte, armategien hazkunde orekatua hitzartzean bilatzen zenean. Laurogeiko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Sobietar Batasunean hasitako aldaketa-prozesuak inflexio-puntua ezarri zuten, 1987an, lehen armagabetze akordioa gertatuz. Harrezkero, arma nuklearrak arautzen dituzten nazioarteko akordioak eratu dira, arma nuklearren kopuruak behera eginez²²⁷.

Armen tratamenduaren espezifikotasuna hainbat arrazoiengatik beharrezkoa da, batik bat, beste arma moten desberdintasunak kontutan hatzen badira: lehenik eta behin,

²²² Zientzialari naziak arma atomiko bat sortzeko bidean zeuden, hortaz, Leo Szilard eta Eugene Wigner fisikariak Albert Einstein konbentzitu egin zuten Amerikako Estatu Batuetako gobernuari ikerketa nuklearrekin hasia proposatzeko. Horrekin fisio nuklearrari buruzko ikerketari ekin zioten, 1945 abuztuaren 6an Hiroshima eta Nagasaki hiriak suntsitu zituen arma nuklearraren eraikuntza hasiz. <https://www.ngenespanol.com/el-mundo/proyecto-manhattan-el-plan-de-oppenheimer-para-la-creacion-de-la-bomba-atmica/> (azken bisita 2024/01/12).

²²³ National Geographic Historia (2023). Hiroshima y Nagasaki: la masacre de las bombas atómicas. *National Geographic*. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/hiroshima-nagasaki-masacre-bombas-atomicas_10590 (azken bisita 2024/01/12).

²²⁴ Nazio Batuen Erakundearen Batzar nagusiaren 1(I) erabakia, 1946ko urtarrilaren 24koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/RESOLUTION/GEN/NR0/035/61/PDF/NR003561.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

²²⁵ Lehen adierazitako Nazioarteko Justizia-Auzitegia, iritzi aholku-emailea, 1996ko uztailaren 8koa nuklearren mehatxu eta erabileraren legalitatearen ingurukoa.

²²⁶ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 1653 (XVI) erabakia, 1961ko azaroaren 28koa. <https://digitallibrary.un.org/record/205660?ln=es> (azken bisita 2024/01/12).

²²⁷ PIGRAU SOLÉ, A. (2006). El empleo de armas nucleares ante el Derecho Internacional Humanitario. RODRIGUEZ-VILLASANTE Y PRIETO, J.L. (Koord.) *El Derecho Internacional Humanitario ante los retos de los conflictos armados actuales*. 135-157 orr. Marcial Pons. 140. orr.

(1) kalteak eremu jakin batzuetara mugatzea errazagoa da – erradiazio-efektuak alde batera utziz – ikuspegi militarretik eraginkortasun handia dakarrena; bestalde, (2) maila honetako tramankuluak fabrikatzeko izugarritzko azpiegitura teknologikoak eta kapital-inbertsioak behar dira, munduko potentzien eskura aurkituz bakarrik; azkenik, (3) disuasio doktrina, hau da, erabiltzen ez diren armak direla adierazten da, erasotzaileentzat jasanezina liratekeen mehatxua izanez, hirugarren bati ez erasotzea helburu duena²²⁸.

Azpimarratu beharra da, estatalak ez diren eragileek protagonismoa irabazi dutela gaur egungo nazioarteko testuinguruan. Huts egindako Estatuak, *rogue states*-en²²⁹ edo talde terroristen esku ugaritzeko mehatxuak ere inoiz baino gehiago gertatzeko arriskua dago, erabilera bikoitzeko materialen eta ekipo nuklear estrategikoen nazioarteko merkatu beltza egoteak errazten duen globalizazioari esker. Labur esanda, esportazioen kontrol-erregimenak alde batera uzten dituzten hornitzaile berrien balizko agerpenak eta erabilera bikoitzeko teknologia nuklearren sakabanatzeak geopolitika aldatu dute²³⁰.

Ukrainako gudarekin, hainbat eztabaida berpiztu egin dira, haietako nagusienetako bat arma nuklearren erabilera daukagu, eremu juridiko zein politikoan dauzkan zailtasunak direla eta. 1991. urtean, Ukrainak, arma nuklearrak zeuzkan bere lurraldean, baina, Budapesteko Akordioarekin²³¹, Errusiari legatu zizkion, nazioarteko segurtasun-bermeen truke. Horrela gertatu izan ez balitz, beste nazioarteko arazoak sortuko liratekeen, izan ere, nekez jasango zukeen egungo erasoak²³². Arma masiboak eskuratzen dituztenen pribilegio edo abantaila politikoak erakusten dira berriz ere. Hauek dauzkaten Estatuak “potentzia nuklearrak” bezala ezagutzen dira, horrela izendatzen bai dira Ez Ugaritze inguruko Hitzarmenaren 9.3. artikuluan, Segurtasun Kontseiluan iraunkorrak diren bostak.

²²⁸ PIGRAU SOLÉ, A. (2006). El empleo de armas nucleares ante el Derecho Internacional Humanitario, *op. cit.* 141-142 orr.

²²⁹ Bere politika modu arriskutsuan eta aurreikusi ezinean gauzatzen du, Nazioarteko Zuzenbidea kontutan hartu gabe, beste Estatuentzat mehatxua izanez.

²³⁰ DE SALAZAR SERANTES, G. (2015). El Tratado de No Proliferación de Armas Nucleares: los temas clave en la Conferencia de Examen de 2015. *UNISCI*, (38. znb.). 155-168 orr. 164.orr.

²³¹ Segurtasun-bermeei buruzko memoranduma. Honetan, Ukrainak, Errusiak, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek 1994ko abenduan sinatutako akordio. Honen bidez, Ukrainak Arma Nuklearren Ez Ugaritze inguruko Hitzarmenera atxikitzea ezartzen zuen eta, horrekin, bere armategi nuklearraren ezabatzea, betiere, Errusiak, Erresuma Batuak eta Estatu Batuek bere subiranotasuna eta lurralde-osotasuna errespetatzeko konpromezuaren truke. Hauei Kazakhstan eta Bielorrusia gehitu behar zaie, hauen aurka inolako indarra edo arma nuklearrak erabiltzeko debekua izanez. <https://treaties.un.org/doc/Publication/UNTS/Volume%203007/Part/volume-3007-I-52241.pdf> (azken bisita 2024/01/12)

²³² PONS RAFOLS, X. (2022). La Guerra de Ucrania, las Naciones Unidas y el Derecho Internacional: algunas certezas sistémicas insostenibles, *op. cit.* 27.orr.

Egoera honek arriskua dakar. Arma nuklearren edukitzeak nazioarteko segurtasun sistema baldintzatzeko ahalmena sorrarazten du, maila honetako gatazka bat behin betikoa liratekeen, bistakoak diren arrazoiengatik. Horregatik, gai honen arautzea garrantzia handikoa da, batez ere aurreratze teknologikoak kontutan hartuz, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantendu eta bermatu ahal izateko²³³.

2002ko urtarrilaren hasieran, bost potentziek arma masiboen ibilbidea alde batera uzteko deialdia egin zuten, horrelako gatazka bat “irabazi ezin den guda”²³⁴ dela argudiatuz. Komunikatu hau egin eta aste gutxira, Errusiaren erasoak hasi ziren, guda nuklear bat gertatzeko mehatxuarekin batera²³⁵. Beste bi jokaleku gertatu ziren testuinguru honetan. Alde batetik, ekainean Arma Nuklearren Debekuaren inguruko Hitzarmenaren Estatu-kideen lehen bilera gertatu zen Vienan, eta, bestetik, Ez Ugartze inguruko Hitzarmenaren Hamargarren Biltzarra gertatu zen abuztuan. Lehen gertakinarekin Hitzarmen berri bat agertu da nazioarteko zuzenbidean, aldaketa positiboak ekarriko dituenak, edo hori espero dute Estatuak honen berrespenarekin²³⁶.

Beraz, marko juridikoarekin adierazi den eran, arma nuklearrak arautzen dituzten bi Hitzarmen aurkitzen ditugu, alde batetik, (1) Arma Nuklearren ez Ugartze inguruko Hitzarmenak, orain azaldu den moduan, potentzia diren eta ez diren Estaturen artean bereizten duena. Potentziek, 2. Artikuluan bildutako, hainbat betebeharrak dauzkate, hala nola, arma nuklearrak zein arma edo dispositibo leherkor horien gaineko kontrola ez eskualdatzea, edo arma nuklearrak ez dituen beste Estatu bati hauek edo beste lehergaiak fabrikatzeari edo erosteari laguntzea edo bultzatzea. Potentzia ez diren Estatuak dagokienez, arma nuklearrak egiteko laguntzarik ez jasotzera, kontrola izatera, fabrikatzera, erostea edo behartzen dira. Izan ere, nahiz eta hitzarmenaren helburu nagusia

²³³ RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, J. (2023). La regulación internacional de la posesión de armamento nuclear tras la entrada en vigor del Tratado de Prohibición de armas nucleares. Nuevos y Viejos debate sen un escenario internacional convulso. *Revista española de Derecho Internacional (REDI)*, 2023ko 75. liburukia (1. go znb.), 107-135 orr. 109.orr.

²³⁴ THE WHITE HOUSE GOVERNMENT (2022). Joint Statement of the Leaders of the Five Nuclear-Weapon States on Preventing Nuclear War and Avoiding Arms Races. *The White House statement*. <https://www.whitehouse.gov/briefing-room/statements-releases/2022/01/03/p5-statement-on-preventing-nuclear-war-and-avoiding-arms-races/> (azken bisita 2024/01/12).

²³⁵ DERMUTAS, A. (2022). La dimensión nuclear de la Guerra de Ucrania. *Revista Española de Derecho Internacional (REDI)*, 2022ko 74. liburukia (2. znb.). 25.orr.

²³⁶ RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, J. (2023). La regulación internacional de la posesión de armamento nuclear tras la entrada en vigor del Tratado de Prohibición de armas nucleares. Nuevos y Viejos debate sen un escenario internacional convulso, *op. cit.* 111.orr.

arma nuklearren ez ugaritzea izan, urrats bat haratago joaten da 6. artikuluekin, zeinak armagabetze-politika bat finkatzen saiatzen den.

Errealitatean, arma masibo hauek ez dituzten Estatuak ez ugaritze konpromezua hartzen dute, beste bostak monopolioa izateaz ahalbidetuz, lankidetzan aritu beharko direnak energia atomikoaren garapenari buruzko ikerketa zientifikoan, betiere helburu baketsuekin. Baina, ez du emaitzarik izan²³⁷, gainera, Pakistan, India eta Israel, Hitzarmen honen Estatu-Kide ez direnak, potentzia nuklear bezala antzematen dira, bestalde, Ipar Koreako Errepublika Demokratikoak Hitzarmena bitan salatu egin du, 2003 eta 2017an, honen seigarren proba nuklearraren ondoren potentzia nuklearra bezala aintzatetsi egin baitzen, buru atomikoa eratzeko eta lehertzeko gaitasuna dela eta, mende honetako ez ugaritzearen erronka nagusia bihurtuz²³⁸. Hau garrantzia handikoa da, botere oreka eta bakea bilatzen bada, ezin da zuzenbide bat boteretsuentzat ezarri eta boteretsuak ez diren Estatu horientzat beste zuzenbide bat egon. Berdintasunean oinarri duen ezein Ordenamendu Juridikorik ez luke jasango.

Estaturen betebeharra oraindik gertatzeko dagoen armagabetze nuklearra da. Ez Ugaritze Hitzarmenarekin hartutako konpromezu askok lausotzat jotzen dira, seigarren artikulua kritiken jomuga nagusia izanda, kideek armamentu nuklearren manipulaztea edo izatearen amaitzeari eta armagabetzeari buruzko neurriak fede onez negoziatzeko konpromezua hartzen dute eta. Ez daude aurrerabiderik, alderdien arteko harremanak ahultzen ari baitira nazioarteko egoeraren eta bakoitzaren interesen ondorioz²³⁹.

Emaitzarik gabe eta egoera berri hauengatik, 2021. urtetik aurrera (2) Arma Nuklearren Debekuaren inguruko Hitzarmena dago mapan, bere izena ongi adierazten duen moduan, arma nuklearrak debekatzearen xede nagusia aurkeztuz. Lehenengoaren “aurkakoa” jo zen testu honek, nahiz eta bi Hitzarmenen azken helburua - Ez Ugaritze Hitzarmenaren seigarren artikulua kontutan izanda - segurtasuna eta armagabetzea

²³⁷ SÁNCHEZ COBALEDA, A. (2021). Revisitando el Tratado sobre la no Proliferación de las Armas Nucleares ante la Décima Conferencia de examen. *Revista Electrónica de Estudios Internacionales (REEI)*, (42. znb). 9. eta 11. orr.

²³⁸ GARRIDO REBOLLEDO, V. (2020). El programa nuclear y de misiles balísticos de Corea del Norte: implicaciones regionales y posibilidades de desnuclearización. La no proliferación y el control de armamentos nucleares en la encrucijada. *Instituto Español de Estudios Estratégicos, Ministerio de Defensa, Cuadernos de estrategia*, (205. znb.). 71. orr.

²³⁹ RIETIKER, D. (2014). The Meaning of Article VI of the Treaty on the Non-Proliferation of Nuclear Weapons: Analysis Under the Rules of Treaty Interpretation. L. BLACK-BRANCH, J.; FLECK, D. (Koord.). *Nuclear Non-Proliferation in International Law*. (47-84. orr). Springer. 51. orr.

izan²⁴⁰. Debekuaren inguruko Hitzarmenak dakarren aldaketa zera da, arma nuklearrak debekatzea da, modu bakarra baita hauen ezabatzea lortzeko, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren printzipioekin eta Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiaren lehen erabaki horrekin bat etorritik, baita honen inguruan eraturako edozein araudi²⁴¹.

Hurrengo pausua, etorkizun batean, Arma Nuklearrak edo Beste Lehergailu Nuklearrak Fabrikatzeko Material Lehergarrien Ekoizpena Debekatzen duen Hitzarmena indarrean jartzea lirateke, arma nuklearrak eratzeko aukera eragotziz.

Inperatibotasun falta behin zuzenduta, arazoa Estatu Kide falta lirateke orain. Nazioarteko sistema nuklearraren posizioa indartu behar da, Estatu-Kideen kopurua handituz, Ez Ugaritze Hitzarmenaren Kideekin harmonizatuz. Oraindik kide ez diren Estatu horiek erabiltzen duten argudio nagusia zera da, bi testuen arteko bateragarritasun falta. Alde batetik arrazoia daukate, baina, bakarrik 14 Estatu dagokienez – potentzia nuklearrak direnak eta arma hauek ostatatzen dituztenen artean -. Izan ere, argudio honek, arrazoi juridikoak baino, Estatu bakoitzaren interes geostrategikoak dirudite.

Bestalde, ohiturazko edo azturazko araudi bezala antzematearen beharra dago. Juridikoki zaila dirudiena, ez da ezinezkoa, batez ere Batzar Nagusiak izaten ari duen erantzuna kontutan hartuz. Noski, Ukrainaren egungo egoera batu behar da - aldaketa geopolitikoak ekarri dituenak -, Finlandia eta Suediarekin, edo Bielorrusiaren jarrerarekin gertatu den moduan. Baina, adibidez, Australiak ikuspuntua aldatu egin du, eta armagabete nuklearraren alde kokatu egin da ingurumen politiko-militarra dela eta.

Nazioarteko Justizia-Auzitegiak adierazten duenez, arma nuklearren erabilera kontutan hartuta –1945tik gatazka armatuetan erabili ez direnak – bi iritzi nagusi aurkitzen dira. Alde batetik, disuasio politikaren alde egiten duten Estatuak. Egun oraindik horrelako erasorik gertatu ez direnez, hauen enplegua justifika zezaketen inguruabarrak. Beste iritzia, 1945tik ez erabili izanak honen erabilera legez kanpokoa dela frogatzen dutela, horregatik, legez kontrakoa jotzen dute beste Estatuak. Iritziak polarizatuegiak daude *opinio iuris* bat izateko²⁴².

²⁴⁰ RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, J. (2023). La regulación internacional de la posesión de armamento nuclear tras la entrada en vigor del Tratado de Prohibición de armas nucleares. Nuevos y Viejos debate sen un escenario internacional convulso, *op. cit.* 115 orr.

²⁴¹ RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ, J. (2023). La regulación internacional de la posesión de armamento nuclear tras la entrada en vigor del Tratado de Prohibición de armas nucleares. Nuevos y Viejos debate sen un escenario internacional convulso, *op. cit.* 115-116 orr.

²⁴² Nazioarteko Justizia-Auzitegiaren iritzi aholku-emailea, 1996ko uztailaren 8koa.

Nazioarteko Justizia Auzitegiak adierazi zuen moduan, arma hauek ez dirudite bateragarriak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren printzipioekin, baina, nazioarteko zuzenbidearen egoera kontutan hartuta, hauek erabiliko balira, bidezko defentsaren muturreko egoera baten edo Estatu baten biziraupenaren arriskuaren aurrean, behinbetiko iritzirik eman ezin duela²⁴³. Adierazpen honek, interpretazio arazoak ekarriko zituen ondoren, eta egun ere oraindik sorrarazten ditu. Bi interpretazio aurkitzen dira honi lotuta defentsa legitimoaren gainean. Alde batetik, (1) bidezko defentsaren baldintza juridikoen arabera arma nuklearren erabilera legez kontrakoa ez bazen, hauek erabiltzeko aukera egonen zen. Beste ikuspuntua, askoz kezagarriagoa dena, (2) defentsa legitimoaren muturreko kasuak eskubide absolutu bat bihurtzen dute, nahiz eta zuzenbide humanitarioaren printzipioen aurka jo²⁴⁴. Berez, kritika handia jaso egin du doktrinaren aldetik, oso leuna den gaiarentzako inolako zehaztasunik gabe hartu zuten erabakia²⁴⁵.

Hitzarmen berriaren aurkako argudio askok honen eta Ekimen Humanitarioaren asmoaren ulermen mugatua islatzen dute. Argi dago itunaren ondorioak zeharkakoak eta epe luzekoak izango direla, baina ekimen hori ez doa soilik potentzia handiek segurtasunaren eta ospe militarren arloan dituzten interesen aurka, baita industria nuklearraren alderdi ekonomikoetan ere²⁴⁶.

Xede nagusia disuasio nuklearra deslegitimatzea izan beharko zen, arma nuklearrak Nazioarteko Zuzenbidearekin bateraezinak baitira. Marko juridikoan adierazienez, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak oreka lortu nahi du behar militarren eta gizatasunaren printzipioaren artean, arma nuklearrak estigmatizatzeke beharra ikusiz. Bereizketaren printzipioa kontutan hartu beharko da, liskarretan eta helburu militarretan parte hartzen dutenek soilik jasan ditzaketela erasoak ezartzen duena. Horregatik, biztanleria zibilar ezinen da erasotu. Proporzionaltasun-printzipioa aplikatuko da ere, jomuga militarrei erasotzen zaienean, ahalik eta gehien zaindu beharko dira pertsona zibilei eta izaera zibileko ondasunei eragindako kalte intzidentaletatik. Horrekin batera,

²⁴³ Nazioarteko Justizia-Auzitegiaren iritzi aholku-emailea, 1996ko uztailaren 8koa.

²⁴⁴ PIGRAU SOLÉ, A. (2006). El empleo de armas nucleares ante el Derecho Internacional Humanitario, *op. cit.* 150-151. orr.

²⁴⁵ SALADO OSUNA, A. (1997). La ilicitud del uso de las armas nucleares en los conflictos armados. Sevillan. FERNÁNDEZ SÁNCHEZ, P. A. (Koord.). *Una respuesta inconclusa de la Corte Internacional de Justicia en su opinión consultiva de 18 de Julio de 1996*. 239-256 orr. Universidad de Sevilla; Cruz Roja Española; Universidad de Huelva. 254. orr.

²⁴⁶ RITCHIE, N. A Hegemonic Nuclear Order: Understanding the Ban Treaty and the Power Politics of Nuclear Weapons. *Contemporary Security Policy*, 49. liburukia (4. znb.), 409-434 orr. [https://www.tandfonline.com/doi/epdf/10.1080/13523260.2019.1571852?needAccess=true.4\(\)](https://www.tandfonline.com/doi/epdf/10.1080/13523260.2019.1571852?needAccess=true.4()) (azken bisita). 417-418 orr.

ez dira gehiegizkoak izan behar abantaila militar dagokionez. Azkenik, alferrikako kalteak edo beharrezkoa ez den sufrimendua eragiteko debekuaren printzipioa aplikagarria lirateke, beharrezkoak ez diren kalteak eragiteko pentsatutako armak debekatzea, etsaiak borrokatik kanpo uzteko helburuarekin²⁴⁷.

Desnuklearizazio orokorra ezarriko litzateke, Debeku Hitzarmenak eskaintzen duen bezala. Guztira 93 sinatzaile eta 69 Estatu dira partaide²⁴⁸, hala ere, ez du potentzia nuklearretako bakarra alde izan, ezinbestekoak direnak armagabetze unibertsaleko egoera eraginkor bat lortzeko. Errusia da, printzipioz, itunaren aurka gehien ezarri den Estatu. Errusiako segurtasun-politikarentzat eta mundu osoan eragiteko duten gaitasunarentzat garrantzitsuak dira, eta, beraz, arma horiek ez izatea ez lirateke etorkizun hurbileko aukera. Estatu Batua da argien mintzatu dena, armagabetze alorrean dauden ekimenei eraso egiten diela uste baitu, alternatiba errealistatik eskaini gabe. Frantziak eta Erresuma Batuak antzeko jarrerak dituzte; izan ere, itunaren aurka agertu diren arren, armategi nuklearrak murrizteko mekanismo eraginkorragoak aurkitzeko interesa azaldu dute. Txina da gutxien kritikatu duen herrialdeak; adibidez, Batzar Nagusian Itunaren negoziazioen aurka bozkatu ez zuen herrialde bakarra izan zen²⁴⁹.

Argi dago, arma nuklearren erabilerak, baita hau erabiltzearen mehatxuak ere, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren printzipioen aurka egiten duela, arma nuklearrak ezabatzea eta debekatzea agindu humanitarioa baita, beraz, hauek behin kontrolatzea eta atzean uztea lehentasunezkoa da, egun eratu diren arma nuklearren kalibrea – printzipioz – ezezaguna da, erabili ez baitira zibilizazioen aurka, dena den, zalantzarik gabe Bigarren Mundu Gerrarekin bukatu zuten horiek baino askoz indartsuagoak eta hilkorrak izanen dira²⁵⁰.

²⁴⁷ RITCHIE, M. (2019). A hegemonic nuclear order: Understanding the Ban Treaty and the power politics of nuclear weapons, *op. cit.* 427. orr.

²⁴⁸ Sinatzaileak eta alderdiak adierazten dira Nazio Batuen hurrengo orrialdean: <https://treaties.unoda.org/t/tpnw> (azken bisita 2024/01/18).

²⁴⁹ JUÁREZ GURAIEB, C. (2021). Contribuciones de la diplomacia al desarme nuclear: ¿qué aportes brindará el Tratado para la Prohibición de Armas Nucleares al desarme? *Anuario Mexicano de Derecho Internacional* (22. znb.), 575-610 orr. <https://revistas.juridicas.unam.mx/index.php/derecho-internacional/article/view/16962/17507> (azken bisita 2024/01/12). 598. orr.

²⁵⁰ SALMÓN, E. (2012). Definición de Derecho Internacional Humanitario. Características. *Introducción al Derecho Internacional Humanitario* (21-75 orr). Pontificia Universidad Católica de Perú. <https://www.corteidh.or.cr/tablas/r25212.pdf> (azken bisita 2024/01/12). 27. orr.

4. Palestinaren hauskortasuna.

Lehen Mundu Gerran aliatuen garaipenaren ondoren, Frantziak eta Britainia Handiak arabiarren laguntza bilatu zuten Otomandar Inperioa garaitzeko, bete ez ziren promesen bidez. Hala, behin hau garaituta, honen lurraldeak banatu zituzten bi Estatu artean: Frantziak Libano eta Siria menderatuko lituzke, eta, Erresuma Batuak, egungo Jordania, Irak eta Palestina. 1917. urtetik aurrera, Palestinan, independentzia lortu ez zuen bakarra zen bitartean, Balfour Adierazpenaren²⁵¹ bidez, herri judutarrentzako etxe nazionala ezartzearen promesa egin zen, hauen immigrazioaren goraldiarekin²⁵².

Altxamenduak hasi ziren palestinarren eskutik. Britainiarrek, Israelgo okupazioaren gatazkaren kontrola Nazio Batuen esku uztea erabaki zuten 1947an. Batzar Nagusiak, Palestinako lurralde-banaketa Estatu juduaren eta arabiarren artean inposatu zuen²⁵³, arazo juridikoa hasiz. Judutarrentzat garaipena izan zen, baina, arabiarrek gerra deklaratu zuten, haien mesederako aurreratze faltak ikusiz. Gatazka hurrengo urtean amaituko litzateke, Israelen garaipen gogorarekin, haien lurraldea nabarmen handituz. Palestinar herritarrentzat *Nakba* (hondamendia) izan zen, arabiar populazioaren erdiak baino gehiago lurraldetik kanporatu edo ihes egin baitzuen²⁵⁴.

1956ko²⁵⁵ Sinai gudaren, 1967ko²⁵⁶ Sei Eguneko gudaren eta 1973ko²⁵⁷ Yom Kipur gudaren ondorioz, 1987an lehenengo intifada lehertu zen, israeldarren aurkako

²⁵¹ Balfour Adierazpena: "Dear Lord Rothschild, I have much pleasure in conveying to you, on behalf of His Majesty's Government, the following declaration of sympathy with Jewish Zionist aspirations which has been submitted to, and approved by, the Cabinet His Majesty's Government view with favour the establishment in Palestine of a national home for the Jewish people, and will use their best endeavors to facilitate the achievement of this object, it being clearly understood that nothing shall be done which may prejudice the civil and religious rights of existing non-Jewish communities in Palestine or the rights and political status enjoyed by Jews in any other country. I should be grateful if you would bring this declaration to the knowledge of the Zionist Federation. Yours, Arthur James Balfour". https://www.un.org/unispal/wp-content/uploads/2017/05/Balfour_declaration_unmarked.jpg (Azken bisita 2024/01/15).

²⁵² The Question of Palestine (2023). History of the question of Palestine. *United Nations*. <https://www.un.org/unispal/history/> (Azken bisita 2024/01/15).

²⁵³ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 181 (II) Erabakia 1947ko azaroaren 29koa. <https://www.un.org/unispal/document/auto-insert-185393/> (azken bisita 2024/01/17).

²⁵⁴ ERILL SOTO, B. (2023). Palestina: breve historia de una tierra siempre en disputa. *National Geographic*. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/origenes-palestina_20556 (azken bisita 2024/01/15).

²⁵⁵ Sinai penintsula inbaditzen du Israelek, Egiptok dekretatutako Suezko Kanala itxiz, Britainia Handiko eta Frantziako oniritziarekin.

²⁵⁶ Egipto eta Siria barneratzen zuen koalizioaren bidez Israel erasotu zuten, baina, porrot azkarraren ondorioz, Israelek bere eskuetan mantendu zituen palestinatar lurralde okupatuak, Sinai penintsula konkistatu zuen eta eta Golango Garaian kontrola hartu zuen, Siriako hegoaldean.

²⁵⁷ Yom Kipur ospakizunean, egutegi judutarreko festa sakratuenetakoa, Israel berriz eraso zuten Egiptok eta Siriak, galdutako lurraldeak berreskuratzeko xedez. Izan ere, Israelek azkar erantzuteko mugimenduen ondorioz, soldadu siriarrak amore eman zuten Israelgo armadaren aurrean.

altxamendua. Harriak, makilak, molotov koktelak eta etxeako armak erabili zituzten armadari aurre egiteko. Urte berdinean, Hamas sortu zen²⁵⁸.

Herri palestinarra ez zen inoiz Palestinan Estatu legitimo bat eraikitzen iritsi, baina beti bizi izan da lurralde honetan edo haren zati batean, nork okupatu duen alde batera utziz. 1964an Palestinako Askapenerako Erakundea sortu zen, Israelgo Estatu abolitzea eta Palestinako lurraldeetako arabiarrek eta juduak bilduko dituen Estatu laiko bat sortzeko xedez. Osloko Akordioetan²⁵⁹ parte hartu zuen, Palestinako Gobernu Autonomoa ezarriz, Gazako eta Mendebaldeko lurraldeak administratuko zituenak. Gobernu horrek, ordea, israeldarraren kontrolpean jarraitzen zuen. Akordioek ez zituzten beren helburuak bete, indarkeria-gertaera berriak hazi baitziren palestinarren aurka²⁶⁰.

2006an, bake-plan guztien porrotaren ondoren, indarkeria kaleetara itzuli zen. *Hamás*-ek Gazako hauteskundeak irabaziko zituen gehiengo osoa lortuz, Israelen aurkako oposizio armatua prestatuz. Nazioarteko komunitateak taldeari Israel aitortu zezala eskatu zion, baita indarkeriari uko egitea, nolana ere, beharrezkoa zen Israelek berdin jardutea²⁶¹. Ez zen hori gertatu, horregatik, etengabeko erasoen ondoren, eskala handiko inbasioari erantzunez, 2023an, Hamasek Israel erasotu egin zuen, egungo egoeraren aurrean utziz.

Nazioarteko aintzatespena funtsezko alderdia da Estatu bat lege izan dadin, eta, Palestinaren kasuan, Nazio Batuen kide diren Estatu batzuek bakarrik aitortzen dute hau. Gaur egun, nahiz eta Estatuko instituzioak izan, horiek okupatuta daude eta ez dute lurraldearen erabateko kontrolirik. Hortaz, autodeterminazio-eskubidea eten egiten da Gazako eta Zisjordaniako eremuetan subiranotasunik ez izateagatik.

Nazioarteko Zigor Gorteak, 2013. urteko eraso baten ondorioz, 2019an lehen aldiz sartu egin zuen eskua palestinaren lurraldearen kasuan, Fatou Bensouda Fiskal Nagusiak

²⁵⁸ SALA, A. (2024). Fechas clave del conflicto entre Israel y Palestina. *National Geographic*. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/fechas-clave-conflicto-entre-israel-palestina_20318 (azken bisita 2024/01/15)

²⁵⁹ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren A/48/486 erabakia, 1993ko urriaren 11koa. https://peacemaker.un.org/sites/peacemaker.un.org/files/IL%20PS_930913_DeclarationPrinciplesnterimSelf-Government%28Oslo%20Accords%29%28esp%29.pdf (azken bisita 2024/01/15); eta Segurtasun Kontseiluaren S/26560 erabakia, 1993ko urriaren 11koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N93/548/41/PDF/N9354841.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/15).

²⁶⁰ ERILL SOTO, B. (2023). Palestina: breve historia de una tierra siempre en disputa. *National Geographic*. https://historia.nationalgeographic.com.es/a/origenes-palestina_20556 (azken bisita 2024/01/15).

²⁶¹ FERRÉ, J.M. (2006). Consecuencia de la victoria de Hamás en las elecciones palestinas. *Real Instituto el Cano*. <https://www.realinstitutoelcano.org/analisis/consecuencias-de-la-victoria-de-hamas-en-las-elecciones-palestinas/> (azken bisita 2024/01/15).

eskatu baitzuen israeldar soldaduen ekintzen ikerketa bat hastea, indar armatuen soldaduek gerra-krimenak gauzatzearen susmoa zela eta, Mediterraneoko itsasoaren nazioarteko uretan modu baketsuan nabigatzen zuen zibilen itsasontzi baten aurka. Israel autodefentsa justifikatu egin zuen, baina, fiskalaren ustez, ez zegoen justifikaziorik erasoan. Ontzia – zibila zena, ez militarra edo erasotzeko balio zuena – abordatu zuten eta bizkarretik erail zituzten hamar bidaiariek, metro erdi baino gutxiagoko tarteko tiroekin²⁶². Apelazioen auzitegiak justifikatu gabe aurkitu zituen fiskalaren argudioak, batez ere biktimen kantitatea txikia dela eta, bertan behera utziz prozedimendua²⁶³.

Momentu horretan, Michael Lynk-ek, nazioarteko komunitateari eskatu zion okupazio israeldarrak gerrako krimenez jotzeko, Nazioarteko Zigor Gortearen Erromako Estatuaren arabera horrela baitzen²⁶⁴.

Orain, 2024an, bigarren aldiz salatu egin dira Israelen ekintzak, baina, aldi honetan, Hego Afrikak egin du Nazioarteko Justizia Auzitegiaren aurrean, palestinar herritarren aurkako genozidio bat gauzatzen ari delako, nazioarteko segurtasuna eta bakea urritzen ari duela azalduz, bost puntutan zerrendatuz Israelen ekintzak.

Lehen ekintza genozida, (1) Gazan gertatu diren hilketa masiboak dira – hainbeste izan dira hobi komunetan hilotzak lurperatzen dituztela -, 2000 kiloko bomba suntsitzaileak zabaldu dituzte, 1800 familiak baino gehiago hunkituz; (2 eta 3) kalte psikiko zein fisiko larriak bigarren ekintza genozida lirateke, 60.000 pertsona inguru zauritu baitira, gehienak emakumeak eta haurrak - osasun sistema erori den lurraldean -, askok atxilotu izan dira, haurrak barne, biluztu eta kamioietan kargatuz, leku ezezagunetara eramanez; orain aipatutako desplazamendu hauek, (4) bortxazko desplazamenduak lirateke, laugarren ekintza genozida - milioi erdi etxetik ihes egin dute -, Israelek ospitaleak ebakutzeko agindua eman zuen 24 orduko epean, laguntzarik gabe zaurituak lekualdatzeko eta mediku-materialak mugitzeko; azken ekintza genozida, (5) janari-blokeoak liratele, hau gertatzeko, uraren, elikagaien eta erregaien hornidurak

²⁶² FELIPE, L. (2013). La fiscal de la Corte Penal Internacional investigará posibles crímenes de guerra en Palestina. *Noticias ONU*. <https://news.un.org/es/story/2021/03/1489022> (azken bisita 2024/01/15).

²⁶³ POISSONIER G.; DAVID E. (2020). Israeli Settlements in the West Bank, a War Crime? *La Revue des Droits de l'homme*, (17. znb), 11-13 eta 15-17 orr.

²⁶⁴ MICHAEL LYNK (2021). 1967tik palestinar lurralde okupatuetako giza eskubideen egoeraren Kontalari Bereziaren Txostena. *A/HRC/47/57*. 76. Paragrafoa.

blokeatu dituzte, baita laguntza humanitarioa oztopatu, nekazaritza-eremuak erraustu eta biztanleria zibilari bizirauteko ezinbestekoak diren ondasunak kendu dizkiete²⁶⁵.

Israelen argudioak, ahulak Hego Afrikarentzako, *Hamasek*, Israelen armadaren eta herrixken aurka egindako erasoak, beraz, eskubidea dauka bere burua nazioarteko zuzenbidearen arabera defendatzeko. Genozidioaren Konbentzioa Holokaustoan juduen hilketak masiboen ondoren egin zela adierazi zuen, eta inoiz gehiago ez, betebeharrak moral gorenetakoa izanez²⁶⁶.

Israelen potentzia okupatzaile gisa izanda, Hego Afrikak argudiatzen duen moduan, ez luke eskubide hori nazioarteko zuzenbidearen arabera, lehenengoa izan baitzen duela 70 urte palestinar lurraldea erasotuz, eta egun arte horrela segi eginez²⁶⁷.

Beste behin aurkezten da nazioarteko Auzitegien inguruko konfiantza berrezartzeko nazioarteko komunitatearen partez.

Segurtasun Kontseiluan, Amerikako Estatu Batuen betoaren eta Erresuma Batuen abstentzioaren ondorioz²⁶⁸, Batzar Nagusian, Egiptok piztuta, larrialdi biltzarrean su-etena humanitarioa eskatu diote Israeli, 153 Estatuak alde eginez, 10 aurka eta 23 abstentzio eginez. Amerikako Estatu Batuek eta Austriak enmiendak ezarri dituzte²⁶⁹.

Estatu Espainiarrari dagokionez, presidentek berak su-etena eskatu egin dio Israelgo presidenteari, zeinaren aurrean nazioarteko komunitateak Europar Batasunean hedatu behar duen idea izan behar dela eskatu dioten. Salaketaz gain, esportazioak

²⁶⁵ Human Rights Watch (2023). Israel: Starvation Used as Weapon of War in Gaza. *Human Rights Watch*. <https://www.hrw.org/es/news/2023/12/30/israel-el-hambre-como-arma-de-guerra-en-gaza> (azken bisita 2024/01/15).

²⁶⁶ AFP International (2024). ICG Genocide case: What are Israel's main arguments. *Aljazeera*. <https://www.aljazeera.com/news/2024/1/12/icj-genocide-case-what-are-israels-main-arguments> (azken bisita 2024/01/15).

²⁶⁷ ONU Press (2023). Israel-Palestina: La Asamblea General aprueba una resolución pidiendo un alto el fuego humanitario inmediato en Gaza. *Noticias ONU*. <https://news.un.org/es/story/2023/12/1526397> (azken bisita 2024/01/15).

²⁶⁸ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/2023/970 erabakia, 2023ko abenduaren 8koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N23/424/91/PDF/N2342491.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/15).

²⁶⁹ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren A/ES-10/L.27 erabakia, 2023ko abenduaren 12koa. <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/LTD/N23/397/09/PDF/N2339709.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/15).

suspenditu ditu²⁷⁰. Baina, beste Estatuek oraindik ez dituzte armak hornitzeari utzi, hala nola Estatu Batuak eta Erresuma Batuak - Irlandaren kasuaz aparte²⁷¹-.

Estatu Batuei dagokionez, Israelek munizioa eta armamentuak jasotzen ari ditu han daukaten hangarretik, inolako gardentasunik aurkeztuz, berez, arazoak izan dezake eskaintzen dizkion bonben kopuruei eta kategoriei buruz. Printzipioz, *War Reserve Stocks for Allies-Israel* biltegitik eskuratzen ari da Israelek lurralde palestinarretan erabiltzen ari duen munizioaren, armen eta bonben ehuneko bat, baina, buru estatubatuarek ez dute esan nahi hauen zenbatekoa, nolahi ere, behar dituzten kantitateak eskuratzeko baimena daukatela onartu dute. Armamentuen transmisioak errazten eta arintzen ditu. Estatu honen legegileek, malgutasunaren inguruko kezkak adierazi dituzte, horien bidez, hangarreen transferitzen diren armamentuarentzako erraztasunak onartzen baitira, autorizazioen legezkotasuna zalantzan jarriz, marko juridikoan azaldu den moduan, prozedimenduak daude eta, denbora minimo bat behar dutenak haien izaerarengatik, batez ere Zuzenbide Humanitarioa arriskuan egonda eta genozidio posible bat bitartean badago²⁷².

Baina, ez da armak transferitzen ari dituen bakarrak, Erresuma Batuak parte hartzen hari du ere, kritika handi jasotzen ari duena²⁷³. Printzipioz, Israelek Gazan F-35arekin egindako bonbardaketan erabilitako osagaien %15a Estatu honek hornitzen ditu, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketen konplize bihurtuz²⁷⁴.

Bi Estaturen konplizitatea ikusita, Hego Afrikako abokatuak idatziak prestatzen ari dituzte Auzitegi berdinen aurrean, beste prozedimendu batean, hauek salatzeko²⁷⁵.

²⁷⁰ BOLELLI, S. (2023). Spanish prime minister calls on EU to take stand against Israel. *Andolu Ajansi*. <https://www.aa.com.tr/en/europe/spanish-prime-minister-calls-on-eu-to-take-stand-against-israel/3081807> (azken bisita 2024/01/15); eta MCMURTRY, A. (2023). Spanish premier 'deeply concerned' about Palestinians' future after violence ends. *Andolu Ajansi* <https://www.aa.com.tr/en/europe/spanish-premier-deeply-concerned-about-palestinians-future-after-violence-ends/3089443> (azken bisita 2024/01/15).

²⁷¹ LOUGHLIN, E. (2023). President condemns destruction of Irish-funded school in Palestine. *Irish Examiner*. <https://www.irishexaminer.com/news/arid-41285557.html> (Azken bisita 2024/01/15).

²⁷² DAVIS, H.; GANGULY, M. (2023). Gaza war puts US's extensive weapon stockpile in Israel under scrutiny. *The Guardian*. <https://www.theguardian.com/world/2023/dec/27/gaza-war-puts-us-extensive-weapons-stockpile-in-israel-under-scrutiny> (azken bisita 2024/01/15).

²⁷³ AHMED, Y. (2023). Selling weapons to Israel Could Make UK Complicit in War Crimes. *Human Rights Watch*. <https://www.hrw.org/news/2023/12/12/selling-weapons-israel-could-make-uk-complicit-war-crimes> (azken bisita 2024/01/15).

²⁷⁴ DEMIRCI, Z. (2023). UK faces criticism for selling weapons to Israel, accused of being complicit in war crimes. *Anadolu Ajansi*. <https://www.aa.com.tr/en/europe/uk-faces-criticism-for-selling-weapons-to-israel-accused-of-being-convicted-in-war-crimes/3089664> (azken bisita 2024/01/15).

²⁷⁵ Al Mayadeen Español (2024). Demandan a EE.UU. y R.U. por connivencia en crímenes de guerra. *Al Mayadeen*. <https://espanol.almayadeen.net/noticias/politica/1806794/demandan-a-eeuu-y-reino-unido-por-connivencia-en-cr%C3%ADmenes-de> (azken bisita 2024/01/15).

Azken finean, aktore politiko aunitz tartean sartu dira, bakoitzak bere interes politikoak zein ekonomikoak erakutsiz. Hortaz, ezinezkoa lirateke alderdi guztiek asebeteko lukeen erabaki bat hartzea. Izan ere, palestinar eta israeldar herritarren ongizatean eta bakean jarri beharko lirateke jomuga. Puntu honetatik abiatuz, irtenbiderik onena, denboran luze mantendu ahalko zena kontrol eraginkor baten bidez, bi Estatu independenteen sorrera lirateke. Horrela, Palestinako Estatu bat independente bat eratuz, honi dagokion legitimazioa eta legitimitatea eskuratuz, eta Israelgo Estatu ez okupatzaile bat mantenduz, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko aukera aurkezten da.

Hau aurrera eraman ahal izateko, kontrol eragin bat akabo eramango lukeen aktore politikoa behar da, Amerikako Estatu Batuak liratekeena – Erresuma Batua aukera hutsa da kontutan izanda 1947ko emaitza, ez baluke ez nazioarteko ez bi Estatuaren konfiantzarik izanen -. Hortaz, estatubatuar indar militarrek palestinar lurraldean sartuko lirateke, autoritate palestinar bat kontrol buruan gehituz, desagertu ezinen zena, bere ahotsa kontutan izanez, lurraldeen berreraiketa eta benetako dibisioa, erasorik gabekoa, gauzatzen ari direla egiaztatu zezan.

V. BETOAREN MESEDE EGOERA.

Marko Juridikoarekin jadanik aurkeztu egin da betoa zer den, Gutunaren 27. artikulua ikerketarekin, baita lan osoan zehar honek eratzen dituen arazoak eta oztupoak giza eskubideei dagokienez ere. Nazio Batuen Erakundearen sorreratik aurrera beti kritika eta doktrinaren jomuga izan da.

Beto eskubidea bost kide iraunkorrei lankidetzat bultzatzeko eman zitzaien, Nazio Batuek nazioarteko gatazkak ekidin eta konpondu ahal izateko, Nazioarteko Zuzenbidea eraginkortasunez bete ahal izateko eta populazio zibilak babesteko, ez haien interesak bermatzeko.

1. Jaiotza.

San Frantzisko-ko Biltzarrean jadanik zenbait Estatu Kideen aldetik oposizio indartsu bat erakutsi egin zuten. Mugimendu honen burua Australiako Kanpo ministroa izan zen. Zera aldarrikatzen zuten, bakea desegonkortu dezaketen egoerek zein erabakietan ez aplikatzea, pribilegioa daukaten Estatuak haien interesen alde ez egiteko eta modu objektibo batean bozkatzeko, Gutunak ezartzen dituen printzipioak bermatzeko. Estatu Iraunkorrek emandako argudioa ardatzeko potentziak indargabetzeko bideak

dauzkaten bakarrak direla izan zen, mundu mailako bakea eta segurtasuna mantentzeko hitza emanaz. Ez zeuden irekita betoaren izaera buruzko negoziatorik egitera²⁷⁶.

“In view of the primary responsibilities of the permanent members, they could not be expected, in the present condition of the world, to assume the obligation to act in so serious a matter as the maintenance of international peace and security in consequence of a decision in which they had not concurred. Therefore, if a majority voting in the Security Council is to be made possible, the only practicable method is to provide, in respect of non-procedural decisions, for unanimity of the permanent members plus the concurring votes of at least two of the non-permanent members”.

Australiak proposatutako ideia emaitzarik izan ez zuela ikusita, Indiak proposamen hibrido bat aurkeztu zuen: bost Estatuak betoa izanzen zuten, baina, hamar urte barru, gutunak babesten dituen printzipioei dagokienez, ezinen dute hau erabili. Baina, Bigarren Mundu Gerrako irabazleei ez zieten gogobete²⁷⁷.

Praktikan, segurtasuna eta bakea arriskuan jarri duten egoeratan betoa gehiegitan erabili egin da, giza eskubideak mehatxatuz eta hauen bortxaketak gauzatzera lagunduz. Haien artean zenbait esanguratsuak izan dira historian zehar, Nazio Batuen Erakundearen ezintasunak airean utziz. Hala nola, Palestinan 2023.²⁷⁸, 2017.²⁷⁹ edo 1976.²⁸⁰ urtean gertatutako erasoan aurrean Amerikako Estatu Batuek – beti – edo hasiera batean, 1956.²⁸¹ urtean Frantzia eta Erresuma batuak betoa ezarri zuten. Osotara, Palestina tartean aurkitzen den 25 erabaki betatu egin dira²⁸².

2. Frantziako limite saiakera.

Segurtasun Kontseiluan beto pribilegioa duen Estatu batek izugarrikeria masiboak egiten direnean paralisia ez onartzeko ahotsa erabili zuen 2013. urtean. Frantziaren

²⁷⁶ SINHA, D. (2019). Veto Provision in UN Charter. *Indian Foreign Affairs Journal*, 14. liburukia (4. znb.), 267-274 orr. <https://www.jstor.org/stable/10.2307/48636736> (azken bisita 2024/01/12). 268. orr.

²⁷⁷ SINHA, D. (2019). Veto Provision in UN Charter, *op. cit.* 269. orr.

²⁷⁸ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/2023/970 erabakiaren proiektua betatu egin zuen Amerikako Estatu Batuak <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N23/397/78/PDF/N2339778.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

²⁷⁹ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/2017/1060 erabakiaren proiektua betatu egin zuen Amerikako Estatu Batuak <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N17/448/89/PDF/N1744889.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

²⁸⁰ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/11940 erabakiaren proiektua betatu egin zuen Amerikako Estatu Batuak <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N76/017/99/PDF/N7601799.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

²⁸¹ Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluaren S/3708 erabakiaren proiektua betatu egin zuen Frantzia eta Erresuma Batuak <https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/NL5/602/64/PDF/NL560264.pdf?OpenElement> (azken bisita 2024/01/12).

²⁸² Segurtasun Kontseiluaren Datu Zentroa. *1946tik aurrerako betoak* <https://research.un.org/es/docs/sc/quick> (azken bisita 2024/01/12).

Errepublikako Lehendakariak proposatuak, betoaren erabilera “jokabide onaren kode” baten bidez arautzea, zeinaren bitartez Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrek borondatez eta modu kolektiboan betoa ez erabiltzea adostuko lukete, baldin eta izugarrikeria masibo baten aurrean aurkituko balira. Borondatezko mugimendua bezala aurkeztu zuen, hau da, ez litzateke beharrezkoa Nazio Batuen Gutuna berrikustea, testu politiko baten aurrean aurkituko balira, balio juridikorik gabekoa²⁸³.

Hori dela eta, beharrezkoa litzateke termino horri buruzko adostasun bat lortzea, eta zehaztu beharko litzateke, adibidez, zenbat biktima, herri edo lurralde zenbakietatik aurrera egongo liratekeen horrelako krimen baten aurrean. Proposamenean, gai horri buruzko erabakia zabalik utzi egin zuen Estatuak, Kontseiluko Kide Iraunkorren arteko akordio bati atea irekia utziz. Gainera, helburu horrekin zuzenean lotutako nazioarteko testuak aipatu egin zituen, interesgarriak liratekeenak erabaki hau hartzeko momentuan, hala nola, 1948ko Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigortzeko Konbentzioa²⁸⁴.

Era berean, Frantziak krimen hauek noiz ematen diren erabakitzea Segurtasun Kontseilutik kanpo dagoen agintari baten esku utzi behar dela adierazi zuen, batez ere honen Kide Iraunkorren eskutatik kanpo, ez bailirateke objektiboak izango, etengabe gertatzen den bezala, hasierako blokeo egoeraren aurrean berriz ere aurkituz. Agintari horrek Nazio Batuen Idazkari Nagusia izan beharko lukeela adierazi zuen, Gutunaren bidez, 99. artikuluaekin betebeharrak esleituz. Izan ere, honek, Nazio Batuetako 50 Estatu Kideren eskariz ekingo luke²⁸⁵.

Baina, puntu eskas bat aurkezten da, jokabide-kode horren aplikazioak babes-klausula bat lukeelako eta, honi esker, Kide Iraunkorrek kode hori saihestu ahal izango lukete, bizi-interes nazionala argudiatuz, eta, berriz ere, abiapuntura egongo zen betoa. Hori dela eta, doktrinak, definizioa Nazioarteko Justizia Auzitegiaren esku utzi behar dela argudiatu du, egoera jakin batzuetara mugatuta, Estatuaren biziraupena bera arriskuan

²⁸³ MINISTRY FOR EUROPE AND FOREIGN AFFAIRS (2023). Why France wishes to regulate use of the veto in the United Nations Security Council. *France Diplomacy*. <https://www.diplomatie.gouv.fr/en/french-foreign-policy/united-nations/france-and-the-united-nations/france-and-the-united-nations-security-council/why-france-wishes-to-regulate-use-of-the-veto-in-the-united-nations-security-65315/> (azken bisita 2024/01/12).

²⁸⁴ ESPADA GUTIÉRREZ, C.; CERVELL HORTAL, M. J. (2014). Sobre la propuesta francesa (2013) de reforma del derecho de veto en el Consejo de Seguridad. *Revista Española de Derecho Internacional*, 66. liburukia (1. znb.), 324-331. orr. <https://www.revista-redi.es/redi/article/view/861/855> (azken bisita 2024/01/12). 324 orr.

²⁸⁵ ESPADA GUTIÉRREZ, C.; CERVELL HORTAL, M. J. (2014). Sobre la propuesta francesa (2013) de reforma del derecho de veto en el Consejo de Seguridad, *op. cit.*, 325 orr.

badago adibidez, arma nuklearren inguruan adierazi zen moduan. Izan ere, zaila izango litzateke Estatuaren aldetik aukera hau onartzea, barne politika erabakiak nazioarteko kontrol judizialaren pean utziz, praktikan arrakastarik izaten ez duena²⁸⁶.

3. Aldaketa posibleak.

Lehen aukera, betoa legez aurkako agintza deklaratzeko da. Honetarako, sustrai sendoak dauzkaten argudioak aurkeztu beharko lirateke, alegia, Kide Iraunkorrek betoa erabiltzeko legezko mugak dauzkatela. *Opinio iuris*-ean laburbildu daitezke argudio horien puntu nagusia, *ius cogens*-a bortxatzea legez kanpoko delatela. Izan ere, legezotasun honen ondorioak airean geratzen dira eta, arazo hau garrantzi handikoa da Kontseiluaren funtzionamendurako, berez, Nazioarteko Justizia Auzitegiak ebatziko lukeena.

Betoarekin urratzen den araudi nagusia indarra erabiltzearen debekua da, Gutunak ezartzen duen galarazpena. Beto ahalmena Gutunaren zati bat da, eta testu honen gainerako betebeharen eta debekuen maila berean dago, edo, are maila baxuagoan, prozedurazkoa baita, beste goiko betebeharen esentzialak baitaude. Beraz, ez dago zergatik ulertu behar beto ahalmena Gutunak ezartzen dituen gainerako betebeharetatik isolatuta aurkitzen dela. Genozidio, guda-krimen edo gizateriaren aurkako krimenen komisioa baimentzeko modurik ez dagoen bezala, ez litzateke zilegi izango eraso jarraitua baimentzea betoak eskaintzen dion babesarengatik²⁸⁷.

Bestalde, betoa, neurri batean baino gehiago, immunitate-arauekin konpara daitezke. Beraz, legez kanpoko betoa litzateke bide honetatik ere. Nolanahi, argudioa judizialki babestu ahal izango balitz ere, zalantzazkoa da beste Kide Iraunkorrek interesik izatea betoaren ezaz fidatzeko, ate hori irekitzeak aukera horren menpe jar baititzake²⁸⁸.

Bigarren aukera betoaren erabilerari eustea lirateke, baina, honi mugak ezarriz, Gutunaren zuzenketa bati uko egin gabe. . Egun, bi bide aurkitzen ditugu mahai gainean. Gutunaren 27.3 artikulua, Kide Iraunkorrek VI. kapituluko erabakien inguruan betoa jartzeari uztea eskatzen duena, eztabaidarako alderdi direnean. Eztabaida batean inplikaturako Kide Iraunkorrek askotan betoari lotu zaizkio, eta, gainera, besteek, kasu

²⁸⁶ ESPADA GUTIÉRREZ, C.; CERVELL HORTAL, M. J. (2014). Sobre la propuesta francesa (2013) de reforma del derecho de veto en el Consejo de Seguridad, *op. cit.* 328. orr.

²⁸⁷ TRAHAN, J. (2022). Aggression and the veto. *Opinio Juris*. <https://opiniojuris.org/2022/02/28/aggression-and-the-veto/> (azken bisita 2024/01/12).

²⁸⁸ TALMON, S. (2012). Jus Cogens after Germany v. Italy: Substantive and Procedural Rules Distinguished. *Leiden Journal of International Law*, 25. liburukia (4. znb.), 979-1002 orr. <https://doi.org/10.1017/s0922156512000532> (azken bisita 2024/01/12). 987-989 orr.

horietan, ez diote betoari eragozpenik jarri. Beto boterearen atzealde batzuk erraz aldentuko liriateke, baldin eta abantaila daukaten Estatuaren artean bakarrik banaturik badaude. Bigarren bide posiblea, *Veto Powers in Cases of Mass Atrocity*²⁸⁹ delakoaren gaineko deklarazio politikoak jasotzen du, jadanik azaldutako Frantziak proposatutako Jokabide Onaren Kodearen bidez²⁹⁰.

Azkeneko aukera, hirugarrena eta zailena, Gutuna aldatzea liriateke. 108. artikuluan biltzen den prozesuaren bidez eginen zen, azken urtetan Nazio Batuen Erakundearen izan den prozesu politikoaren gainean eraiki litekeena. Nolanahi, betoaren arazoa konpontzeak Segurtasun Kontseiluaren erreformaren bigarren helburu batekin bideratu beharko zen, Kontseiluaren kide izateko aukera zabaltzea. Esaterako, Asiatik, Afrikatik eta Latinoamerikatik datorren bazkidetzak gehituz, errealitate multipolarrean ordezkariak erakutsiz²⁹¹.

Orain arte, Erakundearen negoziazioetan, Estatu Batuek, Errusiak eta Txinak beto eskubidea kentzeko edozein proposamenen aurrean beti egin izan dute atzera. Frantziak eta Erresuma Batuak, berriz, prest daude bere erabilera indartzeko, baina ez kentzeko. Hala ere, ez da pentsatu behar estaldura honek betiko iraungo duenik²⁹².

Gutunak aldatzeko bi prozedura aurreikusten ditu: erreforma eta berrikuspena. Bi prozedurak, nahiz eta helburu berera eramanez, modu desberdinean arautzen dira eta betekizun desberdinak eskatzen zaizkie. Hala ere, Gutunaren aldaketa formalekin batera, Gutunaren zenbait xedapenek edukia aldatua edo egokitua ikusteko aukera dago, Erakundearen praktikaren bidez, Erakundearen beraren eta Estatu kideen iritziarekin batera. Ildo beretik, Gutuna egokitzeari dagokionez, praktikan beste aldaketa batzuk ekar daitezke, Estatutukoak ez diren prozeduren bidez. Erreformarekin jarraituz, orain adierazi den moduan, prozesu bat jarraitu beharko da, Gutunaren 108. artikuluan arautzen dena. Lehenik eta behin, Estatu kideek erreforma-programa adostu beharko dute. Hau Batzorde Nagusiak aztertu beharko du organo honen gai-zerrenda ofiziala aurretik izanez, noski. Batzordean desadostasunik badago, bozketa egin beharko da. Estatu kideen gehiengoaren

²⁸⁹ THE GOVERNMENTS OF FRANCE AND MEXICO (2015). Political Declaration on Suspension of Veto Powers in Cases of mass atrocities. *Global Centre for the Responsibility to Protect*. <https://www.globalr2p.org/resources/political-declaration-on-suspension-of-veto-powers-in-cases-of-mass-atrocities/> (azken bisita 2024/01/12).

²⁹⁰ NOLLKAEMPER, A. (2022). Three options for the veto power after the war in Ukraine. *EJIL: Talk!* <https://www.ejiltalk.org/three-options-for-the-veto-power-after-the-war-in-ukraine/> (azken bisita 2024/01/12).

²⁹¹ NOLLKAEMPER, A. (2022). *Three options for the veto power after the war in Ukraine, op. cit.*

²⁹² NOLLKAEMPER, A. (2022). *Three options for the veto power after the war in Ukraine, op. cit.*

babesa duen plana Batzar Nagusian aurkez daiteke. Bigarrenik, Batzar Nagusiak bozkatu beharko du. Estatu kideen gehiengoak onartuko du, Batzarraren gai-zerrendan formalki sartu aurretik. Ebazpen batek bertan dauden herrialdeen bi herenen onespena behar du. Hirugarrenik, Batzorde Juridikoak onartutako planak osoko bilkurara itzuli behar du bozkatzeko. Botoa ematen duten Estatuon bi herenen onespena behar da. Azkenik, Segurtasun Kontseiluak bozkatu beharko du, baina, hemen arazoa daukagu, beto eskubidea erabiliko baitute Kide Iraunkorrek²⁹³.

Batez ere, Gutunaren 39-41 artikulua berridaztea da, hauek dira VII Kapituluaren bakearen aurkako mehatxuei, bakearen urratzei eta eraso-ekintzei inguruan gauzatzen diren jarduerak arautzen dituenak. 39. artikulua²⁹⁴ hasiz, bakearen aurkako mehatxuak, honen urraketak edo eraso-ekintzak dagoen, eta gomendioak emango dituen edo erabakiko duen zer neurri hartuko diren, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko edo berrezartzeko, erabaki eskuduntza daukan organoa aldatuko zen, arduraren menpe geratuz, 2/3ren gehiengoaren bidez, Segurtasun Kontseiluari botere hau kenduz.

40.²⁹⁵ artikulua²⁹⁵ jarraituz, organo erabakitzailearen arazoa berriz ere geldiarazteko, Segurtasun Kontseiluaren boterea Batzarraren esku utziko zen berriz ere, edo, bestalde, eta Kontseiluaren ahotsa betirako ez isiltzeko, ezinezkoa liratekeena errealitatean, honen esku utzi, baina, Batzordearen 2/3 horrela nahiko baluke, betoa balio gabe uzteko eskumena izatea bigarren bozkaketa baten bidez.

Bukatzeko, 41. artikulua²⁹⁶ dagokionez, indar armatuaren erabilera ez dakarten neurriei dagokionez, harreman diplomatikoak hausteren aukeraren eta beharraren

²⁹³ ZHANG, L. T. (2005). A Brief Analysis of the Security Council Reform Procedures. *The Contemporary Law*, 19. liburukia 8-10 orr.

²⁹⁴ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 39. artikulua: "The Security Council shall determine the existence of any threat to the peace, breach of the peace, or act of aggression and shall make recommendations, or decide what measures shall be taken in accordance with Articles 41 and 42, to maintain or restore international peace and security."

²⁹⁵ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 40. artikulua: "In order to prevent an aggravation of the situation, the Security Council may, before making the recommendations or deciding upon the measures provided for in Article 39, call upon the parties concerned to comply with such provisional measures as it deems necessary or desirable. Such provisional measures shall be without prejudice to the rights, claims, or position of the parties concerned. The Security Council shall duly take account of failure to comply with such provisional measures."

²⁹⁶ Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren 41. artikulua: "The Security Council may decide what measures not involving the use of armed force are to be employed to give effect to its decisions, and it may call upon the Members of the United Nations to apply such measures. These may include complete or partial interruption of economic relations and of rail, sea, air, postal, telegraphic, radio, and other means of communication, and the severance of diplomatic relations."

moldaketa egin beharko zen, ez baitator bat Gutunaren 33. artikuluekin²⁹⁷, ahal bada, negoziaketa bezalako bideekin erantzutea hoberena izanen zen segurtasuna eta bakea mantentzeko, eta ez bakarrik hauek jadanik piztu direnean, baizik eta modu prebentiboan. Bestalde, Batzordearen errebisioa interesgarria lirateke ere.

Batzar Nagusia izango da gakoa aldaketarako edozein prozesutan. Baliteke kide iraunkorrek egungo sistematik alde egiteko duten borondatea Batzar Nagusiak Kontseiluaren eginkizun batzuk burutu eta bere gain hartzeko duen gaitasunaren araberrakoa izatea, 2022ko otsailaren 26ko errusiarren betoaren ondoren gertatu zen bezala, 140 Estatu baino gehiagok erasoak kondenatu zutenean. Asko esango da, beraz, biltzarreko Estatu kideek jarrera komun bat izan dezaketela kide iraunkorrei presioa egiteko, hala nola, 60 urte igaro ziren Bakea Berreskuratzeko Unitatea²⁹⁸ sortu zenetik, eta Batzar Nagusiak berriro sartu behar izan zuen Segurtasun Kontseiluak ezer ez egiteko asmorik aurkezten zuen egoeraren aurrean²⁹⁹.

Izan ere, betoa ez da arazo bakarra, bi herenen adostasuna lortzeko zailtasunak aurkezten dira multipolarizazioa dela eta. Japonia, India, Alemania eta Brasil – G-4 bezala izendatzen direnak- aliatu egin dira Segurtasun Kontseiluan eserleku iraunkorrek lortzeko. Aitzitik, 20 herrialde baino gehiago, tartean Italia, Hego Korea, Pakistan eta Mexiko, segurtasun kontseilua etengabe handitzearen aurka daude. Afrikako herrialdeek zenbakizko abantaila handia dutenez Batzar Nagusian, Afrikako Batasunaren jarrera zuzentzeak eta beste Estatu talde batzuekin koordinatzeak eragin handia izango dute Segurtasun Kontseiluaren erreformaren ikuspegietan. Nigeria, Hegoafrika, Egipto, Senegal eta Libia dira Afrikako balizko eserleku iraunkorren aldekoak. Egipto eta Libia, Estatu Islamikoekin elkartu dira mundu islamikoan ordezkariak eskatzeko. Aldi berean, Karibeko Komunitateko, Ozeano Bareko eta Indiako Ozeanoko uharte-Estatu txikien koalizio batek Segurtasun Kontseiluaren lanetan, Estatu txikien parte-hartze handiagoa eskatu zuen. Kuba eta Ukraina betoaren aurka daude, gogor babestuz betoaren erabilera mugatzeko ekimen guztiak, batez ere Kide Iraunkorrek betatzen duten gatazkaren alderdi

²⁹⁷ Nazio Batuen Erakundearen 33.1 Artikulua: “The parties to any dispute, the continuance of which is likely to endanger the maintenance of international peace and security, shall, first of all, seek a solution by negotiation, enquiry, mediation, conciliation, arbitration, judicial settlement, resort to regional agencies or arrangements, or other peaceful means of their own choice.”

²⁹⁸ *Security Council deadlocks and Uniting for peace: An abridged history*. Securitycouncilreport.org. 2023. https://www.securitycouncilreport.org/atf/cf/%7B65BFCF9B-6D27-4E9C-8CD3-CF6E4FF96FF9%7D/Security_Council_Deadlocks_and_Uniting_for_Peace.pdf (azken bisita 2024/01/12).

²⁹⁹ NOLLKAEMPER, A. (2022). *Three options for the veto power after the war in Ukraine*, op. cit.

badira. Argentinak eta Australiak Segurtasun Kontseiluaren gardentasuna zalantzan jartzen dute. Georgiak proposatu zuen betoa mugatzea eta erreformatzea gizateriaren aurkako krimenak, gerra krimenak, garbiketa etnikoa eta genozidioa saihesteko³⁰⁰.

Nolanahi ere, Kontseiluaren boterearen eta ez-egitearen ondorioz blokeo egoera batera iristeko geroz eta aukera gehiago daude, Kide Iraunkorrei *status quo*-a utz dezaten konbentzitzen lagun dezakeena. Modu honetan, agian, beto-botererik gabeko beste akordio batek, Kide Iraunkorrenzat onargarria eratzeko aukera egon daiteke.

Mendebaldearentzat edozein akordio berriak abantaila nabarmena izango luke. Gutun-aldaketek ezinen ditu Estatuaren interes estrategikoak ezabatu. Baina, berez, emaitza oraingo egoera baino okerragoa ezingo da izan, ezta legitimitate gutxiagokoa. Eraso baten ondorio juridikoetatik Estatu ezkutuei botere unilateralak kenduz, lagungarri izan daiteke nazioarteko ordena hobeto mantentzeko eta nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko interes komuna aurrera eramateko.

VI. AZKENENGO HAUSNARKETA.

Azaldutakoaren isla garbia, Gutunean zehaztutako segurtasun kolektiboko sistema indartzeko beharra da, baita Segurtasun Kontseiluaren inguruan azaldutakoa eta haren jarduteko eta erabakiak hartzeko prozedurak erreformatzea, hertsatzeko mekanismoak sortu ahal izateko.

Gutunak, 2.4 artikulua bidez, mehatxatzea edo indarra erabiltzea debekatzen da, eta bi kasutan bakarrik erabil daiteke indarra, bidezko defentsa eta Segurtasun Kontseiluak hartutako segurtasun kolektiboko neurriak, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren aurkako mehatxua dagoenean.

Egun, hiski, arazoak eratzen ditu egoera geopolitikoan, Estatuak haien interesen inguruan interpretatzen dute hau, beraz, doktrinak adierazi duen bezala, Nazioarteko Justizia Auzitegia interpretazio zorrotz bat eratu beharko luke, baita topiko honi buruzko definizio argia edo zein egoeratan argudiatu daiteken salbuespena.

³⁰⁰ CHEN, C.; DU, J.; MA, R., JIANG, C.; DENG, Q. (2022). The reform of the UN Security Council: How to balance legitimacy and efficiency. *SHS Web of Conferences*, 148. liburukia <https://doi.org/10.1051/shsconf/202214803004> (azken bisita 2024/01/12). 5-8 orr.

Nazio Batuek – baita beste Nazioarteko edo Erkidegoko Erakundeek - kritika ugari jaso dute krisi humanitarioen edo giza eskubideen urraketa larrien kasuetan Segurtasun Kontseiluak ezer ez duelako egin.

Kasu horietan jarduteko betebeharra ezartzeko ekimena sortu da. Betebehar hau, babesteko-beharra da. Estatu bakoitzak bere biztanleria babesteko erantzukizuna dauka, eta, hala egiten ez badu, esku ez hartzeko printzipioak amore eman behar du, nazioarteko komunitateak, babesa eskuratuz, erantzuna emanen du, eraso armatuaren aukerarekin.

Marko juridikoak armen salerosketaren kontrolpea hobetzen laguntzen duen harren, hutsune zabalak aurkitzen dira. Europar zuzenbidearen bitartez hauek betetzen saiatu dira, baina, Estatuaren barne-legediaren garapenaren ispilatzea osatzen dute.

Zer esan dohaintzen inguruan, materia eksklusiboki arautzen duen testuen falta, G2G kontratuen erabilerarekin eta isiltasunarekin bat eginez, laku huts batean igeri egiten saiatzea da. Zaila da arazoak ikustea edo salatzea existitzen ez den araudian, batez ere inork honen inguruan hitz egiten ez duenean.

Haatik, nahiz eta giza-eskubideen urraketen babesaren beharraren aipamena egiten den, hauen kontrola kaskarra da. Interesgarria nolatan lehen munduko Estatuak hauek ez errespetatzeagatik auzitegien aurrean inoiz ez izatea, kontutan izanda hauen salerosketen helmuga ezagunak zenbait kasutan.

